

AURKIBIDEA

1. 2011-2012 OROIT-IDAZKIAREN HITZAURREA

2. GASTEIZKO SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN JARDUERAREN LABURPENA

2.1 Sindiko-Herritarren Defendatzailearen Bulegoak egindako txosten bereziak.

2.1.1 Babes ofizialeko etxebizitzetako kalteei buruzko txostena (erreg. zk.: 1619/11)

2.2 Jarduerak

2.2.1 Hizlari

2.2.2 Gonbidapenak

2.2.3 Talde eta elkarteekin egindako bilerak

2.2.4 Beste sindikoekin egindako bilerak

2.2.5 Vitoria-Gasteizko Udalarekiko harremanak

2.2.6 Ikuskatze jarduerak

2.3 Sindikoaren - Herritarren Defendatzailearen ebazpenak, sailez sail (gomendioa egitea, ezestea, ez onartzea, bideratzea, orientabidea ematea eta beste).

2.3.1.- Ogasun Saila

2.3.1.1- Zergak

a) Ezestea

* Hiri izaerako lurren gainbalio-zerga eta bahiketa (erreg. zk.: 1488/11)

2.3.1.2- Diru-bilketa

a) Ezestea

* Zirkulazioaren gaineko zerga zorpidetzea (erreg. zk.: 1490/11)

* Isuna: eztabaida mahaia (erreg. zk.: 1515/11)

* Isuna: TAO egoiliarrentzat aldatzea (erreg. zk.: 1540/11)

* Higiezinak jaraunspen bidez eskualdatzeari dagokion Zergan hobaria ezeztea (erreg. zk.: 1652/12).

* Gidaria identifikatzeko obligazioa ez betetzeagatiko salaketak (erreg. zk. 1607/11)

* Babes ofizialeko etxebizitza eta OHZ (erreg. zk.: 1674/12)

b) Idazki lagundua

* Isuna: erabat baliorik gabe uztea (erreg. zk.: 1518/11)

* Isuna: telefonoa gidatzean erabiltzea (erreg. zk. 1556/11)

* Isuna gidaria ez identifikatzeagatik (erreg. zk.: 1621/11)

c) Gogorarazpena

* TAO salaketa baliogabetzeko ordaindutako 5,50 euro itzultzea (erreg. zk.: 1302/10; 1343/10 eta 1489/11)

* Herentziaren plusbalioa (erreg. zk. 1685/12)

d) Orientabidea

*Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga: zatikatzeagatiko interesa (erreg. zk.: 1530/11)

*Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga: erabilitako ondasunaren balioa (erreg. zk.: 1533/11)

*Bahiketa eta mugimenduak kontu korronteetan (erreg. zk.: 1636/11)

e) Gomendioa

* Ertzaintzako agenteek jarriko isuna (erreg. zk.: 1471/11)

* Salaketa-orrian eta isunaren jakinarazpenean testuak bat ez etortzea (erreg. zk.: 1469/11)

* Bidegabe aparkatzea pasabidea iraungita dagoelako (erreg. zk.: 1586/11)

* Ezinduentzako lekuan aparkatzeagatiko salaketa (erreg. zk.: 1553/11)

* Iraungitako trafiko isunak (erreg. zk.: 1438/10)

* Zorra zatikatzea (erreg. zk.: 1562/11)

2.3.1.3- Ondare Erantzukizunaren Atala

a) Idazki lagundua

* Erorketa eta erreklamazioa (erreg. zk.: 1494/11)

* Ondarearen gaineko erantzukizuna ukatzea, erorketa bat izan ondoren (erreg. zk.: 1654/12)

b) Orientabidea

* Ariznabarreko futbol zelaian erori izana (erreg. zk.: 1528/11)

c) Errefusatzea

* Kanean erori izana hesi baten erruz (erref. zk.: 1620/11)

d) Gomendioa

* Bizikletaren koadroa "txatar bihurtzeagatiko" kalte-ordainketa (erref. zk.: 1598/11)

2.3.1.4- Zuzendaritza

a) Gomendioa

* Iritzi artikulua administrazio dossierrean (erreg. zk.: 1499/11)

- * Salbatzailearen hilerriko panteoiaren salmenta (erreg. zk.: 1483/11 eta 1486/11)
- * TAO txartelak ematerakoan ordaintzeko dauden moduak (zk.: 1484/11)
- * Judimendin aparkalekuak esleitzea zk.: 1612/11)
- * Gainbalioarengatiko bahiketa (zk.: 1656/07)
- * Etxetik egotzitakoak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergatik salbuestea (zk.: 1618/11)

b) Gogorazpena

- * Aparkalekua Juan de Ayala parkinean (zk.: 1511/06)

c) Ezestea

- * Isuna pasabide lizentzia iraungita edukitzeagatik (zk.: 1559/11)

2.3.2.- Herritarren Segurtasunaren Saila

2.3.2.1- Udaltzaingoa

a) Ezestea

- * Isuna: kontrako noranzkoa (erreg. zk.: 1480/11)
- * Prostituzio etxea Paraguai kalean (erreg. zk.: 1452/11)
- * Isuna lorategi eremu baten aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1523/11)
- * Multacar eta isuna zirkulazioa oztopatzeagatik (erreg. zk.: 1538/11)
- * Isuna: zamalanetarako lekuan aparkatzea (erreg. zk.: 1567/11)
- * Isuna bidegabe aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1560/11)
- * Isuna zebrabidean aparkatzeagatik (erref. zk.: 1551/11)
- * Sanción por aparcar en zona para discapacitados(Nºreg.: 1574/11)
- * Alkoholemia kontrola (erref. zk.: 1554/11)
- * Isuna semaforoa gorri igarotzeagatik (erref. zk.: 1589/11)
- * Isuna telefonoz hitz egiten ari dela gidatzeagatik (erref. zk.: 1610/11)
- * Zigorra asegurerik ez duen ibilgailuan bide publikotik joateagatik (erreg. zk.: 1534/11)
- * Isuna nabarmen oztopatzeagatik (erreg. zk.: 1538/11)
- * Udaltzaingoa eskutik hartzea bizileku partikularrean (erreg. zk.: 1671/12)

b) Orientabidea

- * Prostituzio etxea Antso Jakitunaren kalean (erreg. zk.: 1485/11)
- * Legez kanpoko erroldaren salaketa, horren truke diru zenbatekoa kobratu baitote (erref. zk. 1498/11)
- * Kezka Udaltzaingoa beren bizilekuak ikuskatzera joan direlako erroldak ikertzera (erreg. zk.: 1552/11)
- * Auzokidearen zarata (erreg. zk.: 1614/11)

c) Errefusatzea

- * Auzokideen zaratak (erreg. zk.: 1512/11)
- * Isuna gidaria ez identifikatzeagatik (erreg. zk.: 1541/11)

d) Idazki lagundua

- * Isuna ezinduentzako gunean aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1524/11)

e) Gomendioa

- * Multacar (erreg. zk.: 1527/11, 1545/11)
- * After Hours (Erreg. zk.: 1006/08)
- * Laguntza zereginak (erreg. zk.: 1604/11)
- * Isunaren arrazoia: hartutako irudia (erreg. zk.: 1546/11)

f) Gogorazpena

- * Isuna autobus geltoki aldatuan (erreg. zk.: 1495/11)
- * Tabernak sortutako enbarazua (erreg. zk.: 1006/08)
- * Udaltzainen adeitasuna (erreg. zk.: 1631/11)

g) Herritarrak berak itxia

- * Isuna eskualdatze-erregistrorik gabe motorra salerosteagatik (erreg. zk.: 1596/11)

h) Bitarteko jarduera

- * Multacar bidez jarritako isuna (erreg. zk.: 1627/11)

i) Bitartekaritza

- * Udaltzainaren tratu ezegokia (erreg. zk.: 1565/11)

j) Herritarrak berak itxia

- * Prostituzioa Bizigunek alokatutako etxebizitzan (erreg.: 1582/11)

2.3.2.2- Zuzendaritza

a) Gomendioa

- * Isuna zamalanetarako seinalea duen lekuan aparkatzeagatik, adierazitako ordutegitik kanpo (erreg. zk.: 1500/11)
- * “Aparkalekuak” Mendiolabidean (erreg. zk.: 1639/12)

2.3.2.3- Mugikortasuna eta Garraioa

a) Ezestea

- * Isuna egoiliarren eremuan (erreg. zk.: 1649/12)

2.3.3.- Gizartegintza Saila

2.3.3.1- Zuzendaritza

a) Ezestea

- * Alokairurako laguntzak ezestea (erreg. zk.: 1482/11)
- * Laguntzak etetea etxebizitza aldaketa ez jakinarazteagatik (erreg. zk.: 1496/11)
- * Gizarte laguntzak ukatzea, erroldako betekizunak ez betetzeagatik (erreg. zk.: 1517/11)

- * Bonotaxia seme ezinduarentzat (erreg. zk.: 1516/11)
- * Gizarte laguntzak: bertan benetan ez bizitzea (erreg. zk.: 1537/11)
- * Gizarte laguntzak bertan behera uztea, aldaketak ez jakinarazteagatik (erref. zk.: 1568/11)
- * Udaltzaingoaren eta Gizartegintza Sailaren esku hartzearekiko ezadostasuna (erreg. zk.: 1557/11)
- * Sarrerak bermatzeko errenta eta diru subsidioa etetea eta bidegabe kobratzea (erreg. zk.: 1595/11)
- * Etxez etxeko laguntza (erreg. zk. 1581/11)
- * Atzerapena gizarte langileekiko hitzorduetan eta ondorioz laguntzak berandu tramitatzea (erreg. zk.: 1306/10)
- * Senar errefuxiatuarengatik laguntzak bertan behera uztea (erref. zk.: 1587/11)
- * Gizarte laguntzak bertan behera uztea, sarreren aldaketak ez jakinarazteagatik (erref. zk.: 1531/11)
- * Gizarte laguntzak bertan behera uztea, datuak ezkutatzegatik (erref. zk.: 1563/11)
- * Gizarte laguntzak ukatzea, diru baremoak gainditzeagatik (erref. zk.: 1625/11)
- * Udalaren “Biodantza” ikastaroetan sartzan ez uztea (erreg. zk.: 1535/11)
- * Gizarte laguntzak ukatzea (erreg. zk.: 1658/12)
- * Gizarte laguntza etetea (erreg. zk.: 1505/11)
- * Sarrerak bermatzeko errenta ukatzea (erreg. zk.: 1575/11)
- * Baremoak gainditzeagatik laguntzak ukatzea (erref. zk.: 1651/12)
- * Elikadurarako laguntza ekonomikoak ukatzea (erreg. zk.: 1658/12)

b) Orientabidea

- * Laguntzak ukatzea: benetako etxebizitza ez izatea (erreg. zk.: 1491/11)
- * Laguntzak etetea: agiriak ez aurkeztea (erreg. zk.: 1492/11)
- * Udalarekiko zorra eta gizarte laguntzak bahitzea (erreg. zk.: 1539/11)
- * Lan Ministerioarengandik bidegabe kobratutakoak erreklamatzeko (erreg. zk.: 1580/11)
- * Gizarte laguntzak bertan behera uztea, lan batean “borondatezko baja” eskatzeagatik (erref. zk.: 1634/11)

c) Gomendioa

- * Laguntzak etetea: enplegu eskatzaile gisa ez jarraitzea (erreg. zk.: 1481/11)
- * Gizarte laguntza ukatzea (erreg. zk.: 1504/11)
- * Gizarte laguntzak etetea eta jakinarazpen akastuna (erreg. zk.: 1521/11)
- * Gizarte laguntzak etetea jakinarazten huts egiteagatik (erreg. zk.: 1593/11)
- * Eskabideei ez erantzutea (erreg. zk.: 1635/11)
- * Laguntzailerik gabeko adingabeak (erreg. zk.: 1643/12)

d) Gogorazpena

- * Lan hautaketarako irizpideak (erreg. zk.: 1487/11)

e) Bitarteko jarduera

- * Agiriak eskatzea Gizarte Laguntzetan (erreg. zk.: 1591/11)

* Gizarte laguntzak bertan behera uztea, sarrerak egiaztatzeko agiriak ez aurkezteagatik (erref. zk.: 1584/11)

* Errolda faltsutzeak (erreg. zk.: 1585/11)

f) Bitartekaritza

* Laguntzailerik gabeko adingabe bati jantokirako txartela ukatzea (erreg. zk.: 1597/12)

g) Idazki lagundua

* INEMen laguntzak ukatzea (erreg. zk.: 1681/12)

h) Herritarrak berak itxia

* Elikaduragatiko laguntzak ukatzea (erreg. zk.: 1653/12)

2.3.3.2- Errolda

a) Gomendioa

* Erroldatik bat-batean baja ematea (erreg. zk.: 1599/11)

b) Ezestea

* Ofiziozko baja Udal Erroldan (erreg. zk.: 1629/11)

2.3.4.- Hirigintza Saila

2.3.4.1-Plangintza

a) Orientabidea

* Txalet tasatua Ibaiondon (erreg. zk.: 1322/10)

* Hodiak buxatzea (erreg. zk.: 1526/11)

* Meskita: eztabaida mahaia (erreg. zk.: 1543/11)

* Prezio tasatuko aparkalekuak saltzea Abetxukun (erreg. zk.: 1611/11)

b) Ezestea

* Balkoiak ixtea (erreg. zk.: 1501/11)

c) Gomendioa

* Erantzun gabeko idazkia (erreg. zk.: 1507/11)

* Lursaila banantzea (erreg. zk.: 1522/11)

2.3.4.2- Zuzendaritza

a) Ezestea

* Kultura eta erlijio zentroa (Meskita) (erreg. zk.: 1513/11)

b) Gomendioa

* Ruiz de Bergatarren jauregia (erreg. zk.: 48 / 11 OFIZIOA)

2.3.4.3- Nekazaritza Eremua eta Mendiak

a) Errefusatzea

* Estaldurarik gabe Bolibarren (erreg. zk.: 1514/11)

* Hesitu gabeko lursaila (erreg. zk.: 1529/11)

2.3.4.4- Bide Publikoa

a) Ezestea

* Zamalanak negozioaren aurrean (erreg. zk.: 1497/11)

b) Gomendioa

* Tranbiaren kutxetek sortutako enbarazua (erreg. zk.: 1502/11)

c) Orientabidea

* Bermea itzultzea lana bukatu ondoren (erreg. zk.: 1655/12)

2.3.4.5- Hilerriak

a) Ezestea

* Panteoien salerostea Santa Isabel hilerrian (erreg. zk.: 1613/11)

b) Gomendioa

* Ordenantza-proposamena: hilerria, errautsak barreiatzea (erreg. zk.: 49 / 11 OFIZIOA)

2.3.4.6- Eraikuntzen Legezko Jaurbidea

a) Ezestea

* Oinezkoen pasabideak mantentzea (erreg. zk.: 1547/11)

* Oinezkoen pasabideak Arantzabela plazan (erreg. zk.: 1555/11)

* Obrak jabekideen komunitatean (erreg. zk.: 1645/11)

b) Bitarteko jarduera

* Lonja batean arrandegia jartzeko asmoa (erref. zk.: 1550/11)

2.3.5.- Kirol eta Kultura Saila

2.3.5.1- Kultura

a) Bitartekaritza

* Bakearen aldeko koordinakundea-Oroimenaren urratsak (erreg. zk.: 1506/11)

b) Gogorazpena

* Erdigunea ekitaldiz arintzea (erreg. zk.: 1384/10)

c) Orientabidea

* UNEDen ikasgaiak ebaluatzeko arazoa (erreg. zk.: 1678 / 12)

2.3.6.- Ingurumena

2.3.6.1- Zuzendaritza

- a) **Gogorazpena**
 - * Handizkako merkatua: emakida kontratua berrikustea (erreg. zk.: 1509/11)
- b) **Bitarteko jarduera**
 - * Zuhaitzetako ilarak Abetxukun (erreg. zk.: 1520/11)
- c) **Orientabidea**
 - * Auzokoaren sukaldetik datorren kea (erreg. zk.: 1605/11)
- d) **Gomendioa**
 - * Bilketa pneumatikorako ontziak (erreg. zk.: 1622/11)
 - * Bidegabeko jokabidea pub batean (erreg. zk.: 779/07)
- e) **Idazki lagundua**
 - * Irisgarritasuna jabekideen komunitatean (erreg. zk.: 1668/12)

2.3.6.2.- OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

- a) **Orientabidea**
 - * Bizi ohitura osasungarriari buruzko ikastaroak bertan behera gelditzea (erreg. zk.: 1647/12)

2.3.7.-Lehendakaria

2.3.7.1- Berdintasun Zerbitzua

- a) **Ezestea**
 - * Diskriminazio positiboa (erreg. zk.: 1624/11)

2.3.7.2- Gizarte-etxeen Zerbitzua

- a) **Gomendioa**
 - * Zigorra gizarte etxean, funtzionamendua nahasteagatik (erreg. zk.: 1646/12)
- b) **Idazki lagundua**
 - * Gizarte etxean sartzea galaraztea (erreg. zk.: 1630/11)

2.3.8.- Funtzio Publikoa

2.3.8.1- Zuzendaritza

a) Ezestea

- * Funtzio Publikoan sartzea (erreg. zk.: 1439/11)
- * 2011ko Udaltzaingoko LEP (erreg. zk.: 50 / 11 OFIZIOA)

2.3.9.- Eraikinetako mantentze lanak

2.3.9.1- Zuzendaritza

a) Gomendioa

- * Ariznabarreko Recreativo taldearen kirol instalazioen egoera (erreg. zk.: 1623/11)

2.3.10.- Udal sozietate anonimo eta erakunde autonomoak

Udalarenak

2.3.10.1- Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentzia

a) Ezestea

- * Fatxadako kableak (erreg. zk.: 1455/11)
- * Eraikineko estalkian obrak egiteko diru-laguntza (erreg. zk.: 1525/11)

b) Bitarteko jarduera

- * Auzokideen zaratak (erreg. zk.: 1510/11)
- * Igogailua jartzeko diru-laguntza (erreg. zk.: 1532/11)
- * Plastikozko lorontziak Erdi Aroko etxarteetan (erreg. zk.: 1418/10)
- * Prostituzioa Barnekale Berrian (erreg. zk.: 1544,1549,1569,1571,1572,1573/11)

c) Orientabidea

- * Diru-laguntza antolamendutik kanpoko etxebizitzarako (erreg. zk.: 1525/11)
- * Datuak babestea (erreg. zk.: 53 / 11 OFIZIOA)

d) Gomendioa

- * Etxarte "okupatua" (erreg. zk.: 1548/11)
- * Bide publikoan egindako obrek atarian eragindako kalteak (erreg. zk.: 1648/12)

2.3.10.2-XXI Zabalgunea

a) Bitarteko jarduera

* Olarizukoei berriro ostatu ematea: * etxebizitzaren neurketa (erreg. zk.: 1503/11)

* Olarizukoei berriro ostatu ematea: kalitateen memoria (erreg. zk.: 1640/12)

b) Gomendioa

* Errekaleorrrekoei berriro ostatu ematea: * etxebizitza trukea (erreg. zk.: 1508/11)

c) Ezestea

* Babes ofizialeko etxebizitzaren salerosketa kontratua (erreg. zk.: 1542/11)

2.3.10.3-Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

a) Ezestea

* Aisialdirako baratzeak Urarten (erreg. zk.: 1519/11)

2.3.10.4- Tuvisa

a) Orientabidea

* Lan eskaintza Tuvisan (erreg. zk.: 1616/11)

2.3.10.5- Amvisa

a) Bitarteko jarduera

* Aberasturi urez hornitzeko obrak (erreg. zk.: 1576/11)

b) Gomendioa

* Ur hornikuntza Aberasturin (erreg. zk.: 1577/11)

2.3.11.- Beste

a) Orientazioa

* Semearen berririk ez eta nola hil zen ez jakitea (erreg. zk.) 1583/11)

b) Idazki lagundua

* Pertsona batzuk babes ofizialeko etxebizitza batean bizitzea jabeak izan gabe (erreg. zk. 1592/11)

c) Errefusatzea

* Elkarbizitza ezinezkoa auzokoekin (erreg. zk.: 1632/11)

d) Bitarteko jarduera

* Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen prestazioak (erreg. zk.: 1626/11)

e) Gomendioa

* Urte bukaerako suziriak (erreg. zk.: 1603/11)

* Biribilguneen izenak (erreg. zk.: 52 / 11 OFIZIOA)

* 2012ko Zerbitzu Publikoak eskaintzarekin lotutako Tasen Ordenantza Fiskala (erreg. zk.: 1660/12)

2.4 Sindiko-Herritarren Defendatzailearen Bulegoak beste erakunde batzuetara bideratutakoak

2.4.1.- Arartekoa

* Arabako Foru Aldundiaren ukoa familia ugari agiria tramitatzeko (erreg. zk.: 1564/11)

* Gizarte laguntza etetea (erreg. zk.: 1590/11)

3. ITXI GABE GERATZEN DIREN DOSIERRAK

4. BERRIRO ZABALDU DIREN DOSIERRAK

5. BERARIAZKO JARDUERAK

5.1 Iradokizunetarako eta Erreklamazioetarako Batzorde Berezia

5.1.1.- 2011ko apirilaren 13ko Batzordea

5.1.2. 2011ko azaroaren 7ko Batzordea

5.1.3.- 2012ko martxoaren 5eko Batzordea

6. ZERBITZUAREN EBALUAZIOA GASTEIZKO HERRITARREN USTEZ

7. 2011-2012 EKITALDIAN EGINDAKO KEXA ETA KONSULTEN ESTADISTIKA AZTERKETAK

8. PRENTSA DOSIERRA

1. HITZAURREA

JAVIER

2. GASTEIZKO SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN JARDUERAREN LABURPENA

2.1. Txosten bereziak

Oroit-idazkiak hartzen duen denbora tartean, 2011ko martxotik 2012ko otsailera bitartean, Gasteizko herritarrentzat aparteko munta duten zenbait txosten egin dira. Eragindako udal zerbitzuen funtzionamendua hobetze aldera egin dira, hain zuzen ere, txosten horiek.

Garrantzi berezia duten gaiak jorratzen dira txosten berezi horietan, gasteiztarren artean interes handia piztu duten zenbait kontu, eta hainbat proposamen egiten zaizkio bertan udalari, beraren zerbitzuak hobetzen laguntzera bideratutako proposamenak, esan bezala:

2.1.1 Babes ofizialeko etxebizitzetako kalteei buruzko txostena (erreg. zk.: 1619/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar batek Zabalgana etorbidean kokatutako eta 2007ko urriaren 29an LAGUNKETA SA enpresarekin sinatutako salerosketa-kontratu bidez erositako BOE etxebizitzaren arazoei buruzko kexa planteatu du: berogailu-sistemaren erradiazio txarra (horren ondorioz, neguan ez zen erabilgarria izan), akatsak sistema elektrikoan eta argi-sisteman, akatsak isolamendu termikoan eta soinu-isolamenduan eta desadostasunak Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Diseinuari buruzko Ordenantzak onartzen dituen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako kontseilariaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduan aurrez ikusitako BOE baldintzei dagokienez.

2.- Arazoaren azterketa

Erreklamatzailaren etxebizitzara egin dugun bisitan zenbait arazo daudela egiaztatu dugu baina ezin ditugu Udalaren eskumenekin lotu. Garrantzitsua da adieraztea Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinuari buruzko Ordenantzek Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Ingurumen Sailari igortzen diotela horien gaineko eskumena, erreferentziazko administrazio gisa. Hori ondorioztatzen da salerosketa-kontratuaren klausuletatik ere. .

Bestalde, eroslearen aurrean, etxebizitzan galdagarriak diren kalitateen erantzulea ez da saltzailea ez den beste inor izango, kasu horretan LAGUNKETA SA enpresa. Hori dela eta, haren aurrean egin beharko da ezkutuko akatsak konpontzeko erreklamazioa edo, kasuan kasu, salerosketa-kontratua deuseztatzeko erreklamazioa hari bideratu beharko zaio.

Gasteizko Udalaren esku-hartzea 9. Santo Tomas sektoreko RC PA-5 lursailaren oinarrizko proiektua betetzearen oniritzia ematera mugatuko da (Alberto Martinez Castillo eta Beatriz Matos Castaño arkitektoak), 2000ko abenduaren 27ko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiarekin, horren plan partzialekin eta aldaketekin, eskusiboki lotuta beti.

21 Zabalgunea elkarteak laguntzaile gisa jardun du eremuaren plangintzan eta antolamenduan eta etxebizitzaren esleipenean bitarteko izan da, hau guztia Gasteizko Udalaren “21. Zabalgunea” Hirigintza Elkarte gisa estatutu sozialei jarraiki.

Gure ustetan, erreferentziazko higiezinak jasan ditzakeen akatsak (horietako zenbaitek fatxadaren moduko elementu komunei ere eragiten diete) Kode Zibilak eta Eraikuntzako Antolamenduaren Legeak¹, araututako ezkutuko akatsen kategorian sartuko lirateke.

¹ Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legeak gizarteak eskatzen duen kalitate mailari erantzutea du azken xede, horretarako etxebizitzek pertsonen segurtasuna, gizartearen ongizatea eta ingurumenaren babesa bermatzeko ezinbestekoak diren oinarrizko betekizunak ezarrita. Eraikuntzaren Kode Teknikoak eraikinek eta instalazioek oinarrizko segurtasun eta bizigarritasun betekizunak bermatzeko izan beharreko oinarrizko betekizunak zehazten ditu.

Aldakuntzak

2002ko abenduaren 30eko 53/2002 Legea, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen bigarren xedapen osagarria aldatzen duena.

Eraikuntzako Antolamenduaren Legearen 17. artikulua. Eraikitze prozesuan parte hartzen duten eragileen erantzukizun zibila.

1. Kontratuko erantzukizunak gorabehera, eraikitzeko prozeduran parte hartzen duten pertsona fisiko zein juridikoek jarraian adierazten diren epeen barruan (obra jasotzen den denetik kontatuta) gertatu diren kalte materialengatik erantzun behar dute jabeen eta erakina edo horren zati bat erosi duten hirugarrenen aurrean:

a) hamar urtez, zimenduei, euskarriei, habeei, forjatuei, zama-hormei eta egiturako beste elementuei eragiten dituen akatsen ondorioz eraikinean gertatutako kalte materialen erantzukizuna, eraikinaren erresistentzia mekanikoari eta orekari zuzenean eragiten badiote.

b) Hiru urtez, eraikuntza elementuen edo instalazioen akatsen ondorioz eraikinean gertatutako kalte materialen erantzukizuna, bizigarritasunerako betebeharrak (3. artikuluko 1. ataleko c letra) ez betetzea eragiten badute.

Halaber, obren amaierako elementuei eragiten dioten gauzatze-akatsen ondorioz sortutako kalte materialen erantzukizuna izango du eraikitaileak urtebeteko epean.

2. Erantzukizun zibila pertsonalki eta banan-banan eskatuko da, bai norberak egin dituen edo egin gabe utzitakoengatik, bai bestek egin edo egin gabe utzi dituztenengatik, Lege honi jarraiki horiengatik erantzun behar bada.

3. Edonola ere, kalte materialen zioa pertsonalizatzerik ez badago edo behar bezala frogatzen bada hainbat errudun izan dela eta ez dagoela kalte horretan izan den esku hartze maila zehazterik, modu solidarioan eskatuko da erantzukizuna.

Nolanahi ere, sustatzaileak beste eragileekin batera modu solidarioan erantzungo du balizko erosleen aurrean, eraikuntza akatsak direla eta eraikineko kalte materialak direla eta..

Gure ustetan, erreferentziazko higiezinak jasan ditzakeen akatsak (horietako zenbaitek fatxadaren moduko elementu komunei ere eragiten diete) Kode Zibilak eta Eraikuntzako Antolamenduaren Legeak 11fn, araututako ezkutuko akatsen kategorian sartuko lirateke.

4. Kasu bakoitzean egoki diren administrazio neurriez gain, Lege honi jarraiki sustatzaileak duen erantzukizuna zabaldu egingo da beste pertsona fisiko edo juridikoetara, kontratuaren arabera edo sustapenean duten esku hartze erabakiorra dela eta sustatzaile gisa jokatzen duten kooperatiba zein jabe komunitateren sustatzaile edo kudeatzaile gisa edo antzera ari badira.

5. Proiektua proiektugile batekin baino gehiagorekin kontratatu bada, horiek modu solidarioan erantzungo dute.

Beste profesional batzuen kalkuluak, ikerketak, irizpenak edo txostenak kontratatzen dituzten proiektugileak lan horiek eskasak, okerrak edo zehaztugabeak izateagatik sor daitezkeen kalteen zuzeneko erantzukizuna izango du, haien aurka egin dezaketen errepikapena gorabehera.

6. Sustatzailea izango da obra buruaren eta bere menpe dauden pertsona fisiko eta juridikoen trebetasun profesional edo teknikorik ezak, arduragabekeriak edo beraiei dagozkien betebeharrak ez betetzeak eragindako akatsen ondoriozko kalte materialen erantzule zuzena.

Eraikitzaileak obraren hainbat arlo edo instalazio gauzatzeko pertsona fisiko edo juridikoak azpikontratatzan baditu, gauzatze akatsek sortutako kalte materialen ardura zuzena izango du, gerta daitezkeen errepikapena gorabehera.

Halaber, eraikitzaileak izango du erositako edo berak onartutako eraikuntza produktuen akatsak direla eta eraikinean eragindako kalte materialen ardura zuzena, gerta daitezkeen errepikapena gorabehera.

7. Obra amaieraren egiaztatzea izenpetzen duten obra zuzendaria eta obraren gauzatzeko zuzendaria izango dira agirian jasotakoaren egia eta zehaztasunaren arduradunak.

Proiektua egin ez duen pertsona batek obra horren zuzendaritza onartzen badu, bere gain hartzen ditu proiektu horretako huts, akats eta hutsegiteak direla eta sortutako kalteen erantzukizuna, proiektugilearen aurrean izan dezakeen errepikapena gorabehera.

Obra zuzendaritza teknikari batekin baino gehiagorekin kontratatzen bada, horiek modu solidarioan erantzungo dute, beraien artean duten banaketa gorabehera.

8. Eraikuntzako prozesuan parte hartzen duten agenteei ez zaie kalteen erantzukizuna eskatuko, baldin eta, kalte horiek zorizkoak, ezinbestekoak eta hirugarrenek edo kaltearen eragina pairatu duenak sortuak direla probatzen bada.

9. Artikulu honetan jasotako erantzukizunez gain, eraikinaren edo eraikitako atalen saltzaileak eroslearekin egindako kontratuan ezartzen dituen erantzukizunak eta Kode Zibilaren 1.486 artikuluan eta hurrengoetan eta salerosketen inguruko beste araudietakoak kontuan izan behar dira.

Saneamenduaren arloko erantzukizuna erreklamatzeko epeak:

Eraikitzailearen aseguria, obren amaierari eragiten dioten ezkutuko akatsek sortutako kalteen konponketa urtebetez bermatzeko.

Sustatzailearen aseguria, bizigarritasun arloko betebeharrak ez betetzea eragiten duten instalazioko edo eraikuntzako akatsek sortutako kalteen konponketa hiru urtez bermatzeko (barruko giroaren osasungarritasun eta estankotasuna, zaraten aurkako babesa, isolamendu termikoa...).

Sustatzailearen aseguria, zimenduei, euskarriei, habeei, forjatuei, zama-hormei eta egiturako beste elementuei eragiten dieten akatsen ondorioz eraikinean gertatutako kalte materialen konponketa (eraikinaren erresistentzia mekanikoari eta orekari zuzenean eragiten badiote) hamar urtez bermatzeko (eraikuntzaren antolamendurako azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 19. artikulua).

Aurrera egiterik duen erreklamazio bati ekiteko, erosleak etxebizitzaren kalte edo akats materialak eta horien konponbideak ebaluatuko dituen peritu baten txostena lortu behar luke.

Garrantzitsua da akatsak salerosketaren unean ezkutuan zeudela edo ez zitzaiola etxebizitza erosi aurretik ikusten utzi egiaztatzea.

Kontsumitzailearen Estatutuari buruzko 1981eko azaroaren 18ko 10/1981 Euskadiko Legea da kontuan hartu beharreko legezko beste erreferentzia bat, izan ere 9. artikuluan etxebizitza-eskuratzaileen aldeko eskubideak finkatzen ditu eta, bereziki, eraikuntza-ezaugarrien eta kalitateen alde aurreko ezagutzari buruzkoak.

*Bederatzigarren artikulua.- Erabiltzaile eta kontsumitzaileek eskubidea dute etxebizitzaren ezaugarri higieniko sanitarioak eta eraikuntzakoak ezagutzeko, baita materialen eta instalazioen obrako kalitatea eta sistemak ere, aurrezki energetikokoak barne, eta **bereziki, isolamendu termikokoak.***

Erreklamazio egileak adierazitakoa kontuan hartuta, isolamendu termikoari –edo isolamendu ezari- dagozkion eraikuntza baldintzak ez zirela behar bezala adierazi pentsatu behar dugu, eta erosleak ez zituela etxea erosi aurretik ezagutzen.

3.- Ondorioak

Saneamendu arloko erantzukizun kasu bat dela pentsatzeko nahikoa elementu objektibo daudela uste dugu, bereziki antzeman diren isolamendu termiko eta beroketa arloko akatsak direla eta. Honek guztiak bizigarritasun arazo handia sor dezake Gasteizek duen klimatologia kontuan hartuta, eta beraz, kontratuari amaiera ematen dion ekintzaren bat ere zurituta egon liteke.

Hala ere, adierazitako kexei dagokienez hauxe esan behar dugu. Kontroleko eskumen administratiboak ez dagozkio Gasteizko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailari baizik, honek sailkatu baitzituen etxebizitzak. Gauzatze akatsei dagokienez, LAGUNKETA SA sustatzaile eta eraikuntza enpresa da erantzule zuzen eta bakarra.

Udalaren eskumenei dagokienez, hirigintza-izaerakoak dira, plangintzari buruzkoak eta ez dira barruko arkitekturaren exekuzioaren kontrolari eta ezkutuko akatsen kontrako babesari buruzkoak.

Nolanahi ere, erabiltzaileen eta kontsumitzaileen eskubideekin lotuta, garrantzitsua da Udalari eta 21 Zabalgunea enpresari GOGORARAZTEA bitartekari gisa jarduten duten babes

ofizialeko etxebizitzaren kudeaketa- eta esleipen-prozesuetan, eskuratzailen eskubide hauek ere bermatu behar direla: *“etxebizitzaren ezaugarri higieniko sanitarioak eta eraikuntzakoak ezagutzea, baita materialen eta instalazioen obrako kalitatea eta sistemak ere, aurrezki energetikokoak barne, bereziki, isolamendu termikokoak”*.

Etxebizitzak babes ofizialekoak izateak ez du esan nahi eskuratzailerek erabiltzaile eta kontsumitzaile gisa eskubiderik ez dutenik.

2.2. Jarduerak

2011ko martxoaz geroztik, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak hainbat jarduera burutu ditu erakundea herritarrengana helarazteko, auzokideei arreta egiteko eta argibideak emateko, banaka zein taldeka. Lankidetzan aritu da udal sailletako arduradunekin, herritarrek aurkezten dituzten salaketak direla eta, horiek hobetzeko.

2.2.1 HIZLARI

Jardunaldi, hitzaldi, mintegietan... hurbildu da sindikoa herritarrengana **hizlari** gisa, eta horrelakoetan haren zeregina herritarren eskubideak babestea dela erakutsi nahi izan du.

Ondoren Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak hizlari gisa parte hartu duen ekitaldien zerrenda jasotzen da:

- 2011/06/29: hitzaldia, Toti Mtz. de Lecea (Goiuri jauregia)
- 2011/07/25: Udako ikastaroa, Larrabida(Huelva)
- 2011/ 11/ 16 eta 17: Revista Ayuntamiento XXI , Madrilen
- 2012ko otsailaren 9tik idazketa literarioari buruzko lantegi bat zuzentzen du ostegunetan Zaballako kartzelan.

2.2.2 GONBIDATUTA

Sindikoa edo Herritarren Defendatzailea **gonbidatu** gisa joan da erakunde, elkarte zein instituzioek antolatutako biltzar, hitzaldi, erakusketa, inaugurazioetara..., Gasteizko herritarrengana hurbiltzeko asmoz.

- 2011/03/7.- Kultur aldaketari buruzko hitzaldia. Vitoria-Gasteiz

- 2011/03/16.- Garraio arloko aldaketa. Tomas y Valente eskola: Vitoria-Gasteiz
- 2011/04/01: Hirigintza Iraungarriaren inguruko nazioarteko topaketa
- 2011/04/07: Gizarte lanaren IV. jardunaldia
- 2011/04/08: Harrera Udalean "Julia Chavarri"
- 2011/05/05: Urban Sare biltzarra
- 2011/05/10: Forum Europa. Tribuna Euskadi
- 2011/06/01: Alkalako Unibertsitateko Nazioarteko biltzarra "La protección de los Derechos Humanos"
- 2011/06/03: Sentsibilizazio, elkarbizitzari buruzko jardunaldiak
- 2011/06/08: Giza baliabideen kudeaketari buruzko VII. nazioarteko biltzarra
- 2011/06/11: Alkate berriak agintea hartzea
- 2011/06/29: Txartela jartzea Juduen kalean
- 2011/07/12: Doako justiziaren eguna ospatzea
- 2011/07/14: Frantziako Errepublikoaren jai nazionala, harrera
- 2011/09/09: "La Diada". Kataluniako eguna
- 2011/09/21: Zaballako gartzela inauguratzea
- 2011/09/29: Urban Commerce biltzarra
- 2011/10/26: Green Capital aurkeztea (Goiuri jauregia)
- 2011/10/28: "Prostituzioa eztabaidan" jardunaldia, Artium Museoan.
- 2011/11/18: "Gizarte Politikak" jardunaldia
- 2011/11/23: Euskadiko literatur sariak
- 2011/12/01: HIES-aren aurkako batzordeare, Montehermoso jauregian
- 2011/12/02: Konstituzioaren XXXIII. urteurrena, Gobernuaren delegaritzan

- 2011/12/22: Eusko Legebiltzarra (Arartekoaren mozioa)
- 2012/01/12: Green Capital ekitaldia
- 2012/02/07: Green Capital ekitaldia, Montehermoso jauregian

2.2.4 TALDEEKIN BILTZEA

Herritarren Defendatzailearen Bulegoak elkartze eta bilerak egin ditu gasteiztar gizartearen erakunde eta taldeekin, haien kezak zein horien zein herritarrek aurkeztutako bestelako salaketan gaineko ikuspuntua ezagutzeko.

- **Arabako Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarte**
- **Bizigarri auzo elkarte**
- **2011/04/06: Bilera, <01.1 Gasteiz Txiki plataforma**
- **2011/03/25: Arartekoa**
- **2011/06/06: Andra Maria Zuria: Suminduak**
- **2011/06/07: suminduei hitzaldia, 15M mugimendua**
- **2011/06/10: Lanbide**
- **2011/07/22: Jabetzaren ganbera**
- **2011/09/07: Jabetzaren ganbera**
- **2011/11/07: Hiesaren aurkako batzordea**
- **2011/11/14: Zaramagako auzo elkarte**
- **2011/12/19: ONCE elkarte**

2.2.3 BESTE SINDIKOekin EGINDAKO BILERAK

Jatorrizko hirietan ere udal-zerbitzuetako herritarrei horietako zerbitzuei buruzko kexetan arreta eskaintzen, informatzen eta orientatzen ahalegintzen diren eta kasuan kasu horiek hobetzeko gomendioak planteatzen dituzten herritarren beste ordezkari-tza-defendatzaile batzuekin bilerak izan ditu ordezkari-tzak.

*** 2011ko martxoaren 24tik 26ra: Tokiko Defentsak Prestatzeko Batzordearen bilera, 2011ko Granadako kongresurako. Ordezkaritzen estatu mailako foroa – Paterna.**

*** 2011ko urriaren 5etik 7ra: Estatuko toki defendatzaileen topaketa: Granada.**

2.2.5 UDALAREKIKO HARREMANAK

Sindikoa edo Herritarren Defendatzaileak Gasteizko Udalarekin eta udaleko zerbitzu eta sailekin dituen harremanak hiru atal hauetan gauzatzen dira:

UDALBATZAREN BILKURETARA JOATEA

Sindikoa edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 1. artikuluan jasotzen denaren ildotik, udalbatzaren bilkuretara joan izan da sindikoa, eta bere lantaldeko norbaiten gain utzi izan du zeregin hori, bertatik bertara izateko, hartara, udalbatzak hartzen zituen erabakien berri.

- 2011/04/20: Osoko bilkura
- 2011/07/08: Sindikoaren 2010-2011 oroit-idazkia aurkeztea
- 2011/09/26: Udal politikari buruzko aparteko osoko bilkura

BATZORDEETARA JOATEA

Gasteizko Udaleko zinegotziek osatzen dituzten irizpen batzordeetara joan izan gara, Gasteizko herritarrei zuzenean eragiten dieten gaiak jorratzekotan zirelarik; Gehienetan, gai jakin bat bideratzeko moduaren inguruan zinegotziek ematen zituzten azalpenak eta egiten zituzten gogoetak entzuteko asmo hutsarekin.

2011ko martxotik 2012ko otsailera bitartean, hau da, oroit-idazki hau bukatutzat jo dugun arte, irizpen batzorde hauetara joan izan gara:

- 2011/02/08: Hirigintza Batzordea
- 2011/04/05: Hirigintza Batzordea
- 2011/04/06: Ogasun Batzordea

- 2011/04/12: Funtzio Publikoaren Batzordea
- 2011/04/13: Iradokizun eta Erreklamazio Batzordea.
- 2011/04/18: Ogasun Batzordea
- 2011/09/13: Gizarte Zerbitzuen eta Adinekoen batzordea
- 2011/09/13: Funtzio Publikoaren Batzordea
- 2011/09/15: Herritarrentzako Zerbitzu eta Kirolen batzordea
- 2011/09/15: Herritarrentzako Zerbitzuen Batzordea
- 2011/09/15: Euskara batzordea
- 2011/09/19: Hirigintza Batzordea
- 2011/09/19: Ingurumen eta Espazio Publikoaren batzordea
- 2011/09/20: Ekonomia Sustapenerako batzordea
- 2011/09/20: Ogasun Batzordea
- 2011/10/17: Herritarren Parte-hartze Batzordea
- 2011/10/18: Hirigintza Batzordea
- 2011/10/18: Ingurumen eta Espazio Publikoaren batzordea
- 07/11/07: Iradokizun eta Erreklamazio Batzordea.

PARTE-HARTZE KONTSEILUETARA ETA LURRALDE KONTSEILUETARA JOATEA

Parte-hartze kontseilu hauetan izan gara, Gasteizko Udalak deialdia egin digularik:

- LURRALDE KONTSEILUAK:

2011 /02/ 17: Nekazaritza Eremuko Lurralde Kontseilua.

- **2011/04/04: Judimendiko Lurralde Kontseilua**
- **2011/04/05: : Aldabeko Lurralde Kontseilua**
- **2011/04/06: : Hegoaldeko Lurralde Kontseilua**
- **2011/04/12: : Iparraldeko Lurralde Kontseilua**
- **2011/04/13: Lakuako lurralde kontseilua**

- **SEKTORE KONTSEILUAK:**

- **2011/04/14: Irisgarritasun Kontseilua**
- **2011/11/02: Irisgarritasun Kontseilua**
- **2011/11/30: Irisgarritasun Kontseilua**

- **2011/12/21: Ingurumen Kontseilua**

- **2012/01/12: Irisgarritasun Kontseilua**

BESTELAKO BILKURAK: ZINEGOTZIEKIN, SAILEKIN...

Harremanetan izan gara udal sail eta zerbitzuekin, bertako arduradunen bitartez, sindikoak jasotako kezak zirela eta. Herritarra salaketa aurkeztera bultzatu duen arrazoiaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzea izan da horren helburu.

2.2.6 BISITALDI ETA IKUSKAPEN JARDUERAK

Testuingurua argitu eta erabiltzaileek nahiz administrazioak emandako dokumentazioa osatzeko argibideak eskuratze aldera, hainbat bisitaldi egin dituzte sindikoak eta haren lantaldeko kideek hainbat lekutara, egoera bertatik bertara aztertzeko. Honako hauek izan dira, hain zuzen ere:

- 2011/04/15: Alaba Jeneralaren kaleko kutxetak
- 2011/05/30: Handizkako merkatua.
- 2011/09/16: Uribarri Dibiña, Landatxoko aparkalekua, Arantzabela plaza
- 2011/09/16: 1522/11 dosierra
- 2011/01/13: hainbat dossier
- 2012/02/2012: 1579/11 dosierra
- 2012/02/2012: 1662/12 dosierra

2.3 Sindikoaren - Herritarren Defendatzailearen ebazpenak, sailez sail (gomendioa egitea, ezestea, ez onartzea, bideratzea, orientabidea ematea eta beste).

2.3.1.- Ogasun Saila

2.3.1.1- Zergak

a) Ezestea

- Hiri izaerako lurren gainbalio-zerga eta bahiketa (erreg. zk.: 1488/11)

Erreklamazioa

Udalak hiri izaerako lurren gainbalio-zerga kobratu nahi diola salatu du herritar batek, hain zuzen, bahitu zioten eta enkante judizialean esleitu zuten etxebizitzarena.

Azterketa

Herritarrekin elkarrizketatu ginen, eta haren ondarean eman den aldaketa horrek zerga horren menpe dagoela adierazi diogu, beraz, administrazioak zuzen jokatu duela.

Ebazpena

EZESTEA

2.3.1.2- Diru-bilketa

a) Ezestea

- Zirkulazioaren gaineko zerga zorpidetzea (erreg. zk.: 1490/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du urte osoko zirkulazioaren gaineko zerga kobratu nahi diotela nahiz eta urtarrilaren 12an, aldi baterako baja eman zuen.

Azterketa

Herritarrekin elkarrizketatu ginen, eta zerga zorpidetzeko data indarrean den urteko urtarrilaren 1a dela adierazi genion, ordenantzak jasotakoaren arabera, beraz, zerga ondo kobratu diotela.

Ebazpena

EZESTEIA

- Isuna: forma akatsa (erreg. zk.: 1515/11)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu agertu zaigu “zaintza bereziko kalean zirkulazioa oztopatuz gelditu edo aparkatzeagatik” jarri dioten isuna dela eta, izan ere, isuna jarri zuen agentea erratu egin baitzen kalearen izena jartzean. Beraz, bere ustez forma akatsa izan da salaketan.

Azterketa

Arau-haustea zein kaletan gertatu zen gaizki jartzea forma akats hutsa da. Udaltzainak egindako akatsa izan da, baina konpon daitekeena, izan ere, arau-haustearen unean ateratako argazki bat dela medio, frogatuta gelditzen da arau-haustea gertatu izana.

Administrazio egintzen erresistentzia printzipioak zehazten duenez, Administrazioak edozein unetan zuzen ditzake prozesuan gertatutako akats materialak, eta dossier zigortzaile berria abiarazi (horrela egin du), eta horrek ez dio salatuari babesik eza sortzen.

Sentitzen dugu aldeko ebazpenik ezin ematea. Edonola ere, eskertzen dugu gure erakundean jarritako konfiantza. Gai honi dagokionez, gure lana amaitutzat jotzen dugula jakinarazi diogu herritarrari eta, hala ere, beste gestio batzuk egin ahalko dituela, beharrezkotzat joz gero.

Ebazpena

EZESTEIA

* Isuna: TAO egoiliarrentzat aldatzea (erreg. zk.: 1540/11)

* Higiezinak jaraunspen bidez eskualdatzeari dagokion Zergan hobaria ezezteia (erreg. zk.: 1652/12).

- Gidaria identifikatzeko obligazioa ez betetzeagatik salaketak (erreg.zk. 1607/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gidaririk gabe ibilgailuak alokatzeko enpresa batek kexa aurkeztu du arau-hauste berberetatik hainbat trafiko-salaketa jaso duelako, “gidaria identifikatzeko obligazioa ez betetzeagatik” alegia

Erreklamaziogilearen aburuz, aipatutako salaketak 30/92 legearen 128.2 artikuluan xedatutako printzipio nagusiaren arabera kudeatu beharko lirateke, zeinak hauxe dioen: “Zehatzeko xedapenek atzeraeragina izango dute, ustezko arau-hauslearen mesederako direnean”.

Zehatzeko prozedurak 18/2009 legea baino lehen abiarazi ziren, zein alderdi horretan era honetako arau-hausteei buruzko zigor-irizpidea aldatu egiten duen, beste onuragarriago bat aplikatuz: “gidaria ez identifikatzeagatik isunen kopurua, jatorrian dauden trafikoko arau-hauste arinentzako aurreikusitakoaren bikoitza izango da”; irizpide horren arabera, isunak 180 €koa izan behar luke, eta ez 301 €koa.

2.- Arazoaren azterketa

Lehen begiratuan, erreklamaziogilearen argudioa zuzena da, baina ezin da kasu honetan aplikatu, 18/2009 Legeak atzerako eragin mugatuko erregimen iragankorra aurreikusten duelako; hots:

“LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA: Lege hau indarrean sartzerakoan tramitatzen ari diren dossier zigortzaileetan hura hastean indarrean zegoen arauen arabera tramitatuko dira osoz, zazpigarren azken xedapenean ezarritakoarekin bat etorrituz, gida-baimena eteteari eta puntuak galtzeari buruz ondorio onuragarriagoak lortu litezkeen kasuetan izan ezik”.

Kasu honetan, atzerako eragina diruzkoak ez –baina bai larrienak– diren zigorretara mugatzen da, alegia, gida-baimenaren eteteari eta puntuen galerari.

3.- Ondorioa

Azaldutako guztiagatik, prozedura zigortzailea erreklamaziogilearen aldeko berme osoz, eta –18/2009 ondorengo Legearen atzerako eraginari buruz– gertakari salatuen garaian indarrean zegoen araudiaren arabera bideratu dela ondorioztatzen dugu.

- Babes ofizialeko etxebizitza eta OHZ (erreg. zk.: 1674 / 12)

Erreklamazioa eta azterketa

Babes Ofizialeko Etxebizitza baten erosleak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga sustatzailearen izenean iritsi zela jakinarazi digu.

Ezjakintasuna dela eta, esku dirutan ordaindu zuen. Orain ordainketa hori ez zegokiola berari jakin du. Ordaindutakoa justifikatzeko modurik ez duenez, Udalak ez dio dirua itzultzen eta enpresa sustatzailea desagertu egin bide da.

Ebazpena

Udala zuzen jokatzeko ari da, izan ere ezin du zuritu gabeko dirurik itzuli.

)

b) Idazki lagundua

- Isuna: erabateko baliorik gabe uztea (erreg. zk.: 1518/11)

Erreklamazioa

Herritar batek Udaltzaingoaren salaketan jasotako gertakariak salaketa orrikoekin bat ez datozela salatzen du eta zuribide orria idazteko laguntza eskatzen du.

Azterketa eta Ebazpena

Ekarri dituen agiriekin Ogasun Sailera bidaliko den idazkia egiten lagundu diogu.

- Isuna: telefonoa erabiltzea gidatzerakoan (erreg. zk. 1556/11)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du isuna jarri diotela gidatzen ari zen bitartean telefonoz hitz egiteagatik, berak ez zihoala hizketan egiaztatu zuelako; salaketa baliogabetzeko laguntza eskatu du.

Azterketa eta Ebazpena

Ekarri dituen agiriekin Ogasun Sailera bidaliko den idazkia egiten lagundu diogu.

- Isuna gidaria ez identifikatzeagatik (erreg. zk.: 1621/11)

Erreklamazioa

Herritar batek eskatzen du gidaria identifikatzeko epean bi egun atzeratzeagatik isun batean ezarri dioten gainkargua ken diezaioten.

Azterketa eta Ebazpena

Herritarrak azaldutakoa balioetsi ondoren, sindikoak uste du bai isuna bai gainkargua indarreko araeekin bat datozela; dena dela, herritarrak laguntza eskatu digu alegazioak egiteko, eta dagokion sailari bidali beharreko idazkia prestatzen lagundu diogu.

c) Gogorazpena

- TAO salaketa baliogabetzeko ordaindutako 5,50 euro itzultzea (erreg. zk.: 1302/10; 1343/10 eta 1489/11)
- Herentziaren gainbalioa (erreg. zk.: 1685 / 12)

Erreklamazioa eta azterketa

Herritarrari aita hil zitzaion, eta oinordekoetako bat izanik, Udalak gainbalioa kobratzen die herentzia hartu ondoren.

Ebazpena

Kexa bertan behera geratu da zerga behar bezala kobratu baita.

d) Orientabidea

*Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga: zatikatzeagatiko interesa (erreg. zk.: 1530/11)

*Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga: erabilitako ondasunaren balioa (erreg. zk.: 1533/11)

- Bahiketa eta mugimenduak kontu korranteetan (erreg. zk.: 1636 / 11)

Erreklamazioa eta azterketa

Adineko pertsona bat bere kontu korranteetan mugimenduak daudela konturatu da; horietako batzuk Udalaren bahiketak dira eta berak ez ditu horren arrazoiak ezagutzen.

Ebazpena

Ogasunetik jaso dugun txostena aztertuta, bahiketa horiek jaso duen herentzia bati dagozkion transmisio zergei dagozkiela ikusi ahal izan da.

e) Gomendioa

- Salaketa-orrian eta isunaren jakinarazpenean testuak bat ez etortzea (erreg. zk.: 1469 / 11)

Erreklamazioa

Erreklamaziotegileak Udaltzaingoaren salaketa-orri batekin lotutako kexa adierazi digu: Ogasun Sailak salaketari buruz bidalitako jakinarazpenak eta agenteek sinatutako salaketa-orria ez datozela bat erakusten du, eta gertaerak bat ez etortzeak guztizko babes-gabezia sortzen diola eta erabateko deuseztasun-akatsa dela.

Erreklamaziogilearen arabera, agenteek zirkulatzeko eskatu ziotenean, bera EZ zegoen galtzadan aparkatuta, geldituta baizik, eta hori salaketa-orrian deskribatutako gertaeretatik ere ondoriozta daiteke.

Azterketa

Izatez, salaketa-orriak deskribatzen duenaren arabera, arau-haustea “aparkatzea, interesdunari jakinarazita” izan zen, eta hark hasieran jakinarazteko eragozpenak jarri zituen; zigorraren jakinarazpenean, ordea, salaketa “*gidaririk gabe aparkatzea*” dela dio, agenteek gidaria bertan zegoela berariaz aipatu arren.

Gidaririk gabeko aparkatzea ez dago egiaztatuta eta bai, ordea, salatua ibilgailuaren barruan zegoela, beraz, gure ustez salaketa zein ezarritako zigorra baliogabeak dira.

ARARTEKOak eta Sindikoak gomendio askotan aipatu duten irizpide orokorraren arabera, administrazioaren erregimen zigortzaileak Estatuko eskubide zigortzaileak bete beharreko berme irizpide berak bete bihar ditu, xehetasunak xehetasun, eta horren helburua ezin da inola ere dirua biltzea izan, diziplina hutsezkoa baino; horrenbestez, prozeduraren salaketaren funtsezko elementuei eragiten dioten irregulartasunik, kontraesanik edo inkongruentziarik izanez gero, horrek babes-gabezia sortzen du eta kalte egiten dio haren baliokotasunari.

Agenteek sinatutako salaketa-orrian ageri diren gertaerak eta salaketa-jakinarazpenean jasotakoak bat ez etortzea inkongruentzia larria da. Baliteke kalifikazio juridikoa aldatzea, baina gertaerak ez, inola ere.

Ebazpena

Aztertzen ari garen kasuari dagokion dossier zigortzailean kontraesana dago gidaria bertan zegoen ala ez zehazteko orduan eta, gure ustez, segurtasun juridikoagatik, dossier zigortzailea baliogabetu beharra dago.

- * Bidegabe aparkatzea pasabidea iraungita dagoelako (erreg. zk.: 1586 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar batek maiatzaren 31n 2578849 zenbakiko salaketa-orriarekin zerikusia duen kexua aurkeztu digu. Pasabide hori iraungita zegoela zekien herritarrak, duela zenbait urtetik ez zegoelako bertan (fruta-biltegia, 2001etik itxia) inolako merkataritza jarduerarik.

2.- Arazoaren azterketa

Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuak (Ilehen Bide Publikoen Zerbitzua) kudeatzen ditu pasabideak, **Ibilgailuen Pasabideetarako Baimenak Emateko Ordenantza Arautzailea** bidez. Tasa sei hilean behin kobratzen da. Bost urterako ematen diren ordu jakinetarako pasabideen antzinako plaketan pasabidearen amaiera-data agertzen da trokelatuta (iraungitze data beraz); xafla hori berriztatu egin behar da, pasabidea luzatuz gero. Haurtzaindegietako pasabideen plaketan ez da datarik agertzen. Zerbitzutik jakinarazi digutenez, xafla berrietan ez da data trokelatzen eta pasabidea automatikoki luzatzen da.

Esku artean kasuan, 1985eko abenduaren 6an Udalak ibilgailuen pasabide-baimena eta baimenduta pasabidea eman zion xxxxxxxxxxxri, xxxxxxxxxxx establezimendurako (xxxxxxxxx kalea, 10). Jarduera amaitzean, pertsona horrek Ekonomi Jardueren Gaineko Zerga ordaintzeari utzi zion 2011eko abenduaren 31n; alabaina, pasabideari dagokion zerga ordaintzen jarraitzen du, bai eta, IRREGULARKI, pasabidea erabiltzen.

Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuak pasabide-baimenen datu basea dauka, eta bera arduratzen da hura elikatu eta eguneratzeaz.

Ogasun Saileko Zerga Kudeaketarako Zerbitzua arduratzen da ekonomi jardueren eta pasabide-baimenen gaineko zergak tramitatzeaz.

Sailetik jakinarazi digute industriagunean dagoen ekonomi jardueraren batek amaitzean, Espazio Publikoari jakinarazten diotela, baina hiri-gunean bada ez.

Datu baseak ez “gurutzatzeak” **disfuntzio larria** eragin du administrazioaren baitan; horrek herritar batek hamar urtez BEHAR EZ BEZALA eta irregularki pasabidea erabili ahal izatea ekar dezake ondorio, kasu hauxe horren adibide.

Kronologia:

- **1985/12/06:** 402 zenbakiko ibilgailuen pasabide-baimena eta baimenduta pasabidea ematea.
- **2001/12/31:** baja merkataritza jardueran.
- **Salaketa-data (2011/01/31) baino askoz lehenago:** xxxxxxxxxx kaleko 10. zenbakiari zegokion xxx zenbakiko ordu jakinetarako pasabidea ikuskatu zen, eta 1985ko abenduaren 6an baimendu zen jarduera ez zuela ordurako betetzen jakinarazi zuten; beraz, espaloia beharagunea desagerrarazi behar zuen, bai eta pasabidearen xafla udal biltegietara itzuli ere.
- Beraz, **Udalak bazuen pasabide horren IRREGULARTASUNAREN berri**; izan ere ofizioz iraungi zen.
- **2011/01/24** : Bide Publikoen zinegotzi ordezkariak ebazpena eman zuen auziari buruz, 60 eguneko epea emanaz espaloia eta zintarria lehengo egoerara itzultzeko, beharagunea desagerrarazi, eta espaloia indartu eta sestra normalera igota; halaber, pasabidearen xafla udal biltegietan entregatu behar zuen.
- **2011/07/14** : Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuko ikuskariaren txostena, beharagunea desagerrarazi zenez, eta xafla udal biltegietan entregatu, xxx zenbakiko ordu jakinetarako pasabideari baja emateko eskatzen zuena (artxibo informatikoetan jasotakoaren arabera, Udaleko margolarien brigadak xafla 2011ko ekainaren 6an kendu zuten).
- **2011/08/25** : Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren zinegotzi ordezkariak ebazpena eman zuen, bermea itzul zekion baimentzeko.

Hauxe dio Ibilgailuen Pasabideetarako Baimenak emateko Ordenantza Arautzailearen 22. artikulua bigarren parrafoak: *“Pasabide baimena ez da bukatutzat joko harik eta titularrak pasabidea kentzeko obligazio hori betetzen ez duen arte”*, baina erreferentzia hori soilik zerga ondorioetarako interpretatu behar da, ez beste inolako ondoriotarako.

Gure aburuz, Udalak pasabidearen egoera IRREGULARRAREN berri izan eta interesatuari, baimena iraungita zegoela irizita hura itzultzeko ESKATU zion unetik beretik; bere egintzekin koherente jokatzera, kendu egin behar izan luke baita izun bidezko babesa, ez baitauka zentzurik halako babesa aplikatzea Udalak berak eraginik gabe eta iraungitzat daukan pasabideari.

Zigortzeko arau oro –eta isuna hala da– ikuspegi murriztaile batekin ulertu behar da, “in dubio pro reo” printzipioaren arabera; beraz, esku artean dugun kasuan bezala arau-haustea eragin duen arrazoa IRAUNGITA dagoenean, arau-haustea bere ere iraungitzat eman behar da.

3.- Ondorioak

Jorratzen ari garen kasuak Udalaren baitan disfuntzioak daudela erakutsi digu: ekonomi jardueren gaineko zergaren kudeaketaren eta pasabideen tasarenaren artean.

Erreferentziazko pasabide-baimena aitortutako jarduera jakin bati lotuta dago; beraz, iruzurra da –zuzenbidezko abusua delako– pasabidea HAMAR urtez gordetzea, jatorrian emandako jarduerarekin batere harremanik ez duelarik.

Udalak -ikuskaritza bitarte– pasabide-baimena utzita eta erabilerarik gabe zegoela bazekien aldetik, gure ustean ez da batere koherentea haren gainean zigor bidezko babesa iraunaraztea.

4.- hauxe GOMENDATZEN dugu:

1.- xxxxx zenbakiko salaketa indargabetzea, ez dagoelako Udalaren ikuskaritza zereginaren ondorioz ofiziosz iraungitako pasabide batean zigortzerik.

2.- Pasabideei loturiko jarduera ekonomikoak iraungitzen direnean, Ekonomi Jardueren Zerbitzuak horren berri eman behar dio Espazio Publikokoari; datu baseak ez "gurutzatzeak" **disfuntzio larria** eragiten du administrazioan; gerta daiteke –kasu honetan bezala–, herritar bat BEHAR EZ BEZALA eta irregularki pasabidea hamar urtez erabili ahal izatea, bien bitartean bide publikoko aparkaleku bat erabiltzea galarazten duelarik.

- * Ezinduentzako lekuan aparkatzeagatikoko salaketa (erreg. zk.: 1553 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar bat kexu da Udaltzaingoak ezinduentzako lekuan aparkatzea leporatzen dion salaketa ipini diolako Landatxon. Gaua zelarik, lurreko marrek ez zirela ikusten, eta lekua ezinduentzako gordeta adierazten duen seinale bertikalik ez zegoela argudiatu du.

2.- Arazoaren azterketa

Bertara joan gara, eta, herritarrak adierazi bezala, lurreko marra horizontalak lausoa dela eta ez dagoela lekua ezinduentzako gordeta adierazten duen seinale bertikalik egiaztatu dugu.

Alabaina, inguruan seinaleztapen kontraesankorra dagoela ere ikusi dugu: disko bertikalak GERATZEKO DEBEKUA iragartzen duen bitartean (eskuinetik ezkerreara doan gezi batek lagunduta, baina ezkerretik eskuinekorantz ez dago), lurrean aparkatzeko marra berdeak daude.

3.- Ondorioa

Antzeko beste kasuetan bezala uste dugu honetan ere: debekua adierazi nahi duen eta zigor prozeduraren abiapuntu izan daiteken seinale oro ARGIA eta EZIN NAHASIZKOA izan behar du.

“In dubio pro reo” printzipio nagusiak agintzen du administrazioaren zigortzeko ahalmena; horren arabera, ez da onargarria argi eta garbi zehaztu gabeko arau-hausteagatik zigortzea. Ezin dugu ahaztu zigortzeko ahalmenak men egiten diela legaltasun printzipioari eta ZUZENBIDEZKO ESTATUAK ezarritako berme guztiei.

Ezin da isunik batere ipini presuntzio edo agindu nahasgarrien gainean; horrelaxe eskatzen du baita segurtasun juridikoaren printzipioak.

Horrenbestez, hauxe GOMENDATZEN DUGU:

1.- E 03031851 2011/006094 zenbakiko dossier zigortzaileari dagokionez, hura indargabetzea, salaketa jatorrian dagoen seinaleztapenaren akatsengatik.

2.- Landatxo inguruko seinaleztapenari dagokionez, hura konpontzea, eta zalantza izpirik gabe lekua ezinduentzako gordeta dagoela adieraztea, seinale bertikal baten bidez. Halaber, “aparkatzeko debekuaren” eremua ongi zehaztea.

- * Iraungitako trafiko isunak (erreg. zk.: 1438/10)

1.- Aurkezpena

Bulegoan jaso dugun kexan honakoa adierazi digu herritar batek: trafiko isun baten ondorioz (zk:XXXXXX) bere aurka abiarazitako bahitze zuzemena dela eta errekurtoa aurkeztu du bere ustez isun hori iraungi egin baita. Diru-bilketa sailetik jakinarazi diotenez, premiamenduzko probidentziaren jakinarazpenak eten egin du iraungitzea. Hala ere, herritarrak probidentzia hori epez kanpokotzat jotzen du.

Horretaz gain, aurkeztu duen errekurtoari erantzuteko udalak bi ebazpen desberdin igorri dizkiola jarraian adierazi digu.

Isun hori iraungita dagoenez bertan behera uzteko eta bigarren ebazpena baliogabetzeko eskatzen du, eta, ondorioz, behar ez bezala bahitutako zenbatekoa itzul diezaiotela.

2.- Azterketa

Trafiko isun baten ondorioz bahitze zuzemena egin zen XXXX/XX/XXan (dosier zk.: XXXX/XXXXX). Ebazpen zigortzailearen eta premiamenduzko probidentzien jakinarazpenak ALHAOko argitalpenen bidez egin zitzaizkion (2008ko maiatzaren 30eko eta 2009ko ekainaren 29ko ALHAO bidez, hurrenez hurren).

Auzi hau epaitegietara eraman zuten eta Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1. epaitegiak ebatzi du (169/2011 epaia).

Hauek izan ziren alderdien argudioak:

- xxx jaunaren argudioa: Administrazioak bi ebazpen desberdin eman zituela errekurso bererako. Honek kongruentzia printzipioa hautsi egiten duela eta babesgabezia sortzen diola herritarrari. Halaber, isuna iraungi egin dela.
- Administrazioa: ebazpen zigortzailearen jakinarazpena bidali zenetik premiamenduzko probidentziaren jakinarazpena bidali arte ez zela urtebete pasa, izan ere, isuna bi hilabete beranduago egin zen irmo, hau da 2008ko uztailaren 30ean.

Epaiak jasotzen duenez, administrazioak ez du zuzenbidearekin bat jokatu, eta baliogabetu egiten du, izan ere bi epeen artean urtebete baino gehiago igaro baita, honako zuzenbide oinarriei jarraiki:

- Lehenengoa, Zerga Lege Orokorraren 167. artikulua:

167. artikulua.- Premiamendu-prozeduraren hasiera.

1. Premiamendu-prozedura zergapekoari premiamendu-probidentzia jakinarazten zaionean hasiko da. Jakinarazpenean zorra identifikatuko da, lege honen 28. artikuluan aipatzen diren errekarguak likidatuko dira eta ordainketa egin dezan eskatuko zaio.

2. Premiamendu-probidentzia nahikoa da zordunaren kontrako premiamendu prozedura abiarazteko, eta epai batek adinako indar betearazlea du zergapekoaren ondasun eta eskubideen aurka jotzeko orduan.

3. Premiamendu-probidentziaren aurka egiteko zio hauek soilik onartuko dira:

- a. Zorra guztiz iraungi edo ordainketa eskatzeko eskubideak preskribitu izana.*
- b. Borondatezko aldiaren zorra atzeratzeko, zatikatze edo konpentsatzeko eskatu izana nahiz diru-bilketaren prozedura eteteko bestelako arrazoiak.*
- c. Likidazioaren jakinarazpena ez gauzatu izana.*
- d. Likidazioa baliogabetu izana.*
- e. Zorduna edo premiamendupeko zorra identifikatzea galarazten duen oker edo omisioren bat izatea premiamendu-probidentzian.*

4. Baldin eta zergadunak ez badu ordainketa Lege honen 63. artikulua 5. atalean adierazitako epean egiten, haren ondasunak bahitzeari ekingo zaio, hala jakinarazten zaiolarik premiamendu-probidentziaren bitartez.

° - Bigarrena, 330/90 LEDaren 81. artikulua. Horrek jasotzen duenez, **“trafiko eta bide segurtasunaren arloko isun administratiboak administrazio bidean hilabeteko epean dira irmo aurkezterik dagoen berraztertze errekurtsoa aurkezteko, eta epe horretan isuna ez da betearazlea izango eta ezin izango dira betearazteko tramiteak abiarazi eta isuna iraungitze epeak ez du aurrera egiten.** Hau da, irmotasuna bide administratiboan hartutakoari dagokio.

Aztergai dugun kasuan, ebazpen zigortzailea jakinarazteko azken ahalegina 2008ko maiatzaren 30eko ALHAOn egin zen. Zigorra 2008ko ekainaren 30ean egin zen irmo, ez 2008ko uztailaren 30ean. Beraz, epez kanpo dago.

3.- Ebazpena

Gure ustez, Udalak berak ofizioz ezarri behar du doktrina hau, herritarrek alegazioak egin beharrik ez izateko. Legeak betetzeari dagokionez, kasu honetan epaitegiek agindutakoa, Administrazioaren jokaera ezin da pasiboa izan, proaktiboa izan behar du, aginte publikoak legezotasun printzipioari men egin behar baitiote.

Horixe da gure GOMENDIOA, zure sailak aintzat hartzea espero duguna, herritarren eskubideak eta interesen eta zerbitzu publikoen kalitatearen onerako.

- Zorra zatikatzea (erreg. zk.: 1562/11)

I. ARAZOAREN AURKEZPENA

Isun batzuk direla eta, 1.000 euroko bahiketa egin diotela adierazi digu herritar batek bulegoan.

II. AZTERKETA

Herritarra Sindikoaren bulegora etorri zen eta gai horrekin lotutako agiriak ekarri zituen: “**2011ko irailaren 6an** bahiketa horren kontrako alegazioak aurkeztu zituen errekurtsio bidez isunen atalean (1. zk. dok).

2011ko irailaren 22an oraindik ez du Administrazioaren erantzunik jaso, ez aldeko ez kontrakorik.

Gure ordenamendu juridikoan administrazioaren isiltasunaren figura jasotzen da, herritarrak nahi izanez gero administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko aukera izan dezan. Dena den, laburra bada ere, erantzun *adierazi* eta arrazoitua jasotzeko eskubidea du beti, administrazioak aurkeztutako eskaera onartzen duen edo ez adieraziko diona.

Hauxe dio Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 42.1. artikulua:

1. artikulua.- 42.1. art.- Administrazioak esan-bidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere.

1. artikulua.- 42.3. art.- Prozeduretako arauetan jakinarazpena jasotzeko gehienezko eperik ezartzen ez denean, hiru hilabetekoa izango da.

Herritarrei dagokion jurisdikziora jotzeko aukera ematea du helburu administrazioaren isiltasunaren figurak, baina horrek ez du baztertzeko herritarren eskabide eta idazkiei berariaz erantzun nahiz halakoak ebatzi beharra.

III. ONDORIOA

Horrenbeste denbora pasa denez, herritarraren erreklamazioaren *fumus boni iuris* itxuraz gain, gure ustetan bada arrazoirik ISUNEN ATALARI herritar horrek egindako eskariari ERANTZUN diezaiola **GOMENDATZEKO**.

2.3.1.3- Ondare Erantzukizunaren Atala

a) Idazki lagundua

- Erorketa eta erreklamazioa (erreg. zk.: 1494/11)

Erreklamazioa

Herritar batek kontatu digunez, kalean erori zen eta kalean zegoen zulo batengatik izan zela frogatzekoak aurkeztu zituen Udalean, orain jasandako kalteak balioesteko kopuru ekonomikoa adierazteko eskatu diote.

Azterketa eta Ebazpena

Erabiltzailearekin izandako elkarrizketan haren kalteei dagokien balioa azaldu diogu, trafiko istripuetarako baremoetan ezarrita dauden taulek jasotakoa aintzat harturik. IDAZKI LAGUNDUA

- Ondarearen gaineko erantzukizuna ukatzea, erorketa bat izan ondoren (erreg. zk.: 1654/12)

Erreklamazioa

Emakume bat erori egin da bide publikoan, zuhaitz baten sustraiek izorratutako harlauzen egoera kaskarraren eraginez.

Azterketa eta Ebazpena

Ondare erantzukizunari buruzko dosierra abiarazteko informazio guztia aurkeztu ostean, Udalak ukatu egin dio erreklamazioa, ez duelakokausalitate harremanik antzeman.

Emakumeak doako Justiziaren bidez auzi errekurtoa aurkezteko asmoa dauka, baina Zerbitzutik helegitea ipini aurretiko bide guztiak agortzeko gomendatu diote; hori dela eta, berraztertze errekurtoa aurkezteko laguntza eskatu digute

b) Orientabidea

- Ariznabarreko futbol zelaian erori izana (erreg. zk.: 1528/11)

Erreklamazioa

Ariznabarreko futbol zelaian partida bat ikusten ari zela, egoera txarrean zegoen kutxatila batekin estropezu egin eta bere semea erori egin zela adierazi digu herritar batek. Ondarearen gaineko erreklamazioa egin bazuen ere, ezeztu egin zioten.

Azterketa eta Ebazpena

Herritarrarekin izan dugun bilkuran, kirol taldeak istripu mota hori barne hartzen duen aseguru pribatua izan dezakeela eta kalte ordainak eman ahal dizkiola adierazi diogu. ORIENTABIDEA.

c) Errefusatzea

- Kalean erori izana hesi baten erruz (erreg. zk.: 1620/11)

Erreklamazioa

Herritar batzuek beren senitarteko batek 2010. urtearen hasieran izandako erorikoa azaldu digute.

Azterketa eta Ebazpena

Erabiltzaileek azaldu digutenez, beren senitarteko bat erori egin zen, antza denez lanetan zegoen eremu bat (Udalaren erantzukizuneko) babesteko hesi baten erruz. Hori 2010. urtearen hasieran gertatu zen, beraz, Udalaren ondarearen gaineko erantzukizuna eskatzeko –hori nahi zuten herritarrek– gertaera preskribatuta legoke eta gure araudiaren arabera ezin dugu kexa tramitera onartu, epez kanpo dagoelako.

d) Gomendioa

- Bizikletaren koadroa “txatar bihurtzeagatiko” kalte-ordainketa (erref. zk.: 1598 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

2011ko irailaren 30ean, xxx xxx xxx herritarrak kalte-ordaina eskatu zion Udaltzaingoari zerbitzu horretako Galdutako gauzen unitatean utzitako bizikletaren koadroa txatar bihurtzeagatik.

Aurkikuntza erreklamatu gabe denbora igaro ostean, herritarrari bizikletaren koadroa jasotzera joan zitekeela eta bertan koadroa entregatuko ziotela jakinarazi zitzaizkion dio Udaltzaingoak. Hala eta guztiz ere,

herritarrak adierazitako denboraren ostean koadroa emateko eskatu zuenean, “zoritxarrez” txatar bihurtu zutela jakinarazi zioten.

Bizikleta koadro horren balioa, aurkeztutako aurrekontuaren arabera, 599 eurokoa da.

Udaltzaingoan jasota dago 2009ko maiatzaren xx(e)an sartu zela Udaltzaingoaren Gordailuan, xxxx erregistro-zenbakiarekin eta xxxxx identifikazio-zenbakiarekin, eta 2011ko maiatzaren xx(e)an erreklamatu zela, Udaltzaingoak adierazitako bi urteko epearen barruan.

2.- Arazoaren azterketa

Espainiako Konstituzioak honela dio 106.2. artikuluan: “herritar guztiek dute, legeak xedatutako baldintzetan, beren ondasun eta eskubideetan jasaten dituzten kalteengatik ordaina jasotzeko eskubidea (ezinbesteko kasuetan izan ezik), betiere, kaltea zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioa bada”. Legedi administratiboak ere administrazio publikoei egozten die erabiltzaileek beren ondasun eta eskubideetan jasandako kalteengatiko erantzukizuna (kalte hori zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz eragindakoa denean, betiere, funtzionamendu hori normala nahiz anormala izan) eta kalte-ordaina jasotzeko eskubidea aitortzen du.

Herritarrak planteatutako kasuan ondare-erantzukizunaren elementu guztiak batera gertatzen dira, eta ez objektiboa, erruzkoa baizik, Udaltzaingoak ez baitu zaintza-betebeharra bete, ezta herritarrarekiko hartutako konpromisoa ere; hark, ordea, galdutako objektua entregatzeko betebeharra bete zuen, jabeak erreklamatuko balu ere. Udaltzaingoak ez du bete objektua aurkitutako pertsonari entregatzeko betebeharra.

3. Ebazpena

Azaldutako guztiari jarraiki, kasu honetan Udalarari Galdutako Gauzen Unitateko funtzionamendu anormalagatiko erantzukizuna aitortzea eta xxxxi behar ez bezala txatar bihurtutako bizikletako koadroaren balioaren zenbateko baliokidea den kaltea ordaintzea GOMENDATZEN DIOGU, ondare-erantzukizunaren inguruan HASIERA EMANDAKO espedientea kontuan hartuta 2011ko uztailaren xx(e)an ERREKLAMATZAILEAK Hiritarren Arretarako Bulegoan aurkeztutako idatziaren arabera.

2.3.1.4- Zuzendaritza

a) Gomendioa

- Iritzi artikulua administrazio dossierrean (erreg. zk.: 1499/11)

Erreklamazioa

Harremanetan jarri da gurekin herritar bat eta salatu duenez, hedabideetan agertu eta berak izenpetutako iritzi artikulua xxxxxx administrazio dossierrean –berari jarritako trafiko isunari buruzkoa– sartu dute. Artikulu hori agertzeak, testu azpimarratuarekin, administrazioak zigortzeko ahalmena gauzatzen duenean “herritarraren iritziak –adierazpen askatasunaren baitakoak– kontuan hartzen dituela” erakusten du.

Administrazio dossierrean iritzi artikulua sartzea asmo epaitzat jo daiteke, arrazoiz, eta Udaltzaingoaren jardunean ideologia kontuan hartzen dela ulertu ere.

Azterketa

30/1992 Legeak bere 3.1. artikuluan, Konstituzioaren 103. artikuluekin bat, dioenez “herri-administrazioek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber, eraginkortasunaren, hierarkiaren, deszentralizazioaren, deskontzentrazioaren eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta konstituzioa, legeak eta zuzenbidea”.

Printzipio horien artean objektibotasuna dago:

Interes publikoen aldeko zerbitzua ematen duen heinean administrazioak erabateko objektibotasunez jardun behar du, eta hasteko, horrek harekin dakar aginte exekutiboek zuzentzen dituzten administrazio publikoen horiekiko mendekotasun printzipioa sendotu beharra. Bete behar dituen arau edo aginduekiko **neutraltasun ideologikoa** esan nahi du objektibotasunak. Beste maila batean, objektibotasunak harekin dakar **administrazio egintzaren inpartzialtasunerako beharra**, hain zuzen, legearen aurreko berdintasun printzipioaren ondorio dena prozeduran. Eta bukatzeko, objektibotasunak nahitaez interes publikoak bilatzeko beharra ezartzen du, hain zuzen, burutzen den ahalmenaren helburu direnak; helburua besteren bat izateak agintearen desbideratze akatsa litzateke.

Udalak kudeatutako trafiko dossierrean Udaltzaingoarekin kritikoa den iritzi artikulua egoteak inpartzialtasun zein neutraltasun betekizunaren akats larria da, iritzi egintza hartzen baitu kontuan, prozeduran balioesten diren gertakariaren aurrekariekin zerikusia ez duena, eta horrek zigortzeko egintzaren ahalmenean desbideratze akatsa dakar harekin..

Ebazpena

Hauxe da Sindikoa-Herritarren Defendatzailearen araudian eta bertan jasotako eraginari buruz xedatutakoarekin bat GOMENDATZEN duguna: erreferentziako dossierretik iritzi artikulua hori ateratzea, prozedurarekin zerikusirik ez duelako ez baita bertan jaso behar.

- * Salbatzailearen hilerriko panteoiaren salmenta (erreg. zk.: 1483/11 eta 1486/11)
- * TAO txartelak ematerakoan ordaintzeko dauden moduak (zk.: 1484/11)
- Judimendin aparkalekuak esleitzea zk. (erreg. zk.: 1612/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar batek salatu du Judimendiko parkeko etxebizitza baten titularra dela, aurreko titularrari erosi ostean (lehengo titularrak Udalarebn jabegokoa zen garaje plaza bat erabili zezakeen). Lehengo titularra zen garaje plaza horren erabilera igortzeko saiotan dabil xxxx(e)ko urriaren xxx(a)n ohiko etxebizitza erosi zionetik. Plazen erabileraren titulartasunaren aldaketa baimentzeko eskumena Udalarena da, eta ez du ordutik inongo gestiorik egin, nahiz bi urte hauetan ugari izan diren egin zaizkien eskaerak. Antzeko egoera dute beste interesatu batzuek ere. Herritarrak administrazioak ez duela ezer egin salatzen du; izan ere, plazen titularrei eta lagapen-hartzaile interesatuei ez dagozkien arrazoiengatik, ez Udalak ezta auzia kudeatzeaz arduratutako enpresak ez dute aldean artean titulartasunaren aldaketa baimendu, hartara erabilera-eskubidea besterentzea galaraziz.

2.- Arazoaren azterketa

Hauxe dio Judimendi parkeko egoiliarrentzako aparkalekuko lagapen-hartzaile komunitatearen Estatutuetao 8 f) artikulua, erabiltzaileen betekizunen gainean:

“Erabilera eskubidea besterendu nahi izatera, Udalaren baimena eskatzea, horri buruz Baldintza orriek diotena aintzat hartuta, eta eskabideari ordaindu beharrekoak egunean izatearen enpresa emakidadunaren eta komunitatearen egiaztagiriak erantsita”.

Oro har, kontratu askatasunezko erregimenak eskubideen eskualdatze konbentzionala ahalbidetzen du, betiere aldean xedapen askatasunarekin bat etorriz. Erreferentziazko aparkalekua erabiltzeko eskubidearen kasu zehatzean, lagapen-hartzaile komunitatearen Estatutuek ez diote Udalari nahitaez baimena eskatu beharra beste mugarik ezartzen, eta baimen hori ezin da

arbitrarioki ukatu, non eta Judimendiko parkeko egoiliarrentzako lagapenaren terminoak aldatzen ez diren.

Kasu honetan –baldin eta Estatuetan ezarritako moldeen arabera osatutako eskabidea egin dela egiaztatzerik badago–, administrazioak ezer ez egiteak ez lioke kalterik eragin; horregatik, gure aburuz eskatzaileak bere betekizuna bete du (baimena eskatu baitu); beraz, 30/92 Legearen 43.2 artikuluan jasotakoarekin bat etorritz, isiltasuna ADIERAZI GABEKO BAIMEN gisa ulertu behar da ondorio guztietarako. Transmisioa dokumentatu daitekeelarik, Udala transmisio hori baimentzera behartuta dago.

3.- Ondorioa

Azaldutako guztia aintzat hartuta, gure aburuz Estatuetan ezarritako moldeen arabera Udalari baimena eskatuta, herritarrak bete egin du bere betekizuna; beraz, administrazioaren isiltasuna ADIERAZI GABEKO BAIMEN gisa ulertu behar da ondorio guztietarako, eta Udala isiltasunaren bidez onartutako transmisioaren ondorioetara egon beharko du nahitaez.

Eskatzaileari dagokio transmisioa dokumentatzea eta Udalari haren berri ematea; etaeta lagapen-hartzaileen komunitateari transmisioaren ondorioetara egon beharra.

- Gainbalioarengatiko bahiketa (erreg. zk.: 1656 /12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Bahitutako eta etxebizitzatik kaleratutako Gasteizko bizilagun batek, estualdi tamalgarri hori gaintitu ondoren, eta bere eta familiaren gastuei aurre egiteko kinka larrian egonda, Udalaren gutuna jaso du. Etxebizitza saldu duenez, gainbalio gisa, Udalari 5.913 € zor dizkiola adierazten zitzaion bertan.

Udalak ez du kontuan hartu pertsona horrek etxebizitza galdu duela; izan ere, ondorio fiskaletarako, saldu egin du, besterik gabe.

Aurrez dagoeneko igorri dugu gai berari buruzko gomendioa eta Udalak gaitzetsi egin du, gaiari dagokion arau-eskuduntza Foru Aldundiari dagokiola arrazoituz. Hala eta guztiz ere, gaia ez dagoela konponduta eta argudio berriak bila daitezkeela uste dugu.

2.- Arazoaren azterketa: Zergak eta ahalmen ekonomia

Hipoteka-exekuzioaren ondorioz etxebizitza galdu dutenei (gehienak langabezia-egoeran dauden eta banku-erakundearekin zorpetuta daude), jasan behar duten guztiaz gain, gainbalioaren zerga eskatzen zaie. Nire ustez, administrazioek ez dute aginte moralik (eta esango nuke ezta juridikorik ere) existitzen ez den gainbalioa zergapetzen duen zerga eskatzeko, etxetik bota duten pertsonaren aurka zuzenduta. Zergen Lege Orokorrak gure zerga-sistema guztiaren oinarritzko printzipiotzat finkatzen ditu hauek: *zergak ordaintzera behartutako pertsonen gaitasun ekonomikoaren printzipioa, hurrengoak kontuan hartuta: justizia, orokortasuna, berdintasuna, gehikortasuna, zerga-kargaren bidezko banaketa eta konfiskagarritasun eza*. Gaitasun ekonomiko zergapegarria duten zergapekoak soilik zergapetu daitezke honako hauen inguruan: errenta, irabaziak, luxua, kontsumoa, ondarea, gainbalioa... baina gainbaliorik ez dagoenean, exekutatutako ondasuna Erremate Judizialak (ez zergapekoak) besterendu egiten duenean denean eta gaitasun ekonomikorik ez duen pertsonaren debaluatutako ondasunaren gainean. Non daude zergapetutako gaitasun ekonomikoa, justizia eta gure zerga-sistemaren zuzentasuna?

“Gainbalio” gisa ezagutu ohi den zerga, legez dagokion Foru Arauan gaituta dator, baldintza hauen arabera:

“Zergaren egitate zergapegarria osatzen du zerga-aldian hiri-izaerako lursailek izandako balio-igoerak, horien jabetza titulu bidez transmititzen denean edo horien gainean gozatzeko edozein eskubide erreal osatu edo transmititzen denean, jabetza mugatuz”.

Zerga guztietan bezala, arauaren zioa eta zentzua zerga publikoei kontribuzio-ahalmen jakina finkatzea eta horren gainean bidezko zerga-ordainketa inposatzea da, kasu honetan zerga gisa.

Horrez gain, argi dago hipoteka-exekuzioko nahitaezko besterentze kasuetan, definizioz ordaintzera behartuta dagoena galera ekonomikoaren egoeran dagoela eta, hain zuzen ere, horregatik ezin dio finantza-betebeharren ordainketari aurre egin eta bankuak, beraz, eragindakoa bahitzeari eta etxetik botatzeari ekiten dio. Sarkastikoa da hipotekatutako balioaren azpitik baloratzen dituzten tasazioekin etxebizitzarik gabe geratutakoei gainbalioaren zerga ezartzea. Non dago gainbalioa?

Zerga hori ezin da aplikatu ordaintzera behartutako pertsonaren egoeraren errealitatea kontuan hartu gabe. Ezin mintza daiteke gainbalioaz, halakorik ez dagoenean. Bahitutako etxebizitzak hipotekatutako balioen azpiko prezioetan exekutatzen ari dira. Mekanismo itsu eta automatikoegia da, jendearen benetako egoera aintzat hartzen ez duena; edozein arau sentsiblek pertsonen baldintzak hartu behar lituzke kontuan, zergapekoak izan aurretik herritarrak baitira.

Egia da udal-administrazioa ere zorrarekiko mendekotasuna murriztearekin tematuta dagoela eta, hori dela eta, ez dago behin-behineko diru-sarrerak murriztearen alde, baina familia batentzat etxebizitza galtzeak, bahitura-prozesuak eta etxetik botatzeak sortu ohi duten etsipena ezin da Udalaren egoerarekin alderatu gure ustez.

3.- Ondorioak

Gainbalioaren Zergaren definizioa aldatzeko gaitasuna Foru Aldundiari dagokion arren, ezin ahaztu dezakegu **Udala dela zerga horren onuradun bakarra** eta, beraz, bidezkoa da Udalak horren inguruko irizpidea izatea eta aukeren baitan aplikatzea.

HONAKO HAU GOMENDATZEN DUGU:

1.- Auzia **interpretazio bidez** konpontzea eta Zergen Lege Orokorreko 3. artikulua aplikatuta, ustezko zerga-zorra **sortu gabekotzat** jotzea, higiezinaren transmisioa ohiko etxebizitzaren exekuzio judizialaren emaitza dela eta benetako gainbaliorik ez dagoela ziurtatzen denean, zergapetu daitekeen gaitasun ekonomikorik ez dagoelako.

2.- Edo, bestela, Batzar Nagusiei **arauaren testua aldatzeko** proposatzea eta Hiri-izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zergaren egitate zergapegarriaren definizioan salbuespena jartzea, transmisioa etxebizitza bahitzeko eta bertatik botatzeko prozesuaren emaitza gisa gertatzen denean, hori gainera bahitura jasan duen pertsonaren ohiko etxebizitza denean.

- Etxetik egotzitakoak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergatik salbuestea (erreg.zk: 1618 /12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Krisi egoerak gogor eragiten die hainbat familiari, eta herritar batek adierazten digunez, administrazioek tratamendu berezia egin beharko lukete, bakoitzak bere eskumenen alorrean eta dituen aukeran baitan.

Erabiltzaile eta Kontsumitzaileen elkarteak egindako kalkuluen arabera, 15 egunero, Espainiako **7.500 familiari** etxebizitza bahitu edo horrenbeste familia etxebizitzatik botatzen dituzte hipoteka ez ordaintzeagatik (Adicae- Espainiako banku, kutxa eta aseguruaren erabiltzaileen elkarteak).

Udalak Ordenantza Fiskalei jarraiki egindako jardun bat zuzen daiteke, izan ere gero eta familia gehiagok bizi duten ekonomia egoera eskasa kaltetzen baitu. Herritarrak gai horren arloko kexa aurkeztu du. Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zergaz ari da, gainbalio izenez ere ezaguna dena. Hipoteka-exekuzioaren ondorioz etxebizitza galdu dutenei (gehienak langabezia-egoeran dauden eta banku-erakundearekin eta udalarekin zorpetuta daude) gainbalioaren zerga eskatzen zaie. Herritarrak bera hala dio: Ekintza hau legearekin bat etorriko da, baina administrazioek ez dute hainbat egoera direnean zerga hori eskatzeko aginte moralik, are gutxiago salerosketa edo herentzia kasuak ez badira eta etxetik bota den pertsonak inolako irabazirik lortu ez badu.

Horrenbestez, hauxe eskatu du:

Hipoteka exekuzioaren ondorioz etxebizitza galtzeaz gain egoera ekonomiko larrian dauden pertsonak hiru lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ordaintzetik salbuesteko eskatzea eskumena duen aginteari.

2.- Arazoaren azterketa

“Gainbalio” gisa ezagutu ohi den zerga, legez dagokion Foru Arauan gaituta dator, baldintza hauen arabera:

19. artikulua (uztailaren 19ko 41/89 Foru Araua)

1.- Arabako Lurralde Historikoko Udalerriek honako zergak eskatu behar dituzte, arautzen dituzten arau eta xedapenekin bat:

- a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga
- b) Ekonomi Jardueren gaineko Zerga
- c) Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga

Zerga hauen inguruan foru arauak aitortutako eskumenak baliatzea erabakitzen duten udalerriek horien ekitaldia adostu eta dagokion Ordenantza Fiskala onetsi beharko dute.

2.- Halaber, Lurralde Historiko honetako udalerriek, foru arau honek ezarritakoarekin bat eta dagozkien ordenantzak ezartzeko eta onartzeko erabakia alde aurretik hartuta, honakoak ezarri eta eskatu ahalko dituzte:

- a) Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga
- b) Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga

Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala egin da, eta honela definitzen du egitate zergapegarria 3. artikuluan (2011ko testua):

“Zergaren egitate zergapegarria osatzen du zerga-aldian hiri-izaerako lursailek izandako balio-igoerak, horien jabetza titulu bidez transmititzen denean edo horien gainean gozatzeko edozein eskubide erreal osatu edo transmititzen denean, jabetza mugatuz”.

Zerga guztietan bezala, arauaren zioa eta zentzua zerga publikoei kontribuzio-ahalmen jakina finkatzea eta horren gainean bidezko zerga-ordainketa inposatzea da, kasu honetan zerga gisa.

Horrez gain, argi dago hipoteka-exekuzioko nahitaezko besterentze kasuetan, definizioz ordaintzera behartuta dagoena galera ekonomikoaren egoeran dagoela eta, hain zuzen ere, horregatik ezin dio finantza-betebeharren ordainketari aurre egin eta bankuak, beraz, eragindakoa bahitzeari eta etxetik botatzeari ekiten dio.

Etxetik bota edo etxea bahitu dioten pertsonak bizi duen egoera ekonomiko larria bada ere balio-gehikuntza bat gertatu ahal izan da. Batak ez du bestea kentzea. Hala ere, kasu askotan banketxeak zorretan duen kreditua estali beste interesik ez duenez, baliteke higiezina enkante publikoan saltzean eskatzen den prezioa tasazio-balioa baino askoz baxuagoa izatea. Gehikuntza gertatu den kasuetan ere, gehikuntza hori hipoteka hartzekodunentzat da eta onura bakarra zor kopurua jaistera da.

Edonola ere, sarkastikoa da ondare aberastasun bat zergapetzea eta etxebizitza bahitu eta bertatik bota duten pertsona batek ordaindu ahal izateko ahalmena duela pentsatzea. Mekanismo itsu eta automatikoen da, zergapekoaren benetako egoera aintzat hartzen ez duena; eta bizi dugun egoerarekiko sentsiblea den arau batek kontuan hartu beharko luke.

Egia da udal-administrazioa ere egoera ekonomiko txarrean eta zorrarekiko mendekotasuna murriztearekin tematuta dagoela eta, hori dela eta, ez dago behin-behineko diru-sarrerak murriztearen alde, baina familia batentzat etxebizitza galtzeak, bahitura-prozesuak eta etxetik botatzeak sortu ohi duten etsipena ezin da Udalaren egoerarekin alderatu gure ustez, honek baliabideak eta kredituak baititu eskura. Hori dela eta, herritarrak planteatutako proposamena kontuan hartzeko dela uste dugu.

3.- Gomendioa

Beraz, adierazitakoa eta aurkeztutako arrazoiak kontuan hartuta, bidezkoztat jotzen dugu Udalbatzari iradokizuna ontzat hartzeko gomendioa egitea, hain zuzen ere Hiri Lurren balio-gehikuntzaren gaineko Zergaren egitate zergapegarriaren definizioan salbuespena jartzea (aldi baterako, agian), transmisioa etxebizitza bahitzeko eta bertatik botatzeko prozesuaren emaitza izan denean eta etxebizitza hori bahitura jasan duen pertsonaren ohiko etxebizitza denean.

b) Gogorazpena

- Aparkalekua Juan Aiala parkinean (zk.: 1511/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Juan Aiala parkinetik hurbil bizi den herritar batek aparkaleku bat erosi nahi izan du bertan eta saltzailearekin adostasuna lortu du. Hala ere, enpresa emakidadunera jo duenean esku aldatzeak ezin direla modu librean egin eta eskaintza eta eskarien araberako zerrenda bati jarraitu behar zaiola jakinarazi diote (ez zioten zerrenda hori erakutsi).

Herritarrak dioenez, udalak ezarritako prezioa baino garestiago saltzen ari dira leku horiek.

2.- Arazoaren azterketa

Kaleko hizkuntzan aparkalekuen salerosketak direla esaten bada ere, errealitatean izaera administratiboa duten etengabeko erabilerarako emakida eskubidea salerosten da.

Lurpeko aparkaleku horren administrazio emakida arautzen zuen baldintza orriak horrela dio 28.2 artikuluan:

“Inguruko etxebizitzaren jabeek eta maiizterrek plaza horiek etengabe erabili ahal izateko eskubidea izango dute, eta horretarako lehentasuna izango dute aparkalekutik etxebizitzaren atarira tarterik txikiena dutenek.

Enpresa esleipendunak lehentasun hau kontutan hartuta izapidetu eta proposatuko du leku hauen esleipena. Ondoren Udalak onetsi egin behar du eta azkenik enpresak eskritura publikoan formalizatuko.

Etxebizitzaren hurbiltasunagatik aparkaleku plaza etengabe erabiltzeko eskubidea etxebizitzari lotuta dago, ez dago bereizterik. Hori dela eta, etxebizitzaren erabiltzailea aldatzen bada (etxea saldu delako eta alokairu kontratua amaitu delako), etxebizitzaren erabiltzaile berriari egokituko zaio plaza edo, bestela, enpresa esleitzzailearen esku geratuko da berriz esleitu

dezan. Edonola ere, plaza uzten duen erabiltzaileak jaso egingo du emakida amaitu arte geratzen zaion denborari dagokion zenbatekoa.”

Beraz, esku-aldatze mugaturako eskubidea da, ez librea.

Enpresa kontratugileari dagokio lekuak esleitu eta horien tramitazioa egitea, baina udalak ONARTU egin behar du.

3.- Ondorioak

Kasu honetan, beraz, administrazio emakidako plazaren erabilera eskubidea ezin da eskualdatu modu librean, baizik eta enpresa esleipendunaren esku jarri behar dira, honek baldintza orrietan inguruko bizilagunentzako plazak gordetzeko ezarritako irizpideak bermatzen direla ziurta dezan.

Edonola ere, iruzur eta mesede egoerak saiheste aldera, GOGORATU egin behar zaio udalari berak onetsi egin behar dituela esleipen horiek.

c) Ezestea

- Isuna: pasabide lizentzia iraugita (erreg. zk.: 1559/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Industrialdeko xxx kalean enpresa txiki bat duen bizilagunak hainbat zalantza ditu Udalak zorra ordaintzeko epea amaitu izanaren berri emateko bidali dion jakinarazpenaz. 374,60 euroko kopurua eskatu diote, 7.4 (ibilgailuak eraikin partikularretan sartzea) ordenantza fiskalari dagokiona, baina berak ez du inoiz tasa hori zenik ere jakin.

Erabat bidegabea iruditzen zaio tasa horrek atzeraeraginezko ondorioak izatea (5 urte) eta interesak ere eskatzea, izan ere ordura arte inoiz ez baitzaio tasa horren berri eman, ezta ordaintzeko eskatu ere.

2.- Azterketa

Udal zergei buruzko ordenantza (7.4, 12. epigrafea) aztertu dugu eta bertan jasota dago aipatutako tasa hori eta, norberak aitortu beharrekoa delarik, zergapekoari dagokio likidatu eta borondatez ordaintzea.

Kasu honetan, Udalak egindako ikuskatze lanak direla eta sortzapen horren berri izan du eta ibilgailuak eraikin partikularretara sartzegatik tasaren behin betiko likidazioa egin du, Xxx kaleko lursailera sartzegatik sortzapetua. Hona hemen datuak:

Kokapena: xxxxxxxx Kale-kategoria: 4. a

Zergaldia: 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra.

12. epigrafea “ Kamioiak sartu eta irtetea; pisua guztira, karga barne, 3.000 kg baino gutxiago

Igarotze-leku fiskalak: 2 (bata, 9,00 metrokoa)

Zergaldiko zerga-kuota:

Igarotze-leku kopurua:

| | | | | | |
|------------------|-------|---|---|---|-------|
| 2007 ekitaldia | 36,31 | x | 2 | = | 72,62 |
| 2008 ekitaldia | 38,38 | x | 2 | = | 76,76 |
| 2009ko ekitaldia | 40,11 | x | 2 | = | 80,22 |
| 2010 ekitaldia | 46,10 | x | 2 | = | 92,26 |

| ERREGULARIZATU | DEN | ZERGALDIKO | SORTZAPENA |
|----------------|-----|------------|-------------|
| | | | 321,26 euro |

ALDI HORRETAN OHIKO KUDEAKETAREN BIDEZ LIKIDATUA, GUZTIRA 0,00 euro

DIFERENTZIA, UDALAREN ALDE321,86 euro

Atzerapen interesa34,90 euro

ZERGA ZORRA, GUZTIRA 356,76 euro.

Likidazioa zuzena da eta ez dakar isunik ez gainordainik. Interesa ordaindu beharra dago, atzerapenaren ondorioa baita.

Argi dago zergapekoa ez zela zegokion ordainketa horren jakitun eta duela ordaindu ez izanaren errua. Baina, hala ere, horrek ez du ordaintzeko beharretik salbuesten. Dena dela, ordainketa horiek ez direla zigortzaileak adierazi nahi dugu. Zergaren likidazioa ez da erru-jokaera baten ondorioa, baizik eta jabetza publikoko ondasun baten erabilera pribatiboa egiteagatik, hau da, zama zehatz bateko ibilgailu motordunak bide publikotik pasatzeagatik.

Udalak ezin ditu legez ezarritako zerga betebeharrak nolana baliatu eta horien ordainketa eskatu behar du.

3.- Ondorioak

Ulertzen dugu herritarrak izandako ustekabea, ezagutzen ez zuen ordainketa bat eskatu baitiote. Baina, aipatutako arauak aztertuta, udalak zuzen jokatu duela adierazi behar da; Udalak herritarrari ez dio isunik ezarri ez arau-hausterik egotzi, sortutako ordainketa bakarrik eskatzen diote.

2.3.2.- Herritarren Segurtasunaren Saila

2.3.2.1- Udaltzaingoa

a) Ezestea

- Isuna: kontrako norabidea (erreg. zk.: 1480/11)

Erreklamazioa

Herritar batek zirkulazioaren kontrako norabidean zirkulatzeagatik bere senarrari jarri dioten isunarekiko ezadostasuna adierazi digu.

Azterketa

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartu zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak arautzen du bere senarrak egindako arau-haustea. Hain zuzen, 65.5. F artikulua **OSO LARRITZAT jotzen du arau-hauste hori, hitzez hitz honela dio:**

65. artikulua. Arau-hausteen koadroa. .../...

5. Arau-hauste hauek joko dira oso larrizat, delitu izatera heltzen ez badira:

f. Agindutakoaren kontrako noranzkoan zirkulatzea.

Zoritxarrez, ez dago mota horretako isunetarako graduaziorik larritasuna adierazi ahal izateko, isun zehatz eta bakarra ezartzen da, 500 euro, hain zuzen:

67. artikulua. Zigorrak.

1. Arau-hauste arinak 100 euro arteko isunez zigortuko dira, larriak, berriz, 200 euroko isunez, **eta oso larriak 500 euroko isunez.** Dena den, abiadura mugak ez errespetatzearekin loturiko arau-hausteak Lege honen IV. eranskinean aurreikusitako zenbatekoen zigortuko dira.

Gainera, herritarrarekin izandako elkarrizketan ezin izan ditugu agenteen eta haien lekukotasuna –haien zereginetan ari direnean horrek proba balioa du– indargabetzen duen datu berririk aurkitu, beraz, kasu honetan, LEGEAREN IKUSPUNTUTIK administrazioaren jarduna zuzena izan dela baino ezin dugu esan;

Ebazpena

EZESTE

- Prostituzio etxea Paraguai kalean (erreg. zk.: 1452/11)

Erreklamazioa

Paraguai kalean prostituzio etxea dagoela salatu du herritar batek. Guk aurreko oroit-idazkian horren inguruko ikerketa egin zezala eskatu genion poliziari, eta salaketa ezetsi egin zen. Berriz ere jo dute guregana, izan ere enbarazuak bere horretan jarraitzen baitu.

Azterketa eta ebazpena

Herritarrarekin izandako bilkuran jakinarazi diogunez, beste ikerketa bat eskatu dugu, eta honen emaitza hauxe izan da: bertan ez dela prostituzio etxerik, bere horretan. EZESTEIA

- Multacar: isuna zirkulazioa oztopatzeagatik (erreg. zk.: 1538/11)

Erreklamazioa

Herritar batek *bigarren ilaran zirkulazioa oztopatzen gelditzeagatik ezarri dioten isunarekin ados ez dagoela adierazi digu, bere ustez, multacarrekin isuna jartzeko baliatzen diren irizpideak ez dira zuzenak. Era berean, Udaltzaingoak multacar nondik ibiliko den zehazteko baliatzen dituen irizpideei buruzko orientazioa eskatu zigun.*

Azterketa

Lehenengo eta behin bere ibilgailuak ez zuela zirkulazioa oztopatzen esaten du. Bigarren ilaran dauden kotxeak, egote hutsagatik zirkulazioa oztopatzen dutela ulertzen da eta arau-hauste hori larritzat jotzen da hiriko bideen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen udal ordenantzaz.

Gero, Udaltzaingoak multacar nondik ibiliko den zehazteko baliatzen dituen irizpideei buruzko orientazioa eskatu zigun. Lehenago ere Udaltzaingotik adierazi digutenez, ibilgailu hori nondik ibiliko den zehazteko era ausazkoa da, hiriko kale guztietatik ibil dadin. Salatutakoari salaketaren berri eman behar zaie, hura egiten den momentuan, salbu eta bertan ez badago.

Kasu honetan, aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, salaketa zuzena dela esan behar dugu, beraz, administrazioaren jardunbidea indarrean dagoen legediaren arabera izan dela esan behar dugu, eta herritarrari jakinarazi genion Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 29. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ezin genuela haren aldeko ebazpenik eman. .

Erreklamazioa

EZESPENA

- Isuna: zamalanetarako lekuan aparkatzea (erreg. zk.: 1567/11)

Erreklamazioa

Herritar batek kontatu digunez, Florida kalean egiten diren lanak bukatu ondoren, egun zehatz batzuetan ezin dutela beren jabetzako garajea erabili ohartarazi diete. Osasun premia bat zela eta autoa garajetik atera eta zamalanetarako lekuan aparkatu zutelarik, isuna jarri diete.

Azterketa

Herritarrarekin elkarrizketatu ginen, eta Administrazioaren jokabidea bidezkoa izan dela jakinarazi diogu, ez baitzuen leku hartan aparkatzeko baimenik.

Ebazpena

EZESTEIA.

- Isuna bidegabe aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1560/11)

Erreklamazioa

Herritar batek guregana jo du ikastetxe baten irteeran bidegabe aparkatzeagatik.

Azterketa

Herritarrarekin elkarrizketatu gara, eta Administrazioaren jokabidea bidezkoa izan dela jakinarazi diogu, bigarren lerroan aparkatuta zegoelarik isuna ongi jarrita baitago.

Ebazpena

EZESTEIA.

- Isuna zebrabidean aparkatzeagatik (erref. zk.: 1551/11)

Erreklamazioa

Auzoko batek salatu du isuna jarri diotela salbuetsitako leku batean –lerro etengabeaz markatua– aparkatzeagatik, eta han ohikoa dela aparkatzea dio.

Azterketa

Herritarrarekin elkarrizketatu gara, eta Administrazioaren jokabidea bidezkoa izan dela eta zuzen jarritako isuna dela adierazi diogu.

Ebazpena

EZESTEIA.

- Isuna ezinduentzako lekuan aparkatzeagatik (erref. zk.: 1574/11)

Erreklamazioa eta azterketa

Auzoko batek salatu du isuna jarri diotela ezinduentzako lekuan aparkatzeagatik, hiriko auzo berrietako batean; obretarako hesi batzuk zeuden eta aparkatzea debekatzeko seinalea egun batetik bestera agertu zela azaldu du.

Ebazpena

EZESTEIA.

- Alkoholemia kontrola (erreg. zk.: 1554 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar batek kexa aurkeztu du, bere ustez Udaltzaingoak gaizki tratatu zuelako alkoholemia froga egitean:

.”. larunbat batean, 8:35ean, sinatzen duena alkoholemia kontrol batean geldiarazi zuten, xxxx kalean, xxxx kalearekiko bidegurutzearen aurre-aurrean. Presaka nenbilen eta urduri nengoen, beraz, kontrolaren berri eman zidan udaltzainari putz egiteko ahokoa lehenbailehen emateko eskatu nion, eta presa neukala esan. Berak erantzun zidan lanean ari zirela eta pazientzia izateko eta neuk berriro esan nion presaka nenbilela eta mesedez lehenbailehen bukatzeko. Une hartan, xxxx udaltzainak, lehiatilaren ondoko bi agenteen atzean bigarren lerroan zegoenak, hau esan zidan: “Jauna, alda ezazu jokamoldea, guk nahi izatera ordubete emango baituzu hemen.”

.../...

Bukatu ondoren, alde egin nezakeela esan zidaten, eta behin erabiltzeko ahokoa botatzeko paperontzirik zuten galdetu nien. Ezetz esan zidaten, kotxean eraman nezala. Neuk erantzun nien behin bakarrik erabiltzeko ahokoa zaborra zela, eta ez Udaltzaingoak ez beste inork ez dutela eskubiderik autoan zaborra eramateko agintzeko. Zabor hori ez zen neuk borondatez sortutakoa, haiek nahita baizik, eta beraz, ez zen nire ardura deuseztatzea. Erabili gabeko ahokoak poltsa batean zeramatzen bezala, kontrolean nahitaez erabili behar zituztenak botatzeko beste bat, edo edukiontzi sanitario bat, eraman zezaketela erantsi nuen. Nire jokaera berriro gaitzetsi zuten eta neuk nire autoan ez dudala zaborrik eramaten errepikatu nien. Paperontzi bat non zegoen esaten bazidaten hara botako nuela, baina ez nuela haien aurreikuspen falta konponduko, eta uko egin zioten. Hautsontzira bota eta alde egiteko esan zidaten. Autoa abiarazi eta ahokoa lurrera bota nuen, leihatilatik.

Horren guztiaren ondorioz, erreklamaziogileari salaketa jarri zioten, “objektuak bide publikora botatzeagatik.”

Erreklamaziogileak udaltzainak salatu ditu, agintekeria dela eta.

2.- Arazoaren azterketa

Agintekeria Zigor Kodean dago jasota, honela:

103. artikulua

Agintari batek, aginteaz edo zerbitzuan duen mailaz abusatuz haren menekoari kalte larria eragingo balio, zerbitzuaren interesarekin zerikusirik ez duten zereginak egitera behartuko balu edo arbitrarioki eskubide batez baliatzea eragotziko balio, hiru hilabete eta egun batetik lau urtera bitarteko kartzela zigorra ezar lekioke.

104. artikulua

Agintari batek mendekoari egitez tratu txarra emango balio, hiru hilabete eta egun batetik bost urtera bitarteko zigorrak ezar lekioke. Tratu txarra dela eta lesio larriak eragingo balizkio, bost

eta hamabost urte bitarteko kartzela zigorra ezar lekioko. Hilko balu, hamabost eta hogeita bost urte bitarteko zigorra ezar lekioko.

Azaldutako gertaerak ezin dira agintekeriaren zigor tipoan sartu, ez dagoelako hierarkia harremanik.

Erreklamaziogilearen hitzetan, haren jarrera urduria eta presatia zen, agenteei alkoholemia froga azkar egin ziezaioten presa sartu baitzien, eta jarrera horrek ez dirudi ez zuhurra ez justifikagarria. Esku hartu zuten udaltzainetako batek ustez esandakoak ere –egia izatera–, hots, nahi izanez gero bertan ordubete eduki zezaketelakoa, ez dira onargarriak, agintearen agente baten aldetik begirunerik gabeko erreakzioa baita.

Aipamen eta usteen arloan ari gara, eta agerian uzten dute erreklamaziogilearen eta agenteen artean harreman gorabeheratsua izan zela; bistakoa dirudi egoera guztientzat izan zela estresagarria, baina ez dugu frogabiderik ezer leporatzeko, elkarrekiko adeitasun faltaz haratago.

Garrantzitsuagoa da, eta objektiboagoa, alkoholometroko ahoko erabiliarekin lotutako kexa, alegia, udaltzainek hura bota behar duten ala ez.

Proba egin ondoren udaltzainek arduratu beharra dute erabilitako ahokoaz? Azter dezagun.

Hau da alkoholometroaren definizioa:

Aerometroa, likido batean dagoen alkohol kopurua neurtzeko balio duena.

Pertsona batek duen alkoholizazio maila antzemateko balio duen gailua.

Honela dio Errege Akademiaren Hiztegiak:

alcoholómetro.

(De alcohol y ¿metro).

1. m. Aparato que sirve para apreciar la graduación alcohólica de un líquido o de un gas.

2. m. Dispositivo para medir la cantidad de alcohol presente en el aire espirado por una persona.

Ahokoak alkoholometroaren zati funtzionala dira, dentsitate handiko polietilenoaz eginak daude eta itzulera eragozteko sistema bat dute, hau da, froga egiten duen erabiltzaileak ekipoa dagoena arnastea eragozten du, gaitzak, infekzioak eta abar kutsa ez dakizkion. Hori erabiltzea ezinbestekoa da, horrelakorik ez bada gidaria ez bailegoke alkoholometroa erabiltzera behartuta, haren osasunarentzat arriskutsua izan litekeelako.

Esandakoagatik, ondorioztatu behar dugu ahokoak agenteek erabilitako alkoholometroaren ZATI direla, eta beraz, botatzekoa izan arren, agenteen erantzukizuna erabili ondoren botatzea. Hortaz, erreklamaziogileak adierazitakoa zuzena da, hau da, alkoholemia kontrolaren ardura duten agenteei dagokie erabilitako ahokoak botatzeko ontzi batez hornitzea.

Udaltzainen alkoholemia kontroletarako jarduerak **PROTOKOLOAN** sartu behar da horri buruzko agindua, alegia, haiek arduratu behar dutela ahoko erabiliez, gidariak horretaz arduratzeko eragozpenik ez izan arren.

3.- Ondorioak

Aurkeztutako kexak hainbat alderdi ditu, banan-banan aztertu beharrekoak:

1.- Gertaeren kontaktan dauden kontraesanez ez digute ahalbidetzen ondorioz ateratzea, ez eta gomendio bereziak egitea gidariaren eta agenteen ustezko jokabideaz.

2.- Hala ere, **IRADOKIZUN** orokorra egin dezakegu agenteek ahoko erabilia jasotzeko izan dezaketen betebeharra dela eta, gidariak horretaz arduratzeko eragozpenik ez izan arren.

3.-Iritzi juridiko horrek ezin du justifikatu erreklamaziogilearen jokabidea, ahokoa galtzadara bota baitzuen.

- Isuna semaforoa gorri igarotzeagatik (erref. zk.: 1589/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du isuna jarri diotela semaforoa gorri igarotzeagatik, eta bera anbar zegoela igaro zen.

Erreklamazioa eta azterketa

Isuna eragin duten gertaerekin lotuta Udaltzaingoak esandakoa egia dela jo behar dugu, beraz, bestelako frogarik ez dugunez, Udalaren jokabidea zuzena izan dela ondorioztatu behar dugu.

- Isuna telefonoz hitz egiten ari dela gidatzeagatik (erref. zk.: 1610 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gidatzen ari zela telefonoz hitz egiteagatik udaltzain batek salaketa jarri izanaz kexu agertu zaigu herritar bat.

Herritarrak adierazi digunez, udaltzainak jarritako salaketa dela eta, babesgabezia sortu zaio, ez baitago inola egiaztatzerik berak ez dituela trafiko arauak bete, izan ere berak ez baitu inoiz telefonoz hitz egiten kotxea gidatzen ari dela.

2.- Arazoaren azterketa

Kasu honetan agintaritzaren agenteen aitortzearen egiazkotasun ustekizuna aztertu behar dugu.

Hala aitortutako lurralde demokratikoetan, aginte publikoa duten pertsonen bere jardunean duten eskubide edo printzipio legezkoa eta juridikoa da ***egiazkotasun ustekizuna***. Eskubide honek ematen duen balioa hau da: eskubide hori duenak esandakoa egiazkotzat jotzen dela, beraz, salatuak adierazitakoaren gainetik dago, salbu eta honek agintaritzak aitortutako ekintzak bestelakoak direla erakusteko probak erakusten baditu.

Egiazkotasun ustekizunaren figura juridikoa Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137.3 artikuluan

jasotzen da: Agintaritza aitortzen zaien funtzionarioek egitatei emandako sinestamenduek, legez behar diren betekizunak dituen agiri publikoan jasotzen badira, froga-balioa izango dute; baina herritarrek ere beti adierazi edo aurkez ditzakete frogak, beren eskubideak edo interesak aldezteko.

Agintaritza agenteek bere jardunean egiten dituzten salaketak nahikoa froga-balioa dira errugabetasun ustekizuna hausteko, bereziki Administrazioak duen ahalmen zigortzailearen esparruan.

3.- Ondorioa

Aztergai dugun kasuan, erreklamazio egileak gauza bakarra du kontra egiteko: gidatzen ari dela telefonoz hitz egiteko ohiturarik ez duela esatea.

Kexa ulertzen dugu, baina aipatutako erreferentziei eta egoerei kasu eginez, ez dugu onartzerik.

- Zigorra aseguratik ez duen ibilgailuan bide publikotik joateagatik (erreg. zk.: 1534 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar batek kexa hau aurkeztu digu:

“BU-xxxx-M matrikuladun ibilgailuaren jabea naiz, eta udaltzainek salaketa jarri zidaten 2011ko otsailaren 8an, Zirkulaziorako Nahitaezko Aseguratik ez izateagatik.

Motorra piztea eragozten zidan matxura bat izan nuenean, alokatuta neukan pabilioi baten ondoan utzi nuen ibilgailua (alokairuko ordainagiriak eransten ditut). Bertan utzi nuen bide publiko horren ezaugarriak kontuan hartuta kalterik ez zuela egingo pentsatuta, izan ere industrialde batean dagoen irteerarik gabeko kale bat da eta pabilioietan sartu-irtenak egiteko bakarrik erabiltzen da.

Zirkulazio aseguruaren indarraldia bete zenean, ez nuen berritu, atzeratu egin nuen izapidetze hori, kontuan hartuta urte asko zituen ibilgailua ezin nuela mugitu eta ez nekiela behar nituen ordezeko piezak aurkitzerik izango ote nuen. Otsailean Gasteiztik kanpo joan nintzenez, egoera hau luzatu egin zen. Martxoan egin nuen ibilgailuaren zirkulazio aseguru.

Eusko Jaurlaritzak arduratzen da salaketa hauetaz, eta 1.500 euroko isuna jarri dit Zirkulaziorako Nahitaezko Aseguru ez izateagatik, izan ere Udaltzainen jarritako salaketan arau-hauste "oso larritzat" jo baitu".

2.- Arazoaren azterketa

Salaketa Udaltzaingoak egin badu ere, kasu honetan Eusko Jaurlaritzak du isuna jartzeko eskumena.

Ohiko estazionamendua Espainian duten motordun ibilgailuen jabe guztiek nahitaez izenpetu eta indarrean eduki behar dute titular direneko ibilgailu bakoitzarentzako aseguru kontratua.

Hauexek dira udaltzainen jardura protokoloak:

Asegururik gabeko ibilgailua bide publikoan izateagatiko isunak:

- **B motako gida-baimena** eskatzen duten ibilgailuak nahitaezko asegururik gabe edukitzea:
800 euro

Asegururik gabe bide publikoan dauden beste ibilgailu motentzako isunak:

- **Gidatze lizentzia** izatea eskatzen duten ibilgailuak nahitaezko asegururik gabe edukitzea:
800 euro

- A1 edo A motako gida-baimena eskatzen duten ibilgailuak nahitaezko asegururik gabe edukitzea: **700 euro**.
- C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D ó D+E motetako gida-baimena eskatzen duten ibilgailuak nahitaezko asegururik gabe edukitzea: 1.500 euro.
- Gidarien araudi orokorrak 7.3 artikuluan jasotzen duen baimena eskatzen duten ibilgailuak nahitaezko asegururik gabe edukitzea: 1.500 euro

3.- Ebazpena

Ulertzen dugu erreklamazio egileak duen nahigabea, baina, kasu honetan, Udaltzainak zuzen jokatu du legeari dagokionez. Udaltzainek ezin dituzte ibilgailua bide publikoan asegururik gabe egotea zuritu zezaketen arrazoi subjektiboak ezagutu eta balioztatu, eta ez dute bidegabeki jokatu. Dena dela, ez dakigu zergatik aztertu zuten udaltzainek bide publikoan aparkatuta zegoen ibilgailu baten asegurua indarrean ote zegoen.

Horrenbestez, ezin dugu gure iritzia eman.

- Multacar: isuna zirkulazioa oztopatzeagatik (erreg. zk.: 1538/11)

Erreklamazioa

Herritar batek *bigarren ilaran zirkulazioa oztopatzen gelditzeagatik ezarri dioten isunarekin ados ez dagoela adierazi digu, bere ustez, multacarrekin isuna jartzeko baliatzen diren irizpideak ez dira zuzenak. Era berean, Udaltzaingoak multacar nondik ibiliko den zehazteko baliatzen dituen irizpideei buruzko orientazioa eskatu zigun.*

Azterketa

Lehenengo eta behin bere ibilgailuak ez zuela zirkulazioa oztopatzen esaten du. Bigarren ilaran dauden kotxeak, egote hutsagatik zirkulazioa oztopatzen dutela ulertzen da eta arau-hauste hori larritzat jotzen da hiriko bideen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen udal ordenantzaz.

Gero, Udaltzaingoak multacar nondik ibiliko den zehazteko baliatzen dituen irizpideei buruzko orientazioa eskatu zigun. Lehenago ere Udaltzaingotik adierazi digutenez, ibilgailu hori nondik ibiliko den zehazteko era ausazkoa da, hiriko kale guztietatik ibil dadin. Salatutakoari salaketaren berri eman behar zaie, hura egiten den momentuan, salbu eta bertan ez badago.

Kasu honetan, aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, salaketa zuzena dela esan behar dugu, beraz, administrazioaren jardunbidea indarrean dagoen legediaren arabera izan dela esan behar dugu, eta herritarrari jakinarazi genion Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 29. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ezin genuela haren aldeko ebazpenik eman. .

Erreklamazioa

EZESPENA

- Udaltzaingoaren esku hartzea bizileku partikularrean (erreg. zk.: 1671 / 12)

Erreklamazioa eta azterketa

Herritarrak bizilagunekin hainbat arazo omen dituenaz, Udaltzaingoa hainbat aldiz joan da herritarraren etxebizitzara.

Udaltzainek esku-hartze horien atestatuak egin dituzte eta herritarrak dioenez, bertan jasotako informazioa faltsua da.

Ebazpena

Informazioa aztertu dugularik, agenteak atestatuetan dagokien esku-hartzea eta bizilagunek esandakoa jasotzera mugatzen direla jakinarazi diogu.

b) Orientabidea

- Prostituzio etxea Antso Jakitunaren kalean (erreg. zk.: 1485/11)

Erreklamazioa

Herritar batek gugana jo du Antso Jakitunaren kaleko higiezin batean, non bera bizi baita, prostituzio etxea dagoela uste duela adierazi digu, eta horrek enbarazua eragiten diola.

Azterketa

Erabiltzailearekin izandako elkarrizketan bere etxejabeen elkarteko ordezkariak gurekin izan direla esan diogu, eta haiei eskatu ahal diela poliziaren txostena.

Ebazpena

ORIENTAZIOA

- Legez kanpoko erroldaren salaketa, horren truke diru zenbatekoa kobratu baitiote (erref. zk. 1498/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du diru-kopuru bat kobratu diotela bizi den etxebizitzan erroldatzeatik.

Azterketa

Udaltzaingoari alderdi hori ikertzeko eskatu diogu eta haiek erantzun digute ezin izan dutela frogatu. Informazio horren berri eman eta egoera salatzerara epaitegira jo dezakeela aipatzen diogu.

Ebazpena

ORIENTAZIOA

- Kezka Udaltzaingoa beren bizilekuak ikuskatzera joan direlako erroldak ikertzera (erreg. zk.: 1552/11)

Erreklamazioa

Herritar bat guregana etorri da, Udaltzaingoa erroldak ikertzeko asmoz beren bizilekuak ikuskatzera joan direlako kezkatuta.

Azterketa

Etxebizitzetan legez kanpoko erroldatzea salatu bada, Udaltzaingoa ikuskatzera joan ohi da, iruzurrik izan den egiaztatzearen. Dena behar bezala badu lasai egon daitekeela jakinarazi diogu.

Ebazpena

ORIENTAZIOA

c) Errefusatzea

- Zaratak auzokoen artean (erreg. zk.: 1512/11)

Erreklamazioa

Herritar batek bere auzokoak salatu ditu zarata jasanezinak eta eragozpenak sortzen dizkiotelako; Udaltzaingotik neurketak egitera joan dira, baina ez dute ezer gehiago egiten.

Azterketa eta Ebazpena

Herritarrarekin elkarrizketatu ginen, eta partikularren arteko arazoa dela adierazi eta kasu horretan Sindikoak eskumenik ez duela esan genion. ATZERA BOTATZEA

* Isuna gidaria ez identifikatzeagatik (erreg. zk.: 1541/11)

d) Idazki lagundua

- Isuna: ezinduentzako gunean aparkatzea (erreg. zk.: 1524/11)

Erreklamazioa

Herritar batek azaldu digunez, ezinduentzako gune batean gelditu zuen kotxea tarta bat jaso ahal izateko, eta udaltzain batek salaketa jarri nahi izan zion. Ibilgailura bueltatu zenean, agentearekin topo egin zuen eta egoeraren inguruko “eztabaida” izan ondoren, salaketa jarri zioten.

Azterketa

Herritarrarekin izandako bilkuran jakinarazi diogunez, aldiro aldiro Udaltzainekin bilkura izaten dugu, eta gertakari horiek benetakoak diren aztertuko dugu. Horretaz gain, zuribide orria egiten lagundu diogu.

Ebazpena

IDAZKI LAGUNDUA

e) Gomendioa

* Multacar (erreg. zk.: 1527/11, 1545/11)

- After Hours (erreg. zk.: 1006/08)

Erreklamazioa

Gai hau behin baino gehiagotan salatu da gure bulegoan. XXXX tabernaren jarduerak eragiten duen enbarazua dela eta, hainbat auzokide etorri da, jada, gure bulegora; ixteko ordutegia ez da betetzen, ate bikoitza ez da behar bezala erabiltzen, gehieneko edukiera gainditzen da, kalean oihukatzen da, baina LARRIENA "after hours" gisa funtzionatzea da; izan ere, goizeko 6:30ean ireki eta 9:00ak arte egoten da zabalik, gainera ordu horretan debekatuak dauden musika ekipoak erabiltzen dira.

Auzokideek esku har dezagun eskatzen jarraitzen dute, bulegoan kexa dosierra irekitzea eragin zuen egoerak berdin jarraitzen duelako; lokal horretan ezorduetan egiten diren zaratak eragindako eragozpenak sortzen dira oraindik ere.

Azterketa

Zaraten araudia, goizaldean, urratzen du XXXX tabernak "after hour" gisa funtzionatzen duelarik, eta ondorioz etengabe eta larriki kalte egiten zaio herritarren atsedenerako eskubideari. Eskubide hori Konstituzioan jasota dago, egoitzaren intimitaterako eskubidearen urratzea eta osasunari kalte egitea berekin dakarren aldetik, eta badago eskubide horiek babesten dituen jurisprudentzia zibil eta penalik.

Kasu honetan Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 17ko 140/1997 DEKRETUAK, EAEko ikuskizun publikoen eta gainerako aisialdiko jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk arautzen dituenak hartu behar dugu aintzat.

Dekretuak dioenarekin bat, erabat debekatuta daude "*musika ekipo edo aparatuen funtzionamendua, ikuskizunak, dantzarako pistak edo antzekoak 09:00ak baino lehenago*" (9.3 art.).

Araudi honetatik argi eta garbi ondorioztatzen da "after hours" motako aretoak –musika tresnak erabiltzeko edo emanaldiak antolatzeko aukerarekin– ez daudela onartuta gure hirian eta, edozein kasutan, goizeko 6:00etatik 9:00ak bitartean ezein aretok ez duela baimenik *musika ekipo*

edo aparatuak funtzionatzen edukitzeko edo ikuskizunak, dantzarako pistak edo antzekoak eskaintzeko.

Horrenbestez, hau ebatzi dugu:

Ebazpena

2001eko irailaren 28ko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian finkatutakoaren ildotik, hurrengo hiru asteetan xxxx tabernak OSTEGUN, OSTIRAL ETA LARUNBATETAN ETA GOIZEKO 7:00AK INGURUAN (“after hours” delakoaren ordutegia), AFTER HOURS gisa funtzionatzen duen ikuskatu eta zaindu dezala GOMENDATZEN DIOGU Udaltzaingoari; goizaldean, 6:00etatik 9:00etara musika ekipoak erabiltzea debekatzen duen udal araudia betetzen duen ikusteko eta **hala izan ezean, ordutegi urraketak salatzeko, bai eta, ahal den neurrian, esku-hartze horien berri eman diezagula ere.**

Lehen ere, antzeko kasuetan, gomendio bera egin dugu, eta Udaltzaingoak gogo onez onartu izan du.

Hori guztia Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta bertan aurreikusitako eraginarekin.

- Laguntza zereginak (erreg. zk.: 1604 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko gazte baten amak kexa agertu digu, bere semeak izandako istripu batean Udaltzainek ez zutela zuzen jokatu adieraziz.

2011ko XXXXXXko goizaldean, bere semeak Eduardo Dato kaleko loreontzi baten gainetik salto egin nahi izan zuen, baina erori eta izterrezurraren burua hautsi zuen. Udaltzainen patruila bat lanean ari zen inguru horretan eta gazteak laguntza eskatu zien arren, udaltzainez ez

zioten laguntzarik eman lurrean erorita zegoela ikusi bazuten ere. Agian alkoholak eragindako erorketa izan zitekeela pentsatu zuten, baina ez ziren ibilgailutik jaitsi egoera hori konprobatzeko.

Bere semea ez zegoen bakarrik eta horri esker anbulantzia bati deitu eta behar bezala tratatu ahal izan zuten.

2.- Arazoaren azterketa

Udaltzainekin harremanetan jarri gara eta haiek adierazi digutenez, gau eta une hartan ingurune horretan zein agente eta patruila egon zitezkeen jakiteko hainbat barne ikerketa egin badituzte ere, ez dute emaitzarik lortu. Inguru horretan jarritako bideo kamerek ateratako informazio grafikoa ere baliatu da, bertan ibilgailuaren matrikula jasota geratu den ikusteko, baina hemen ere ez da emaitzarik lortu.

Aurreko gomendioan adierazten genuen bezala, udaltzainek beren zereginetarako hainbat ahalmen publiko badituzte ere, herritarrekiko harremanak zuzenak izateko eta zaintzeko betekizuna ere badute.

Kasu honetan ezin izan da inguru horretan zebilen patruilako agenteak zeintzuk ziren jakin, eta ezinezkoa da udaltzain zehatz batzuei arau-hauste zehatz bat ezartzea. Baina zerbitzuak osotasunean eta oro har duen jokaera baloratu dezakegu.

Inguru horretan jarduten zuten udaltzainek ez zuten zuzen jokatu zauri larriak zituen pertsonari ez baitzioten laguntzarik eman. Ibilgailutik jaitsi eta gaztea nola zegoen ikusi beharra zuten. Agian ez ziren konturatu erorketaren ondorioz gazteak zauri larriak zituela eta, zein ordu zen kontuan hartuta, alkoholaren eraginpean zegoela pentsatu zuten. Hau aringarritzat jo dezakegu baina edonola ere beraien jokaera ez zen batere zuzena izan.

Horri dagokionez, hau ezartzen du Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legeak:

30. artikulua.

.../...

2. Zintzo eta duintasunez jokatu beharko dute beti, eta beren zereginei zor zaien uste ona eta itzala galtzea nahiz zerbitzuaren edo Administrazioaren izen ona edo eraginkortasuna arriskuan jartzea ekar dezaketen jokabide orori itzuri egin beharko diote.

3. Herritarrekin dituzten harremanetan jokabide zuzena eta arretazkoa izan beharko dute, eta esku hartzen dutenean zergatik eta zein helbururekin egiten duten ahalik eta argibide gehienaz azaldu beharko dute.

Hala behar izanez gero, eta beren jarduketekin zerikusia duten pertsonak hala eskatzen badiete, poliziak direla egiaztatuta beharko dute.

Agenteek lurrean laguntza eskatzen ari den pertsona bati ez laguntza ez da onargarria, arrazoia edozein delarik ere. Agenteek lagundu beharra dute edo, gutxienez, pertsona horrekiko interesa erakutsi eta beharrezkoak diren laguntza bideak lortzen saiatu.

Ezin ditugu pertsona zehatz batzuk zigortu, baina aurkeztu diguten kexa sinetsi egin behar dugu eta zerbitzuan jakinarazi.

3.- Ebazpena

Udaltzainen arduradunei beren agenteei behar bezala erakutsi diezaietela GOMENDATU beharra dugu, horrelakorik inoiz gerta ez dadin. Polizien zeregina ez dago zainketa, segurtasun eta salaketa arloekin bakarrik lotuta, laguntza ematea ere beren zeregina da.

- Isunaren arrazoia: hartutako irudia (erreg. zk.: 1546 / 11)

I. ARAZOAREN AURKEZPENA

Bulegora agertu den erabiltzaileak MULTACAR delakoak isuna jarri diola eta arau-haustearen momentuan bertan jakinarazi ez zitzaioa adierazi du. Salaketa orrian hauxe jartzen du ez jakinaraztearen arrazoi gisa: hartutako irudia.

II. KASUAREN AZTERKETA

Iaz ere egin genituen arlo honetako hainbat gomendio eta Udaltzaingoak egoki erantzun du. Hala ere, laburbildu egingo dugu legeak arlo honi buruz dioena:

Multacar ibilgailua ez da agentearen ikertze eta jakinarazte lanaren ordezkoa izan behar.

Multacar ibilgailuak irudiak hartzeko mekanismoak erabiltzen baditu ere, salaketa ez da automatikoki egiten. Agenteak egiten du, beraz, Multacar isunak ez du baliogabetzen gidaria ibilgailuan badago jakinarazteko beharra.

Salaketa-orrietan ez jakinarazteko arrazoitzat *irudia hartu izana* argudiatzean, Gasteizko Udaltzaingoak multacar ibilgailuak egindako argazkiak 339/90 Errege Dekretuaren 77. artikulua 3. paragrafoa kasuekin parekatzen ditu. Gure ustez, **ordea, interpretazio hori okerra da, eta herritarren segurtasun juridikoaren kalterako da, salbuespen bat dena –hau da, eskubideak mugatzen dituen heinean estu ulertu behar dena– era zabalean ulertzen baitu**. Arauak aurreikusten du irudiak hartu badira geroago jakinarazteko aukera, baina bakarrik sistema mekanikoa aukera bakarra denean –esaterako, errepide, autobide eta tuneletako radarrak–. Gure iritziz, hiri barruan eta multacar ibilgailuaren barruan udaltzainak doazela –eta horiek dira benetan garrantzitsuak eta jardunean ari direnak– irudia hartzea ez da berez salaketa ez jakinarazteko arrazoi, baldin eta bestelako eragozpenik ez bada, arrazoi hauek tarteko: (1) zirkulazioa oso handia bada edo ibilgailua geldirik egoteagatik arrisku zehatza sor badaiteke, dela eguraldi txarragatik, lanengatik edo beste edozein gorabeherarengatik edo (2) gidaria aurrean ez bada.

Agenteen burutzak adierazi digunez, ibilgailuan doazen agenteak gelditu eta gertaerak egiaztatu egiten dute gidaria ibilgailuan bertan bada. Gure ohartarazpena honetara mugatuko da:

salaketa-orrietan, zuzenean ez jakinarazteko arrazoitzat araudiaren 77. artikuluan jasotako kasu hauek ager daitezela: (1) *zirkulazioa oso handia bada edo ibilgailua geldirik egoteagatik arrisku zehatza sor badaiteke, dela eguraldi txarragatik, lanengatik edo beste edozein gorabeherarengatik edo*(2) gidaria aurrean ez bada.

Horrenbestez, hau ebatzi dugu:

III. ONDORIOA

Udaltzaingoari isun hau bertan behera uzteko GOMENDATZEN DIOGU, izan ere 0/xxxx dossier zenbakia duen kasu honetan salaketa erabat baliogabea da forma akatsak dituelako; ez jakinaraztearen arrazoiak irudia hartu izana dela jartzen du, baina, aipatu den legez, horrek ez du salaketa ez jakinaraztea justifikatzen.

EZ ZEN ONARTU GOMENDIOA.

f) Gogorarazpena

* Isuna autobus geltoki aldatuan (erreg. zk.: 1495/11)

* Tabernak sortutako enbarazua (erreg. zk.: 1006/08)

- Udaltzainen adeitasuna (erreg. zk.: 1631 / 11)

1.- Udaltzainek herritarrekin dituzten harremanak beren zereginetan ari direnean: begirunea eta adeitasuna

Ohikoak dira Herritarren Defendatzailearen-sindikoaren bulegora heltzen diren kexak; herritarren arabera, Udaltzaingoaren funtzioen garapeneko begirunerik gabeko tratua bultzatuta.

Kasu gehienetan kexatzeko arrazoiak ez dira OBJEKTIBATZEN errazak, eta esapide hauen bidez deskribatu ohi dira: “gaizki begiratu zidan”, “harropuzkeriaz jokatu zuen”, “keinu zakarrak egin zituen”, “oihuka hitz egin zidan”, “nagusikeriazko jarrera zuen”, “haren gorputz adierazpenak eta lengoaiak erasokorrak ziren”... Tartean zeuden udaltzainei gertaerak aipatzean,

ordea, haiek ere kexatzen dira herritarrek berekin duten begirune faltaz, gutxiespen adierazpen eta keinuak egiten baitizkiete, bai eta iraindu ere.

Jakina da udaltzainekiko harremana ez dela lasaitasun-egoeretan gertatzen, baizik eta nolabaiteko tentsioa daramala beti inplizituki, ahalmen zigortzaileak, salaketaren gertaerak, isunaren ordainketak edo zigorraren ordainketak eraginda. Zenbait kasutan, esku-hartze hori ibilgailuen trafikoarekin lotuta egiten da edo legez kontrako zigorraren ikerketan, horren berezko estresarekin eta zenbaitetan gaueko ordutegian, edari alkoholduen kontsumoa tarteko dela...; askotan, poliziaren esku-hartzeak denbora kentzen digu, estresaren mende dauden gure jarduera profesionalak oztopatzen ditu eta horrek beste presio-faktorea ekartzen du.

Herritarrek ez dute beti ongi ulertzen agenteen agintaritza, haien agindu txikiena ere zalantzan jartzen baitute, eta edozergatik argudiatzen baitute, agenteek nekez kontuan har ditzaketan aitzakiak jarritz: “une bat besterik ez da”, “ez dut seinalea ikusi”, “ez da horrenbesterako”, “ez zen nire asmoa”...; edo okerrago dena: “ikusiko duzu”, “ez dakizu norekin ari zaren”... Agenteak kexatu egiten dira, “kalea gero eta zailago” dagoela esanez, eta herritarrak gero eta erasokorragoak omen dira.

Gizakion asmo nagusia besteek begirunea digutela sentitzea da.

Pertsonen diegun begiruneak haien auto-estimua handitzen laguntzen du. Pertsona gehienon “nia” hauskorra da, eta maiz euskarrien beharra du. Hori dela eta, agresibitatez jokatzen du begirune faltatzat jotzen duenaren aurrean.

Errespetua eta adeitasuna agintaritzaren agenteen betebeharrak deontologikoak dira eta funtzioaren garapeneko tinkotasunarekin konbinatu behar dira, baina beti ez da erraza izaten.

Arazo mota horrek ez du irtenbide juridiko garbirik, legearekin baino psikologiarekin zerikusi handiagoa duen harremanetarako gaitasunak sortu eta garatzearen arazo gisa hartu behar da.

Bestalde, adeitasuna, gizarte- eta hiri-bertute gisa, ez dago unerik onenean, gure hezkuntza-sistemak eta moda sozialek lehentasuna eman diete berezkotasunaren balioei, askatasun

pertsonalari eta asertibitateari euskarriaren eta errespetuaren aurrean eta horren ondorioz, zintzotasuna zenbaitetan agresitatearekin eta kontsiderazio faltarekin nahasten da.

Alor horretan, 1992ko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak, Euskal Herriko poliziari buruzkoak eta udaltzainei ere aplikagarria denak, honako hau finkatzen du:

30. artikulua

1. Euskal Herriko Poliziako kideen jokabidea hobespen politikorik eta alderdikierarik gabekoa izango da guztiz, eta gehiegikeriazko eta bidegabeko edozein ekintza galaraziko dute, berdintasun eta bereizkeriarik ezarekiko sortarauei eta [Konstituzian](#) Eskubideei buruzko Mundu-mailako Adierazpenean [Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenean](#) aipatzen diren beste guztiei uneoro begirune izanen.

2. Zintzo eta duintasunez jokatu beharko dute beti, eta beren zereginei zor zaien uste ona eta itzala galtzea nahiz zerbitzuaren edo Administrazioaren izen ona edo eraginkortasuna arriskuan jartzea ekar dezaketen jokabide orori itzuri egin beharko diote. Ustelkeria-ekintza guztietatik bereziki jare izan eta horrelakoen aurka erabaki sendoz jokatu behar dute.

3. Herritarrekiko harremanetan, tratu zuzena eta arretatsua eskainiko dute, esku-hartzearen arrazoiei eta xedeari buruzko ahalik eta informaziorik osatuena eta zabalena eskainita.

Baldintza profesionala ziurtatuko dute, beharrezkoa den guztietan eta jardueretan harremana dutenekiko pertsonak eskatzen dutenean.

2.- Udaltzaingoaren aldetik “trebetasun sozialetan” prestakuntza egokiaren eta iraunkorraren beharra

Polizien prestakuntza honako hauei buruzko alderdi askotan indartu da: polizia-teknika, zuzenbide administratiboa eta penala, autodefentsa, prestakuntza fisikoa, kriminologia... hiri alorrekin hain lotuta dagoen Udaltzaingoaren kasuan bereziki, agian beharrezkoa izango litzateke trebetasun sozialekin lotutako alderdiak ez ahaztea: gatazkaren kudeaketa, poliziaren adeitasuna, probokazioekiko erresistentzia...

Jakin badakigu Udaltzaingoaren Zuzendaritzak alor horretan prestakuntza-baliabide berriak txertatzeko xedapenak hartu dituela eta, horregatik, zorientzea dagokigu, prestakuntza mota horrek duen garrantzia azpimarratuta eta alor horretan egindako edozein hobekuntzak kontsiderazio handiagoa eta poliziaren eginkizunetan eraginkortasun handiagoa ekarriko duela azpimarratuta. Garrantzitsua da udaltzainek, zaharrek eta berriek, zorrozki polizia-jarduerak direnak ez direla – oso garrantzitsuak izanik– bakarrik ulertzea eta udaltzaina bereziki bizikidetzako agentea ere badela ulertzea.

Adierazitako guztiari jarraiki, GOGORA EKARRIKO dugu udaltzain guztiek legez duten betebeharra, herritarrei une oro, eta kasuaren baldintzen barruan, tratu zuzena eta arretatsua eskaintzekoa, esku-hartzearen arrazoiei eta xedeari buruzko ahalik eta informaziorik osatuena eta zabalena eskainita. Herritarrak poliziaren esku-hartzearen arrazoa eta zentzua ulertzen ez duenean, errazagoa da gatazka sortzea.

Poliziaren funtzioa toki mailan garatzeak duen zailtasuna ulertzen dugu, salatzeko ahalmenarekin eta, aldi berean, bizikidetzako agente gisa.

Alor horretan udaltzainen gaitasunak indartzeko hartutako edo etorkizunean hartuko den neurri oro txalotuko dugu eta une honetan indarrean dauden edo aribidean dauden prestakuntza-planei buruzko INFORMAZIOA eskatuko dugu.

g) Herritarrak berak itxia

- Isuna eskualdatze-erregistrorik gabe motorra salerosteagatik (erreg. zk.: 1596/11)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu agertu da, saldu zuen motor bati dagozkion bi isun jarri dizkiolako Udaltzaingoak, antza denez salerosketa ez baitzen Trafikoan egin.

Azterketa eta Ebazpena

Erabiltzaileak jakinarazi digu Udaltzaingoan izapideak egiten ari dela egoera argitzeko, eta behar izanez gero berriro joko duela guregana.

h) Bitarteko jarduera

- Multacar bidez jarritako isuna (erreg. zk.: 1627/11)

Erreklamazioa

Herritar batek bide lehentasunezkoa ez den bide batean, eta bere autoa autoak konpontzeko lantegi baten sartzeko zain zegoela, “multacar” delakoak isuna ipini diola salatu du.

Azterketa eta Ebazpena

Herritarrak “multacar” delakoaren funtzionamendu protokoloari buruzko informazioa eskatu digu. Zerbitzuarekin harremanetan jarritz gero, informazio hori bidali diogu, jakinaren gainean egon dadin.

i) Bitartekaritza

- Udaltzainaren tratu ezegokia (erreg. zk.: 1565/11)

Erreklamazioa

Udaltzain batek nortasun agiria inolako justifikaziorik gabe kendu diola salatu digu herritar batek.

Azterketa eta ebazpena

Udal bulegoetara lagundu diogu eta nortasun agiria itzuli diote.

j) Herritarrak berak itxia

- Prostituzioa Bizigunek alokatutako etxebizitzan (erreg.: 1582/11)

Erreklamazioa

Bizigune bitartez alokairuan bizi den herritar batek salatu digunez, maizterrek arazoak, prostituzioa esaterako, sortzen dituzte

Azterketa eta ebazpena

Bizigune programakoek esku hartu dutela jakinarazi digu herritarrak telefonoz.

2.3.2.2- Zuzendaritza

a) Gomendioa

- Isuna zamalanetarako seinalea duen lekuan aparkatzeagatik, adierazitako ordutegitik kanpo (erreg. zk.: 1500/11)

Erreklamazioa

Pintore kalean bizi den herritar batek kexa aurkeztu du, zigorra ezarri diotelako bere kalean zamalanetarako seinalea duen leku batean horri dagokion ordutegitik kanpo aparkatzeagatik; gainera, Udaltzaingoa ohartarazi zuela dio, bere autoarekin deskarga lan batzuk egite aldera.

Salaketa bereziki bidegabea dela uste du, aldez aurretik ohartarazi baitzuen kalean sartzeko asmoa zuela, egiaztatzerik ez badu ere.

Halaber, kexu ageri da Erdi Aroko hiriguneko bizilagunek oro har ez dutelako inoiz ibilgailuak sartzetik.

Azterketa

Erabiltzaileak aipatu duen salaketa jakin horri dagokionez, gogoratu behar da Pintore kalea oinezkoentzat dela, eta erabiltzeko muga handiak dituela: zamalanetarako baimena duten ibilgailuak 07:00etatik 13:00etara bakarrik sar daitezke (Alde Zaharretik kanpoko oinezkoen alderdietan, 12:00ak arte). Auto partikularrak, bertako bizilagunenak barne, ezin dira sartu.

Indarreko ordenantzaren arabera, autoak ezin dira sartu (ez eta une batean zerbait deskargatzeko bada ere).

Erreklamaziogileak aipatu digun kasuan, kalean ibilgailuz sartzeko asmoa zuela jakinarazi zuen telefonoz, baina ezin du agiriz frogatu.

- Une honetan, arauen arabera, auzokoek ez dute inolako aukerarik Erdi Aroko hirigunera sartzeko, berariaz baimena eman ezean, eta hori ez da beti egingarri, ez eta juridiko ziurra ere. Beste hiri eta hirigune historiko batzuetan berriz, Granadan, esate baterako, telebistaz kontrolatzen dute sarbidea eta sartzen diren ibilgailuen matrikulak kontrolatuz² gehienez 45 minutu sartzeko aukera ematen da.
- Granadan eta Espainiako zein Europako beste hiri batzuetan ezarritako sistemak hirigune historikoa banatzen den sektore bakoitzaren sarrera eta irteeretan kamera eta informatika aplikazioen sistema bat eskatzen du. Kamera horiek ibilgailuen matrikulak grabatzen dituzte, eta bertako biztanleak bereizten –aldez aurretik datuak eman dizkiote Trafikoari, zirkulazio baimena eskuratzearren–; horiek 45 minutu dute berriro erdialdetik ateratzeko, sartu diren sektore beretik. Teknologia berrien erabilera adimentsua da, hirigune historikoetako bizilagunei bizimodua errazago egiteko, horiek eragozpen ugari jasan behar izaten baitute.

- Gure hirian ere aztertu da arazoa aurreko agintaldietan, baina ez da erabaki praktikorik hartu. Gure ustez, egoera ez da egokiena, eta Erdi Aroko hiriguneko bizilagunak askotan kexatu dira, arazo ugari sortzen dielako. Badakigu aurreko agintaldian gai honetaz eztabaida sutsuak izan direla maila guztietan –politikarien eta teknikarien artean– baina ez da emaitzarik lortu. Gure ustez, ulergarria da bertako bizilagunak kexatzea eta oraingo egoerarekin ez etsitzea.

Ebazpena

Kasu zehatzari dagokionez, ezin dugu gomendatu salaketa eta ezarritako isuna baliogabe ditzaten, ez dagoelako inon jasota auzokoari kalean ibilgailu partikularrekin sartzeko emandako “baimena”.

GOMENDATZEN DUGU Erdi Aroko hirigunean bertako bizilagunei ibilgailuaz sartzeko bide emango dien telebista bidezko kontrol eta bereizte sistema bat ezar dadin, Espainiako beste udalerrri batzuetan bezala, aldi baterako bada ere auzokoek beren bizilekura sartzetik izan dezaten. Bitartean, igarotzeko baimenak artxibo informatiko batean jaso ahal dira, helburu zehatz

² <http://www.diariodesevilla.es/article/sevilla/632301/circular/por/centro/se/limitara/minutos/bajo/multa/euros.html>

horretarako ez ezik, bestela ere baliagarria izango baita oinezkoen bideak zenbateraino erabiltzen diren jakiteko.

- “Aparkalekuak” Mendiolabidean (erreg. zk.: 1639/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Mendiolabideko auzotar talde batek iradokizun bat egin digu, gertakari hauek direla eta:

Urteko lehenengo egunetan, kale horretan aparkatu ohi duten auzotarrek Udaltzaingoaren hainbat ohar aurkitu zituzten, eduki honekin:

“Trafiko arau bat hautsi duzu, zirkulazio bidean aparkatu baituzu... / Oraingo honetan ez dugu salaketarik jarriko, baina gogorrazten dizugu trafikoari, zirkulazioari eta bide segurtasunari dagozkien arauak bete beharra daukazula, zigortua ez izatekotan”.

Kontua da inguru horretan ez dagoela inongo seinalerik, ez bertikalik, ez horizontalik, aparkatzeko debekua adierazten duenik, nahiz eta egia den, aldi berean, galtzadan ez dagoela inolako aparkaleku markarik. Horrek, bada, nahasmena sortzen du, zein zati ote den zirkulazio bide eta zein ez.

Bestalde, auzotarrek onartzen dute kalearen estatusunak galarazi egiten duela bi aldeetan aparkatzea, orain arte egin ohi zen bezala, eta uste dute egokiena litzatekeela aparkatzeko aukera alde bakar batera mugatzea, bidenabar argi eta garbi adieraziz beste aldean aparkatzea debekatua dagoela.

Auzotarrek uste dute galera handia izango litzatekeela beraientzat kale osoan debekatuko balitz aparkatzea. Izan ere, etxe zaharrak dira, garajerik gabeak.

2.- Arazoaren azterketa

Administrazio erregimenera ere zabaldu beharra dago *garantismo penala –nulla pena sine lege–*, eta hain zuzen ere horregatik uste dugu ez dela izan behar zigorrik zalantza zirrikiturik gabeko debekurik ez den bitartean, esan baita seinaleztapen argi eta garbia galdatu beharra dagoela, nahasmen edo zalantzarik sortuko ez duena. Benetan leku horretan aparkatzea debekatu nahi bada, behar bezala seinaleztatu beharko litzateke debeku hori, seinale bertikal eta horizontalen bitartez. Beraz, guk geuk kalea ikuskatu dugularik, uste dugu arrazoizkoa dela aldeetako batean aparkatzeko debekua ezartzea, nahikoa galtzada-zabalera uzteko, baina ez litzatekeela beharrezko izango aparkatzeko debekua bi aldeetara hedatzea. Hartara, zenbait aparkaleku erabiltzeko aukera izango litzateke –urriak izaki halakoak hirian–, eta, azken batean, gidari guztien mesede izango litzateke, bereziki leku hori betidanik baliatu izan duten ingurune horretako auzotarren mesede.

3.- Ebazpena

Horixe GOMENDATZEN DUGU, errespetu osoz, eta Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta han xedatutako eraginarekin.

Baldin eta gure gomendioa onartzen ez bada, arauzkoa da jakinaraztea, labur bada ere, uko egite horren arrazoiak.

2.3.2.3- Mugikortasuna eta Garraioa

a) Ezestea

- Isuna egoiliarren eremuan (erreg. zk.: 1649/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Autoa egoiliarrentzako gune batean aparkatu eta doako txartela jarrita 15 minutu baino gutxiago egoteagatik jarri dioten isunaz kexu agertu zaigu herritar bat:

Hitzez hitz, hauxe dio herritarrak:

“2011ko abenduaren xxan SARTUren bulegoetara (Errege atea) joan nintzen agiri bat hartzera. Autoa Kanpokale Berrian aparkatu nuen 12:14an eta doako txartela jarri nion, izan ere 15 minutu baino gutxiago beharko bainuen. Kalearen amaiera dagoen makinak eman zidan txartela. Autora itzuli nintzenean salaketa orria ikusi nuen, txartela jarri nuen unetik 2 minutu pasa zirenean, hau da 12:16an. Ordubete eman nuen udaltzaina aurkitu nahian azalpena eman ziezadan. Azkenean amore eman nuen. Gerora, Udaltzainek Agirrelandan duten egoitzara joan nintzen, eta han ere ez nuen lortu nire informazio eskariari erantzutea.

Ekintza hauek bidegabetzat jotzen ditut. Beste zenbait alderdi nabarmendu nahi ditut:

1. Seinaleztapena erabat nahasgarria eta desegokia da, izan ere aparkaldi mugatuko gune gisa agertzen den arren (ingurune karratuko aparkaldirako debeku seinalea), bertan ez dago inolaz ere aparkatzerik lanegunetan.
2. Seinale horren azpian txartelak saltzeko makina dago (zertarako?)
3. Salaketa orria xxxx agenteak izenpetu du, baina, nik dakidala TAOko langileak ez dira agenteak, zaintzaileak baizik. Ibilgailuaren aurreko aldean txartela zegoela behintzat ikusi behar zuen.
4. Isuna 2009/05/25 Ordenantzaren 10E artikuluan oinarritua dago.

Ordenantza hori ez dago Gasteizko Udalaren web orrian eta udaleko langileek ere ezin izan dute aurkitu. Arrazoia oso xumea da, ordenantza hori ez dago edo indargabetua dago (larria eta bi urtez luzatua, akats forma da, beraz herritarrari babesik ez izatea eragiten dio).

LURRAZALEKO APARKALDI MUGATUKO ZERBITZUA (TAO) ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA bat badago, 2009ko abuztuaren 14koa (2009ko abuztuaren 28ko ALHAOn argitaratua, zk. 98).

5. Agirrelandako bulegoetara joan nintzenean, erabat harrিতuta geratu nintzen bertako agenteak ez baitzuen denbora baterako aparkatzea mugatzen duen seinalea ezagutzen.

Honek guztiak profesionaltasun falta nabarmena eta dirua biltzeko gogo handia dagoela erakusten du, edozein direlarik horretarako bideak eta ondorioak. Azken batean herritarrarekin bidegabe jokatzeari adierazten du.

Horrenbestez, hauxe ESKATZEN dut:

Isuna bertan behera gera dadila, salaketan eta isunaren jakinarazpenean dauden forma akats larriak kontuan hartuta.

Hainbat alderdi lantzeko eskatzen dizuet: inguru horretan erabat nahasgarria den seinaleztapena berraztertzeko, agente eta zaindaria behar bezala prestatzeko eta udal ordenantzen informazioa garaiz eta eran zuzentzeko.

2.- Arazoaren azterketa.

a) TAO zaindarien salaketaz: Arazo hau ebatzita dago, izan ere zigortze prozedurak onartu egiten du edozein pertsonaren salaketaren ondorioz prozedurari ekitea.

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko gaietako Zigor Prozeduraren Araudia (otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretua).

3. artikulua. Prozedurari hasiera ematea.

Bi erataria eman dakiokete hasiera zigor-prozedurari: batetik, ofizioz, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko aginduen kontrako arau-hausteak izan daitezkeen egintzen berri jakin eta aginpideak dituzten agintariek hasita, eta, bestetik, trafikoa zaindu eta segurtasuna lortzeko ardura duten agintaritzaren agenteek egindako salaketen bidez.

Beste era batera ere eman diezaioke hasiera prozedurari aginpidea duten agintariek, salaketa bidez, egintza horien berri daukan edozein pertsonak sartuta.

b) Seinaleztapenaz: Zuzen adierazita dago Kanpokale Berria egoiliarrentzat bakarrik dela, jai-egunetan salbu, aldi baterako aparkamendua adierazten duen seinale karratuaren bidez. Beraz, lanegunetan aparkatzea debekatzen duen seinalea zuzena da.

c) TAO txartela saltzeko makina ez dago Kanpokale Berrian, hortik hurbil baizik, eta Errege Ateko aparkalekuetarako txartela ateratzeko balio du. Inguru horretan egoteak ez du goitik beherako seinaleztapenak duen debekua baztertzen: EGOILIARRAK BAKARRIK.

d) Lanegunetan aparkatzea debekatuta badago (nahiz eta TAO txartela ordaindu), hamabost minuturako doako txartelarekin aparkatzea ere debekatuta dagoela ulertzen da. Esklusibitateak ez du salbuespenik.

e) Salaketa orrian agertzen den ordenantza azkena ez bada ere, arau-haustea gertatu egin da, izan ere eskatzaileak berak adierazten duenez, bada LURRAZALEKO APARKALDI MUGATUKO ZERBITZUA (TAO) ARAUTZEN DUEN 2009ko abuztuaren 14ko ORDENANTZA bat (2009-8-28ko ALHAOn argitaratua), eta honek debekua ezarri eta isuna eta arau-haustea zehazten ditu. Ordenantza hori argitaratuta, indarrean eta guztiok ezagutzeko moduan dagoenez, ez da babesgabezia egoerarik sortu.

3.- Ondorioa

Hori guztia kontuan hartuta, eta eskatzaileak argudioak emateko egindako lana gora behera, salaketari dagokionez Gasteizko Udalak zuzen jokatu duela uste dugu, eta ezin dugu deusezteko arrazoirik antzeman.

Edonola ere, salatuari informazio zuzena eman dakion, zuzendu egin behar da salaketa orrian agertzen den erreferentzia, eta indarrean dagoen ordenantzarena jarri; hau da, LURRAZALEKO APARKALDI MUGATUKO ZERBITZUA (tao) ARAUTZEN DUEN 2009ko abuztuaren 14ko ORDENANTZA (2009-8-28ko ALHAO, 98. zk.).

2.3.3.- Gizartegintza Saila

2.3.3.1- Zuzendaritza

a) Ezestea

- Alokairua ordaintzeko laguntzak ukatzea (erreg. zk.: 1482/11)

Erreklamazioa

Alokairua ordaintzeko laguntzarik jasotzen ez duela salatu du herritar batek. Errolda eta alokairu kontratua baino ez du aurkeztu.

Azterketa

Gizartegintza Sailean eskatu dugu txostena eta adierazi digutenez, *erabiltzaileari jakinarazi zitzaien ezin zuela gizarte prestaziorik jaso erroldatua egotearen baldintza ez zuelako betetzen, baina jantokirako balea bai eman zitzaien (...)*

Ebazpena

EZESTEIA

- Laguntzak etetea: etxebizitza aldaketa ez jakinarazteagatik (erreg. zk.: 1496/11)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu duenez, jasotzen zituen laguntzak eten egin dizkiote, etxebizitza aldaketa ez jakinarazteagatik, eta ez du ulertzen.

Azterketa

Berak aldaketaren berri eman bazuen ere, horretarako epetik kanpo egin zuela, adierazi diogu, eta ondorioz laguntza kentzea zuzenbidearekin bat dator, betebeharreko baldintza baita jakinarazpen hori egitea.

- Gizarte laguntzak ukatzea, erroldako betekizunak ez betetzeagatik (erreg. zk.: 1517/11)

Erreklamazioa

Errolda baldintzak ez betetzeagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu diotela salatu du pertsona batek.

Azterketa eta ebazpena

Aurkeztutako agiriak aztertu ditugularik, gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri gara eta pertsona horrek udalerrian ez daramala urtebete erroldaturik adierazi digute. Beraz, ez dagokio eskatutako laguntza. Hala jakinarazi diogu. EZESTEIA

- Bonotaxia: seme ezindua (erreg. zk.: 1516/11)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu agertu zaigu bere semeari bonotaxi garraiorako laguntza ukatu egin diotelako.

Azterketa

Eskaera aztertu dugu eta Gasteizko Udaleko Gizartegintza Sailarekin izan dugun bileran, laguntza horiek Arabako Foru Aldundiarekin izenpetutako hitzarmen batekoak direla, eta laguntzen xedea erakunde horrek zehazten duela adierazi digute. Guk hala jakinarazi diogu herritarrari. Laguntza horren xedea eta laguntza hori justifikatzen duen filosofia hau da: ezinduek garraibidea izan dezaten laguntzea, eta gizarte eta osasun eremutik haratago doa, ezintasun txikia duten pertsonen bizitza autonomoa izaten laguntzea baitu xede. Zure semeari dagokionez, ezintasun organiko eta funtzionala % 88a baino handiagoa da, beraz, aipatutako laguntza hauetan zehaztutako mugak gainditu egiten ditu. Zure semeak ez du gizartean bizitza autonomoa egiterik eta besteren menpe dago. Zure kasuan, helburu sozio-sanitarioa (terapiak) duten laguntzak edo menpekoak zaintzen dituzten familientzako laguntzak behar dituzu. Edonola ere, behar duen laguntza hori ez dator bat gure laguntzak xede dituen hartzaileen profilarekin. Laguntza sozio-sanitarioak eskuratzeko, erreklamazioak Osakidetza edo/eta Arabako Foru Aldundira igorri behar dira.

Beraz, azaldutako guztia kontuan hartuta, Udala zuzen jokatzen ari da, eta herritarrak eskatzen duen laguntza ez dator bat aurreikusitako laguntzarekin, izan ere laguntza hori bizitza autonomo eta independentea egiten duten pertsonentzat baita.

Ebazpena

EZESTE

- Gizarte laguntzak: bertan benetan ez bizitzea (erreg. zk.: 1537/11)
- Gizarte laguntzak bertan behera uztea, aldaketak ez jakinarazteagatik (erref. zk.: 1568/11)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek kexa aurkeztu du gizarte laguntzak kendu dizkiotelako, dagokion zerbitzuari gizarte eta lan egoeraren berri ez emateagatik.

Azterketa eta ebazpena

Kasua aztertu eta adierazi diogu administrazioaren jokabidea zuzena izan dela, laguntzak eskatzea eragin zuen egoeran aldaketarik izanez gero jakinarazteko obligazioa duelako.
EZESPENA

- Udaltzaingoaren eta Gizartegintza Sailaren esku hartzearekiko ezadostasuna (erreg. zk.: 1557 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

J.G. L. A. jaunak bi alderdirekin lotutako kexa azaldu digu: batetik, Udaltzaingoaren jokabidearekin, 2009ko uztailaren 28an atxilotu egin baitzuten, legez kanpo, erreklamaziogilearen ustez; bestetik, Gizartegintza Sailarekin, haren alaba L. G. N.-ri buruz 2009ko maiatzaren 16ko dataz egindako txostena dela eta, erreklamaziogilearen ustez iraingarria eta funts gabea baita.

2.- Kasuaren azterketa Udaltzaingoaren jokabidearekin lotutako kexa dela eta

2009an, J. G. L. A. jaunaren emaztearen eskariz, salaketa tramitatu zen, babesteko agindua eskatu baitzuen; Gasteizko Emakumeen kontrako Indarkeriaren Epaitegiak tramitera onartu zuen, 2009ko otsailaren 17ko alde aurreko eginbideetarako 55/99 autoaren bidez. Autoan jasotakoaren arabera ez dago tratatu txarren delitua frogatutzat jotzeko egiaztapenik, baina bai jotzen da probatutzat hau:

“Bistakoa da bikote harremana oso hondatuta dagoela, etengabe eztabaidan ari baitira, eta salatzaileaz nolabaiteko sexu abusua dagoela; gainera, salatuak izaera erasokorra adierazi izan du bikote harremanetan (...), harremana eutsiezina dela kontuan hartuz, babes neurriren bat hartzea eskatzen du egoerak, mehatxu berririk edo Y.-ren borondatea makurrarazteko koakziorik gerta ez dadin; izan ere, ez du lotura iraunkorrik Gasteizen, ez du lan egiten eta salatuaren mende dago, bai ekonomikoki bai afektiboki.”

Auto berean, oso behin-behineko neurri zibilak ematen dira, eta alabaren zaintza amaren esku uzten da, zaintza ez duen gurasoaren aldeko bisita erregimenarekin. Ez dago argi behin-behineko neurrien iraupena zaintzari edo bisita eta pentsio erregimenari dagokien, izan ere, babes autoak ia urtebete igaro arte jarraitu baitu indarrean, zehazki, **2010eko otsailaren 3ra arte**, data hori duen autoaren bidez behin-behineko largestea erabaki baitzen.

2009ko azaroaren 27an, dibortzio epaia eman zen araubide zibilean, eta bertan hau ezartzen da:

“Zaintza ez duen gurasoaren komunikazio eta bisita erregimen hau ezartzen da: hiru egun astean, ordubetez, goizez edo arratsaldez, babespeko topagunearen erabilgarritasunaren arabera, 3 hilabetez. Topagunearen aldeko txostenik bada, erregimen hori luzatu egin ahalko da, eta normalizatuago bat ezarri: txandakako asteburuak eta arratsalde bat egun batean edo bitan.

Adingabearentzat komenigarria da hori, otsailaren 17ko dataz adostu eta bi aldeek erabakiaz BOST HILABETEZ luzatutako bisita erregimenean aitak azaldu duen ezegonkortasun emozionala kontuan izanik, 2009-07-26an eten egin baitzen, G. jaunak ez baitzion umea amari itzuli egun batzuk igaro arte, Udaltzaingoak atxilotu ondoren. Salatuak ere onartu zuen hori, eta epaiketan kontatu zuen kezkatuta zegoela umearengatik eta pediatraren eraman zuela. Hala ere, ustezko bisita horren ondoren ez zuen borondatez amarengana eraman eta ez dakigu zenbat iraungo zuen egoerak poliziak esku hartu izan ez balu, salatuak harekin 3-4 egun egoteko asmoa besterik ez zuela esan bazuen ere. Horrek adierazten du bere interesak beste edozein eragozpen edo gorabeheraren gainetik jar ditzakeela, baldin eta berak nahi duenaren kontrakoa bada, eta zailtasunak dituela erregimen edo diziplina bati egokitzeo”.

Adierazitakoa kontuan izanik ondorioztatu behar dugu Udaltzaingoaren jarduera zuzenbidearekin bat zetorrela, bai J.G.-ren atxiloketari dagokionez, delitu zantzuak argitzeko beharrezko denbora baino ez baitzuen iraun, bai umea berreskuratzeari dagokionez, haren zaintza amak baitzuen, babes aginduak irauten zuen bitartean bederen, ezarritako neurri zibilak aldi baterako izan arren. Hori ulertzen du jurisdikzio zibilak, frogatutako gertaeretan Udaltzaingoaren jarduera aipatzen baitu.

3.- Gertaeren azterketa 2009ko maiatzaren 16an adingabearen egoeraz egindako txostena dela eta

Erreklamaziogilearen iritziz, txosten hori kaltegarria izan zen bere interesentzat, eta funtsik ez duten usteetan oinarritzen da.

Kexa horiek direla eta esan beharra dugu txostenaren helburua erreklamaziogilearen alaba – 19 hilabetekoa– ARRISKUAN ote dagoen ebaluatzea dela.

Arriskua “ondasun juridiko babestuek” kalte edo min potentzial bat jasateko duten aukera da, pertsonak eta gauzek, bereziki. Arriskuaren kontzeptua beti etorkizun diren egoerei buruzkoa da eta, beraz, aurreikuspen bat da, uste bat, ez dagoeneko gertatu den zerbait; horrenbestez, ezin zaie leporatu Udalaren Gizarte Zerbitzuei arriskuari buruzko txostena indukzioetan oinarrituz egin izana, ez baitago arriskua ebaluatzeko beste modurik.

Ulergarria izan daiteke erreklamaziogilea minduta egotea txostenean egiten diren indukzio batzuk direla eta, baina horrek ez du esan nahi gezurra direnik, edo arbitrarioak direnik.

Zenbat eta handiagoa izan zaurgarritasuna, hainbat eta handiagoa da arriskua, eta hizpide dugun kasuan, bai ama –oso gaztea eta Espainian familia loturarik gabea– bai 19 hilabeteko alaba OSO ZAURGARRIAK ziren.

Arriskuaz hitz egiteak ez da bakarrik egoera zehatz batzuetan “min egiteko aukera” teorikoa esan nahi. Indarrean babes agindu bat egoteak, Udaltzaingoak esku hartu behar izateak eta aitaren jokabide emozional ezegonkorrak –epaileak egiaztatua– arrazoi nahikoak dira udal zerbitzuen txostena justifikatzeko, beti ere adingabeen eta babespean jarritako pertsonen interesei ematen baitiete lehentasuna.

Edonola ere, jakina izan arren komeni da gogoratzea txosten horiek ez dutela zigortzeko izaerarik, egoera eta garai zehatz batzuekin lotutako “aukeren” ebaluazioa baizik, eta guztiz isilpekoak direla, eta Datuak Babesteko Legearen mendekoak, txosten sentiberak baitira.

Hortaz, Gizartegintza Sailak dituen txostenei dagokienez, erreklamaziogileak eskubidea du eskatzeko txosten horietan aipatzen diren datu pertsonalak kentzeko, baldin eta haren emaztearen eta alabaren oraingo egoera eta igarotako denbora kontuan izanik hala uste badu, bere izena zein alabarena babestearren.

Datuen titularra datuak ezabatzeko eskubideaz balia daiteke, dena delako erakundeko fitxategiaren arduradunari idazkia aurkeztuz.

Ezabatzeko edo aldatzeko eskubidea guztiz pertsonala da, beraz, datuen titularrak zuzenean jo behar du erakundera, eskubidea bidali eta jasotzea egiaztatzea ahalbidetzen duen bitarteko bat erabiliz, eta NANaren kopia erantsita.

10 eguneko epean erantzunik jasotzen ez badu, edo horrek asebetetzen ez badu, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan edo Espainiako Datuak Babesteko Agentzian erreklamazioa aurkez dezake, dena delako erakundeari datuak ezabatzeko eskatu izana egiaztatzen duten agiriak erantsiz.

4.- Ondorioak

Hori guztia aintzat harturik, ondorioztatu behar dugu udal administrazioaren jardueraren zuzenbidearen arabera izan dela, eta ezin dugu bete erreklamaziogileak eskatutakoa.

- Sarrerak bermatzeko errenta eta diru subsidioa etetea eta bidegabe kobratzea (erreg. zk.: 1595/11)

Bulegoan Gizartegintza Sailaren aurkako kexa jaso dugu, *sarrerak bermatzeko errenta eta diru subsidioa etetea eta bidegabe kobratzea* salatzeke.

Horri dagokionez, Gasteizko Udalak txosten hau igorri zigun, eta guk herritarrari helarazi genion, baliagarri izango zitzaizkion.

“Eskatzaileak 2009ko maiatzaren 28az geroztik jasotzen du sarrerak bermatzeko errenta.

2011ko uztailaren 4an, entzunaldiaren izapidean, hau jaso zen:

“Eusko Jaurlaritzaren beste prestazio bat jasotzen ari zela jakinik, baina ez zuela horren berri eman ezarritako epean, ez oinarrizko gizarte zerbitzuan ez bulego honetan, adierazi genion hori prestazioak eteteko arrazoia zela”.

2011ko uztailaren 20an, entzunaldiaren izapidearen erantzuna aurkeztu zuen San Antonio kaleko bulegoetan.

Aurkeztutako alegazioak ezetsi (tramitearen erantzuna eranstean dugu) eta abuztuan prestazioa emateari utzi genion, 2010eko uztailaren 1eko ondorioekin”.

Kasu honetan administrazioaren jardunbidea indarrean dagoen legediaren arabera izan dela esan daiteke, eta sentitzen dugu, baina herritarri jakinarazi genion Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiko 29. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ezin genuela aldeko ebazpenik eman.

- Etxez etxeko laguntza (erreg. zk. 1581/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du etxeko laguntza eskatu duela bere gurasoentzat eta ez diotela eman.

Azterketa eta Ebazpena

Sailari txostena eskatu eta senar-emazte horiek menpekoak direnez eskumena Aldundiari dagokiola jakinarazi digute.

- Atzerapena gizarte langileekiko hitzorduetan eta ondorioz laguntzak berandu tramitatzea (erreg. zk.: 1306/10)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du gizarte laguntzen tramitazioaren atzerapena, zenbait hitzordu bertan behera utzi dituztelako.

Azterketa eta Ebazpena

Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailak bidalitako txostena aztertu eta egiaztatu dugu hitzordu batzuk bertan behera utzi zirela, baina beste prestazio mota batez bete dituztela haren beharrianak.

- Senar errefuxiatuarengatiko laguntzak bertan behera uztea (erreg. zk.: 1587/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du gizarte laguntzak eten dizkiotela, errefuxiatuta duen senarrari dagokionez errolda aldatu delako.

Azterketa eta Ebazpena

Sailak txostena bidali ondoren, haien jokaera zuzena izan dela uste dugu, erabiltzaileak ez ziolako jakinarazi zerbitzuari bere senarraren errolda egoera, elkarbizitza unitatearen kidea baita.

- Gizarte laguntzak bertan behera uztea, sarreraren aldaketak ez jakinarazteagatik (erreg. zk.: 1531/11)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du bidegabe kobratutakoa erreklamatzeko diotela, enplegutik sortutako sarrerak direla eta.

Azterketa eta Ebazpena

Sailak txostena bidali duelarik, jakin dugu herritarrak ez ziola zerbitzuari jakinarazi egoera ekonomikoaren aldaketa, eta horregatik aldatu dizkiotela prestazioen kopuruak, beharrezko balioespena egin ondoren.

- Gizarte laguntzak bertan behera uztea, datuak ezkatzeagatik (erreg. zk.: 1563/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du gizarte laguntzak eten dizkiotela datuak ezkatzeagatik, baina ez diotela esan zein diren.

Azterketa eta Ebazpena

Bulegora etorri den herritarrak salatu du gizarte laguntzak eten dizkiotela datuak ezkatzeagatik, baina berak ez dakiela zein diren.

Gizarte zerbitzuen txostenaren arabera, justifikatu gabeko sarrerak antzeman dituzte, jakinarazi gabeko maileguak eta ibilgailu baten salerosketa.

Datu horiek kontuan izanik, administrazioak zuzen jokatu duela uste dugu.

- Gizarte laguntzak ukatzea, diru baremoak gaintitzeagatik (erref. zk.: 1625/11)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu agertu zaigu, ordura arte jasotzen zituen laguntza ekonomikoak ukatu dizkiotelako.

Azterketa eta Ebazpena

behin herritarraren kexa entzun, eta auzian zerikusia duen Sailaren txostena aztertuta, ikusi dugu laguntzak tramitatzeko aintzat hartu izan den diru-sarreraren zenbatekoa ezarritako muga gaintitzen duela ikusi dugu. Beraz, administrazioak zuzen jokatu duela deritzogu.

- Udalaren “Biodantza” ikastaroetan sartzen ez uztea (erreg. zk.: 1535/11)

Erreklamazioa

Udalaren “Biodantza” ikastaroetara joaten zen emakume batek adierazi digunez, ikastaroetatik kanpo utzi dute berak ikastaroan istilu bat sortu izanagatik.

Azterketa eta Ebazpena

Udalaren erantzuna aztertu dugularik, ondo jokatu dutela iruditzen zaigu, izan ere emakume honek ikastaroetan jarraituz gero, taldearen dinamikari kalte egin diezaioke.

- Gizarte laguntzak ukatzea (erreg. zk.: 1658/12)

Erreklamazioa

23 urtetik beherako pertsona batek elikatzeko laguntzak diru xehean jasotzea ukatu diotela adierazi digu.

Azterketa eta Ebazpena

Indarrean dagoen araudiei jarraiki, herritarrak ez ditu eskari horretarako baldintzak betetzen. Hori dela eta, administrazioak jantokirako txartela ematen dio elikatu dadin, eta gizarte larrialdietarako laguntzak ostatatzeko.

- Gizarte laguntza etetea (erreg. zk.: 1505/11)

Erreklamazioa

Herritar batek adierazi digunez, eten egin diote jasotzen zuen prestazioa eta gaizki kobratutakoak eskatu egiten dizkiote.

Azterketa eta Ebazpena

Txosten hau igorri digu Gasteizko Udalak 2011ko apirilaren 20an, eta hala helarazi diogu herritarrari, baliagarri izango zaiolakoan.

“Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen ebazpena tarteko, familia honi eten egin zitzaizkion SBE eta etxebizitzarako prestazio osagarria 2010eko azaroan, ez zituelako alokairu ordainagiriak epe barruan aurkezten eta entzunaldian ez baitzen administrazioaren aurrera agertu (jakinarazpena etxebizitzara igorri zitzaion eta bertatik itzuli egin zuten helbide horretan ez baitzuten ezagutzen).

Gizarte laguntzaileak behar adina azalpen eman zizkion eta prestazioak berriz jaso artean aldi baterako laguntzak kudeatu ziren CARITASekin.

XXXX andreak 2011ko apirilaren 1etik jaso egiten ditu SBE eta etxebizitzarako prestazio osagarria”.

Kasu honetan, bada, administrazioaren jardunbidea indarrean dagoen legediaren arabera izan dela esan daiteke. EZESPENA

- Sarrerak bermatzeko errenta ukatzea (erreg. zk.: 1575/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Arabako Foru Aldundiaren 2010eko abenduaren 23ko ebazpen baten inguruko kexa aurkeztu digu herritar batek. Ebazpen horren bidez bertan behera geratzen da jasotzen zuen laguntza (diru-sarrerak bermatzeko errenta), eta horretaz gain, 1.950 euro eskatzen zaizkio gaizki kobratu izan duelako.

Ebazpena Arabako Foru Aldundiaren akordioa bada ere, garrantzitsua da Udaleko gizarte zerbitzuen txosten baten ondorio dela adieraztea. Hori dela eta, kasua aztertzeke eskumena dugula jotzen dugu.

Laburbilduz, hauexek dira herritarrak adierazitakoak:

- Herritarra Gizartegintza Zerbitzuak jakinarazi zizkion enplegu baterako hautatze probetara joan zen 2010eko ekainaren amaierako egunetan.
- Probak amaituta, emaitza handik gutxira jakinaraziko zitzaiola esan zioten.
- Uztailaren 17an mezu elektronikoa bat bidali zuen enpresara emaitza horien berri izateko.
- Abuztuaren 19an beste mezu bat bidali zuen eta ez zuen erantzunik jaso.

Berririk izan gabe igarotako denbora kontuan hartuta, abuztuaren 21ean hegazkin bat hartu zuen bidaia partikular bat egiteko. Barajaseko aireportuan zegoenean, pasadizoan, deitu egin zioten hurrengo egunean bertaratzeko adieraziz, bertan lan kontratua izenpetu behar zuela eta. Une horretan ezinezkoa zitzaiola erantzun zien.

2.- Arazoaren azterketa

Lehenik eta behin, kexa hori ebazpena eman zenetik ia urte betera iritsi zela kexa hori gure bulegora esan beharra dago; beraz irmo eta onartua zen. Hau nahikoa arrazoi izango litzateke guk esku hartzerik ez izateko.

Hala ere, interesgarri deritzogu kasu honetan justizia arloa argitzeari. Diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duen legean (18/2008 Legea) xedatuta dago erreklamaziogileak jakinarazten digun kasu hau. Honela dio laguntza jasotzeko baldintzen artean: lanerako gertutasuna eta administrazioarekin gizarteratzeko hitzarmen bat sinatu eta betetzeko behar ezinbestekoa. Baldintza hauek salbuespen oso zorrotzak dituzte.

Kasu honetan egia da enplegurako hautatze probako emaitza ezagutarazi arte behar baino denbora gehiago pasa zela, baina horrek ez du baliorik gabe uzten erreklamaziogileak enplegu bati uko egin izana. Erreklamatzaileak berak alde egin zuen hiritik, gizartegintza zerbitzuan horrelakorik jakinarazi gabe, eta hortik etorri zen enplegua hartzerik ez izatea.

Gertatutakoa interpretatzeko bidea diru-sarrerak bermatzeko errentaren printzipioan da: diru-sarrerak bermatzeko errenta laguntza pertsonala da, gizarteratzeko konpromisoan eta lanerako

gertutasunean oinarrিতua dagoena. Hori dela interesdunak lankidetzan aritu eta komunikazio leiala izan behar du Gizartegintza Sailarekin. Kasu honetan ez da jarrera hori eman, edo ez behintzat eskatutako mailan.

Adierazitakoa kontuan hartuta, ezin dugu kexa onartu.

- Baremoak gainditzeagatik laguntzak ukatzea (erref. zk.: 1651/12)

Erreklamazioa

Herritar bati ukatu egin dizkiote laguntzak ezarrita dauden baremoak gainditzeagatik eta salatu egin du.

Azterketa eta ebazpena

Gizartegintzako txostena jaso dugu eta sailak zuzen jokatu duela ikusita, ezetsi egin dugu.
EZESPENA

- Gizarte laguntzak ukatzea (erreg. zk.: 1658/12)

Erreklamazioa

23 urtetik beherako pertsona batek elikatzeko laguntzak diru xehean jasotzea ukatu diotela adierazi digu.

Azterketa eta Ebazpena

Indarrean dagoen araudiei jarraiki, herritarrak ez ditu eskari horretarako baldintzak betetzen. Hori dela eta, administrazioak jantokirako txartela ematen dio elikatu dadin, eta gizarte larrialdietarako laguntzak ostantatzeko.

b) Orientabidea

- Laguntzak ukatzea: bertan ez bizitzeagatik (erreg. zk.: 1491/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du gizarte laguntzak ukatu dizkiotela “benetako bizileku ez duelako izan, etengabe urtebetez, udalerrian”.

Azterketa

Erabiltzailearekin elkarrizketatu gara eta agiri bat erakutsi digu, benetako bizilekua izan duela frogatzeko balioa izan nahi duena; horretan EAEko udalerrri batean urtebetez, gutxienez, benetako bizilekua izan duela jasotzen da, baina adierazi diogunez agiri horrek ez du froga izaera. Gizarte langileak zuzen jokatu du.

Ebazpena

ORIENTAZIOA

- Laguntzak etetea: agiriak ez aurkezteagatik (erreg. zk.: 1492/11)

Erreklamazioa

Herritar batek gure bulegora jo du ematen zizkioten gizarte laguntzak emateari utzi diotela adierazteko, eskatu zioten dokumentazioa ez zuelako aurkeztu, baina berak baietz esaten du, nahiz eta ez zituzten agiriak erregistratu.

Azterketa

Gizarte Zerbitzuek zuzenketa egin dutela jakinarazi diogu, eta berriro eskatzeko epearen barruan dagoela adierazi ere.

Ebazpena

ORIENTAZIOA

- Udalarekiko zorra eta gizarte laguntzak bahitzea (erreg. zk.: 1539/11)
- Lan Ministerioak bidegabe kobratutakoak erreklamatzeari (erreg. zk.: 1580/11)

Erreklamazioa

Herritar batek gure bulegora jo eta azaldu digu Lan Ministerioak diru-kopuru bat erreklamatzeko diola, langabezia subsidioa eta gizarte laguntzak jaso ondoren behar gabe kobratu omen zituelako.

Azterketa eta ebazpena

Herritarrarekin hitz egin eta "Lan Ministerioa" ez dela gure eskumenen barruan sartzen adierazi diogu. "Doako justizia" izeneko orientazio juridikorako zerbitzura jotzeko esan diogu, haien balioets dezaten.

ORIENTAZIOA

- Gizarte laguntzak bertan behera uztea, lan batean "borondatezko baja" eskatzeagatik (erref. zk.:1634/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du bertan behera utzi diotela gizarte laguntza, bere lan egoerako aldaketak ez jakinarazteagatik.

Azterketa eta ebazpena

Herritarrak aurkeztutako informazioa aztertu dugu; besteak beste, lan eskaintza "hobe" bat jaso ondoren, aurrekoan borondatezko baja eskatu duela esan digu.

Horixe da gizarte langileari iritsi zaion informazioa, hain zuzen ere laguntzak etetearen arrazoia, Zerbitzuari jakinarazi behar zion eta.

c) Gomendioa

- Laguntzak etetea: enplegu eskatzaile gisa ez egotea (erreg. zk.: 1481/11)

Erreklamazioa

Gure bulegora jo eta gizarte laguntzak eteteaz aparte, kobratu behar ez zituenak itzultzeko eskatzen dizkiotela adierazi digu herritar batek; enplegu eskatzaile gisa ez agertzeagatik ezin omen ditu kobratu, baina haren egoitza baimenean EZIN DU LAN EGIN jartzen du.

Azterketa eta ebazpena

Gora jotzeko errekurtsioa lantzen lagundu diogu Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurkez dezan. IDAZKI LAGUNDUA

- Gizarte laguntza ukatzea (erreg. zk.: 1504/11)

Erreklamazioa

Herritar batek (xxxx jaunak) bulegora jo du 2010-02-12an aitortu zizkieten diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako osagarria eteteko ebazpena bidali diotela jakinarazteko, eta horrekin lotutako agiriak ekarri ditu. Izan ere, baldintzetako bat ez du bete: elkarbizitza unitatearen titularrak zein lan egiteko adinean dauden gainerako kideek lanerako prest egon behar dute, eta enplegu-eskatzaile gisa etengabe izena emanda egoteko konpromisoa adierazi. **xxxxx emazteari errekerimendua egin zitzaion, baina lan egiteko adinean dagoen unitateko kidea izan arren EZ du Espainian lan egiteko baimenik.**

Azterketa

xxxxx-k Gasteizko Udalarekin izenpetutako gizarteratze hitzarmenean argi adierazten da pertsona horren emaztearen egoera hitzarmenari dagokionez, horrela baitio: *“Jatorri marokiarreko familia, senar-emazteek eta 2 ume txikik osatua. xxxx-k egoitza eta lan baimenak ditu, eta xxxx emazteak, egoitza baimena bakarrik”*. Horrenbestez, lortu beharreko helburuetan xxxx-k INEMeko txartela eguneratua izateko beharra baino ez da aipatzen (EZ da emazteaz hitz egiten). Hala ere, Foru Aldundiak laguntza eten zion emazteak –zeinak ez baitu lan egiteko baimenik– INEMeko txartela zigilatu behar zuelako enplegu eskatzaile gisa.

Adierazitako eta egiaztatutako gertakari horiek kontuan izanik, berriro ere, babesgabezia juridikoaren egoeraren aurrean gaudela uste dugu, horretan parte hartzen duten administrazioek eraginda; gobernu zentralak lan egiteko debekua ezarri du, Udalak INEMen aurrean lan eskatzaile gisa agertzeko eskatzen du, eta INEMen eta Lanbideren artean ez dago adostasunik jokatzeko moduz.

2011ko abuztuan, emazteak enplegu eskatzaile izatearen ziurtagiria lortu zuen, non adierazten baita altan dagoela; orain, aldatu berria denez horri dagokion araudia –horren berri eman diote Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuek–, lan eskatzaile gisa agertzen da eta LANBIDEn bulegoetan zigilatu dezake.

Ebazpena

Gure ustez, bidezkoa da Gasteizko Udalaren Gizarte Zerbitzuek emandako txostena, Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeak erabaki hori har dezan eragin duena, aldatzea, eta

herritarrak adierazitako inguruabar pertsonalak kontuan hartzea; izan ere, bera EZ da sortu den egoeraren erantzule, ezta erruduna ere, eta bidegabekeria da, gure ustez, gizarte laguntzak etetea arrazoi hori dela kausa.

Gure GOMENDIOA da, irizpide argi eta segurua finkatu dadin, lan baimenik ez duten pertsonak enplegu eskatzaile gisa izena eman behar edo ahal izatearen inguruan, noiz eta zein baldintza nahiz eraginekin egin behar den hori guztia.

Eta GOMENDATZEN dugu Gizarte Zerbitzuek **Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeak aipatu prestazio ekonomikoak eteteko eman zuen ebazpena bertan behera geratzearen aldeko txostena eman dezaten, eta atzera eraginez ordain diezazkiotela; horrenbestez, erabiltzaileak ebazpen haren kontra egindako errekurtsioa aldeztu dugu.**

- Gizarte laguntzak etetea eta jakinarazpen akastuna (erreg. zk.: 1521 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar bat –xxxxxxxxxxx- kexu da, eten egin dizkiotelako gizarte laguntzak, inoiz jakinarazi ez dioten entzunaldi tramite bati jaramonik ez egitearen argudiopean. Gutuna bidali ostean, itzuli egin zen; ez diote inoiz eman izan.

Hitzez hitz, hauxe dio herritarrak:

“San Antonio kaleko bulegotik ez zidaten gutuna berriro bidali, ezta tramite horren berri beste inolaz ere jakinarazi, ez e-postaz, telefonoz, telegramaz... konturatu behar ziren ezin izango nintzela entzunaldi tramitera agertu, ez naizelako aztia, ezin dudalako jakin norbait niri gutun bat eman nahian zebilela, lortu ezinik.

Correosen laguntzaz inoiz ez zidatela gutuna bidali egiaztatu ahal izango nuen, laguntzak etetean, administrazioak huts egin zuela onar zezan laguntzeko eskatu egin nien (izan ere, oraindik ere badirauten ondorio latzak eragin dizkidan akats larria egin zuen), edo trukean, akatsik gabeko jardunbide zuzena egin zutela erakuts diezadatela.

Defendatzeko argudio-bidea prestatzeko 5 hilabete baino gehiago izan zuenez, jakintzak eman nuen administrazioak lege, araubide eta erregelamendutan oinarrituko zuela hura, zeinen

bitartez ni konturatu ahal izango nintzen zuzen jokatu zutela. Laguntzak kentzearen arrazoi artikulu, arau, erregela eta legeak aipa zitzatela nahi nuen. Antzeko kasuren bat aipatuko zuela pentsatzen nuen, hartara erabakia zentzuzko eta irizpideduna zela egiaztatzeke, ez zela arbitrarioko hartua. Gainera ,nirearen antzeko kasuak aipatu eta aurrez aurre jarriko zizkidala uste nuen, fede gaiztoz jokatzen dutela egiaztatzeke eta — prebarikazio susmorik txikiena ere baztertzeko.

Nirearen antzeko kasuetarako (hau da, gutun bat hartzaileari entregatu ez, eta itzuli egiten denerako) jarraitu beharreko protokolorik ba ote den jakin nahi nuke. Halakoetan, zein urrats jarraitzen dira?, errespetatu al dira urratsok nire kasuan? Egiazta diezadatela nahi dut, eta egiaztatu ezan, onar dezatela funtzionarioen baten jarduera ez oso profesionalaren erruz kaltetu egin nautela. Lehen saioan gutunik ematea lortu ezean, inoiz herritarren bati entzunaldi tramiterako jakinarazpena berriro bidali izan badio administrazio honek, edo harekin beste nolabait harremanetan jartzen saiatu baldin bada, tratu berbera eskatzen dut niretzako.”

2.- Arazoaren azterketa

Ez da ohiz kanpoko ez interesatuari, ezta udal administrazioari ere egotzi ezineko arrazoiengatik huts egin duten jakinarazpenen ondorioz laguntzak jasotzeko prozesuan arazoak izatea, eta onuradunei kalte larriak eragitea.

Jakinarazpenek legez bete beharreko betekizunak 30/92 legean xedatzen dira; kasu honi dagokionez, honakoak dira:

1.- Jakinarazi egingo zaizkie interesdunei beren eskubide edo interesak ukitzen dituzten administrazioaren ebazpenak eta egintzak.

2.- Jakinarazpenak egiteko edozein bide erabil daiteke, beti ere interesdunak edo bere ordezkariak hartu izanaren agiria jasota geratzen bada, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada.

3.- Egindako jakinarazpenaren egiaztatzea espedienteari atxikiko zaio.

4.- Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, eskabidean jarri duen tokian egingo da jakinarazpena. Horra bidaltzerik ez badago, jakinarazpenerako egokia den beste tokiren batean, **beti ere interesdunak** edo bere ordezkariak **hartu izanaren agiria jasota geratzen bada**, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada. Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin eta interesduna ez badago, bizilekuan dagoen edozeinek har dezake, nor den jasota uzten badu.

Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da. Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez beste ordu batean, berriz saiaturik dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik.

Bizilekuan jakinarazteak huts egiten duenerako, Legeak jakinarazpena ediktu bidez egitea aurreikusten du, esku artean daukagun kasuan ALHAOn.

Kasu honetan ez dugu jakinarazpena egiten bi aldiz saiatu izatearen berri, ezta ediktu bidez egin denik ere; edonola ere, gure aburuz egiaztatuta dago interesatuari leporatzen zaion tramiteari huts egitea ez dela bere errua izan, ez baitzuen jakinarazpenaren berri izan. Jakinarazpenik jaso ez zuenez, ezin izan zituen administrazioak egozten zizkion alokairu-kontratuko sinaduraren akatsaren gorabeherak –zeinak administrazioari zalantzak piztu baitzizkion– behar bezala azaldu.

Gure aburuz, edonola ere, entzunaldi tramitera berriro deituta, bere egoera argi eta garbi azaltzeko aukera eman ahalko zaio interesdunari, bai eta gizarte laguntzak jasotzeko betekizunetan ez duela inolako irregulartasunik egin egiaztatzeko ere.

3.- Ondorioak

Auziak bi GOMENDIO ematea eskatzen digu:

1.- GOMENDIO partikular bat, xxxxxxxxxxxx-ri buruzkoa, interesatuari eskainitako hurrengo entzunaldi tramitean gizarte langilearen aurrean administrazioak eskatutako gorabeherak justifika ahal ditzan, eta, behin eskatzailearen fede ona egiaztatuta, gure ustean bidezkoa ez den gizarte laguntzen etetea indargabetu dadin.

2.- GOMENDIO OROKOR bat, Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailak posta arruntaren bidez gain, eta hura osatzeko, POSTA ELEKTRONIKOA ere erabil dezan –baldin eta herritarrak halakorik badu–, jakinarazpenak huts egitea galarazi asmoz.

Aintzat hartu behar da zeinen ondorio larriak eragin diezazkien huts egindako jakinarazpenek laguntzen hartzaileei. Gizarte laguntzen eskatzaile askok posta elektronikoa dute, hain zuzen ere jakinarazpenaren berri zalantza izpirik gabea uzteko aukera ematen duen bitartekoa, zeina erraztasun osoz erabili daitekeen administrazio prozeduretan.

Hori dela eta, 30792 Legeak ematen du beste komunikabide batzuk erabiltzeko aukera: *Jakinarazpena ezin daitekeenean etxera bidali, jakinarazpenerako egokia den beste tokiren batean, **beti ere interesdunak** edo bere ordezkariak **hartu izanaren agiria jasota geratzen bada**, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada.*

Premia biziko beharrei erantzuteko gizarte laguntzak kolokan daudenean, administrazioa ahalik eta gehien saiatu behar da akats burokratiko huts batek herritarrei kalterik eragiteko aukera oro galarazteko.

- Gizarte laguntzak etetea eta jakinarazpen akastuna (erreg. zk.: 1593 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

M. H. Udalaren gizarte zerbitzuen erabiltzailea kexu agertu da, jasotzen zituen gizarte laguntzak eten dizkiotelako berak errurik gabe JAKINARAZOPEN AKASTUN baten ondorioz, zeinean berak errurik izan ez duen, baina kaltetu egin duena.

Gizarte laguntzen etena berrikustea eskatu du, egiaztatzerik baitezake jakinarazpen akastunaren atzean ez dagoela berari lepora dakioken errurik batere, gizarte laguntzen auzietan ediktu bidezko jakinarazpena ezin delarik zuzentzat jo,

2.- Arazoaren azterketa

Ez da ohiz kanpoko ez interesatuari, ezta udal administrazioari ere egotzi ezineko arrazoiengatik huts egin duten jakinarazpenen ondorioz laguntzak jasotzeko prozesuan arazoak izatea, eta onuradunei kalte larriak eragitea.

Jakinarazpenek legez bete beharreko betekizunak 30/92 legean xedatzen diraM; kasu honi dagokionez, honakoak dira:

1.- Jakinarazi egingo zaizkie interesdunei beren eskubide edo interesak ukitzen dituzten administrazioaren ebazpenak eta egintzak.

2.- Jakinarazpenak egiteko edozein bide erabil daiteke, beti ere interesdunak edo bere ordezkariak hartu izanaren agiria jasota geratzen bada, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada.

3.- Egindako jakinarazpenaren egiaztagiria espedienteari atxikiko zaio.

4.- Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, eskabidean jarri duen tokian egingo da jakinarazpena. Horra bidaltzerik ez badago, jakinarazpenerako egokia den beste tokiren batean, **beti ere interesdunak** edo bere ordezkariak **hartu izanaren agiria jasota geratzen bada**, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada.

Jakinarazpena interesdunaren bizilekuan egin eta interesduna ez badago, bizilekuan dagoen edozeinek har dezake, nor den jasota uzten badu.

Bizilekuan jakinarazpenaz arduratzeko inor ez badago, hala jasoko da espedientean, eta, horrez gainera, jakinarazpena emateko saioa zein egunetan eta zein ordutan egin den ere idatziko da.

Hurrengo hiru egunetako batean eta aurrekoa ez beste ordu batean, berriz saiatuko dira jakinarazpena ematen, beste behin bakarrik.

Bizilekuan jakinarazteak huts egiten duenerako, Legeak jakinarazpena ediktu bidez egitea aurreikusten du, esku artean daukagun kasuan ALHAOn.

M. H.ren kasuan ez dugu jakinarazpena egiten bi aldiz saiatu izatearen berri, ezta ediktu bidez egin denik ere; edonola ere, gure aburuz egiaztatuta dago interesatuari leporatzen zaion tramiteari huts egitea ez dela bere errua izan, ez baitzuen jakinarazpenaren berri izan. Jakinarazpenik jaso ez zuenez, ezin izan zituen administrazioak egozten zizkion alokairu-kontratuko sinaduraren akatsaren gorabeherak –zeinak administrazioari zalantzak piztu baitizkion– behar bezala azaldu.

Gure aburuz, edonola ere, entzunaldi tramitera berriro deituta, bere egoera argi eta garbi azaltzeko aukera eman ahalko zaio interesdunari, bai eta gizarte-laguntzak jasotzeko betekizunetan ez duela inolako irregulartasunik egin egiaztatzeko ere.

3.- Ondorioak

Auziak bi GOMENDIO ematea eskatzen digu:

1.- GOMENDIO partikular bat, M. H.ri buruzkoa, interesatuari eskainitako hurrengo entzunaldi tramitean gizarte langilearen aurrean administrazioak eskatutako gorabeherak justifika ahal ditzan, eta, behin eskatzailearen fede ona egiaztatuta, gure ustean bidezkoa ez den gizarte-laguntzen etetea indargabetu dadin.

2.- GOMENDIO OROKOR bat, Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailak posta arruntaren bidez gain, eta hura osatzeko, POSTA ELEKTRONIKOA ere erabil dezan –baldin eta herritarrak halakorik badu–, jakinarazpenak huts egitea galarazi asmoz.

Aintzat hartu behar da zeinen ondorio larriak eragin diezazkien huts egindako jakinarazpenek laguntzen hartzaileei. Gizarte-laguntzen eskatzaile askok posta elektronikoa dute,

hain zuzen ere jakinarazpenaren berri zalantza izpirik gabea uzteko aukera ematen duen bitartekoa, zeina erraztasun osoz erabili daitekeen administrazio prozeduretan.

Hori dela eta, 30792 Legeak ematen du beste komunikabide batzuk erabiltzeko aukera: Jakinarazpena ezin daitekeenean etxera bidali, jakinarazpenerako egokia den beste tokiren batean, **beti ere interesdunak** edo bere ordezkariak **hartu izanaren agiria jasota geratzen bada**, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada.

Premia biziko beharrei erantzuteko gizarte-laguntzak kolokan daudenean, administrazioa ahalik eta gehien saiatu behar da akats burokratiko huts batek herritarrei kalterik eragiteko aukera oro galarazteko.

- Eskabideei ez erantzutea (erreg. zk.: 1635/11)

III. ARAZOAREN AURKEZPENA

Herritar bat gure bulegora etorri da, Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailak 2011ko AZAROAREN 03an eta 07an aurkeztu zituen eskabideei ez duela batere erantzunik jaso salatzeraz (eskabideak eransten ditu).

IV. AZTERKETA

Herritarra Sindikoaren bulegora etorri zen eta gai horrekin lotutako agiriak ekarri zituen: “2011ko OTSAILAREN 14an gertakari horiek salatzeko idazkia aurkeztu zuen. Udalak erantzun ez dionez, Herritarren Defendatzailearengana jotzea erabaki zuen, 2011ko abenduaren 02an, haren bitartekaritza eskatzeko”.

2012ko urtarrilaren 16an oraindik ez du Administrazioaren erantzunik jaso, ez aldeko ez kontrakorik.

Gure ordenamendu juridikoan administrazioaren isiltasunaren figura jasotzen da, herritarrak nahi izanez gero administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko aukera izan dezan.

Dena den, laburra bada ere, erantzun *adierazi* eta arrazoitua jasotzeko eskubidea du beti, administrazioak aurkeztutako eskaera onartzen duen edo ez adieraziko diona.

Hauxe dio Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 42. artikulua:

42.1. art.- *Administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere.*

42.3. art.- Prozeduretako arauetan jakinarazpena jasotzeko gehienezko eperik ezartzen ez denean, hiru hilabetekoa izango da.

Herritarrei dagokion jurisdikziora jotzeko aukera ematea du helburu administrazioaren isiltasunaren figurak, baina horrek ez du baztertzen herritarren eskabide eta idazkiei berariaz erantzun nahiz halakoak ebatzi beharra.

III. ONDORIOA

Igaro den denbora kontuan izanik, eta gaian –aurkeztutako salaketan eta erabiltzaileak egindako alegazioetan– sakondu gabe ere, Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailari **GOMENDATZEN DIOGU** berariaz ERANTZUN diezaiola erabiltzaileari, eta, behar diren azalpen eta arrazoiak emateaz batera, haren alegazioak aintzat harturik, egin zuten eskabidea onetsi ala ezetsi egingo dion jakinaraz diezaiola.

- Laguntzailerik gabeko adingabeak (erreg. zk.:1643 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Plataforma Alavesa de Apoyo a Jóvenes Extranjeros/as plataformak (aurrerantzean, PAAJE) honako kasu hau planteatu digu:

“Plataforma Alavesa de Apoyo a Jóvenes Extranjeros/as plataformako kideak oso kezkatuta gaude Arabako Foru Aldundiak, Adinaren Fiskaltza Dekretua kontuan hartuta, kanporatzen dituen atzerritar adingabeak segurtasun-falta juridikoko eta gizarte-bazterkeriako egoeran geratzen direlako. Testuinguruan kokatzeko:

- 2010. urtean, IZAN taldeko Ixuri enpresak kudeatutako “Bideberri” Adingabeak Babesteko Zentroko adingabeak kalera irten ziren jasotzen ari ziren tratu

txarra salatzeke, bai neurrigabeko zigorreatatik, bai eskubidez zegoen Tutoretza Ziuertagiria ez emateagatik. Horrez gain, gazteek Adingabeko Kontseiluaren salaketak jasotzen zituzten, ustez "dokumentazioa faltsutzeagatik".

- Arartekoak, Fiskaltzak... Batzar Nagusietan parte hartu eta gertatutakoari buruzko azalpenak eskatu zituzten. Arabako Foru Aldundiko Adingabekoaren Kontseiluak faltsifikazioari buruzko epaietak galdu zituen (ez dago gazteek pasaporteak aldatu izanaren frogarik). Azkenik, Tutoretza edo Tutoretza Ziuertagiriak eman zitzaizkien eta zentroko Hezkuntza Taldearen gazteekiko tratua apur bat hobetu egin zen. Horren ordainetan, hezur-adina kalkulatzeko metodoa "hobetu" eta horretarako protokoloa sortu zuten. Horren arabera, Fiskaltzak berak eskatu zuen probak egiteko: ezker eskumuturraren, ahoaren eta klabikularen erradiografia eta auzitegiko medikuaren azterketa fisikoa. Adina Fiskaltzaren Dekretuan islatuta geratu ohi da.

- 2010eko abenduaz geroztik gazteak kanporatzen hasi ziren Dekretuko adinaren data lehenetsiz pasaporte adinarekiko, nahiz eta hori polizia zientifikoak balioztatuta egon "Benetako" dokumentu gisa.

- Nahiz eta hasieran Orientazio Juridikoko Zerbitzutik doako justizia emateko zailtasunak egon, Tutoretza eta Abegi Etenari errekurtsio aurkezteko, azkenik ofiziozko abokatuarekin egitea lortu eta hala egin zuten.

- Ikusbide Elkartearen bidez kudeatutako "ELKARREKIN WAKILODEN" Orientazio Programatik, laguntza eskaini zitzaie babes-zentrotik kanporatu berri zituzten gazteei izapideak egiteko (Ikus Esku-hartze Protokoloa). Gazteekiko harremana asko galtzen zen, ordea, adinez nagusiak direnentzako Tutoretzapeko Ostatueta heldzen zirenean, etxebizitzako Hezkuntza Taldea arduratzen baitzen gauza guztien jarraipena egiteaz... Ofiziozko abokaturen batek, gazteak egoitza-baimena eskura zezakeela ikusita, errekurtsio ez aurkeztera bultzatzen zuen. Besteren batek badirudi ez zituela emandako epaiak irakurri ere egiten, erabilitako argudioek ez baitute zerikusirik erreferentziazko abokatuarekin erabilitakoekin, hala nola Albert Parés-ek Bartzelonan eta Nacho de la Mata-k Madrilan erabilitakoekin.

Gizarte-babesaren mailan:

-Urte guztian, abenduaren 2a artean, gazteak babes-zentrotik irteten zirenean, **Udalaren Aterpean (CMAS)** egiten zitzairen harrera, **Udalaren Gizarteratze Saileko Gizarteratze Ibilbideari** ekinda: aterpea, Vitoria Etxea, gazteentzako etxebizitza, alokairuko logelaren bilaketa, eta gutxi gorabehera 460 €ko prestazioaren izapidea 3 edo 4 hilabetez, espedientea eremuaren arabera dagokion Oinarrizko Gizarte Segurantzara desbideratzea eta gutxi gorabehera 650 €ko **Larrialdiko Udalaren Laguntza** izapidetzea, familiaren laguntzarik gabeko gazteen elikadurarako (nazio baitakoak edo atzerritarrak).

- 2011ko abenduaren 2an, Dekretuak ezarritako adin-nagusitasuna dela eta 5 gazte atera ziren: **ez zieten ez ostaturik, ez janaririk... eman.** - ostatuan 3 egun besterik ez zizkieten eman, hiria bisitatzera zetozen pertsonak izango balira bezala. Hauexek ziren emandako arauak: etorritako hiritik joatea... Denek 5 hilabete inguruko errolda zuten, Udalaren Lanerako Prestakuntza Zentrora joaten ziren ikastera egunero eta “jarrera ona” zuten.

Hori horrela, Gasteizko zenbait biztanlek gazteei kalean lo egiten uztearen edo geure etxeetara eramatearen arteko bi aukeren artean erabaki behar izan genuen. Bigarren aukeraren alde egin genuen.

- 2011ko abenduaren 7an, beste 4 gazte bota zituzten. Horiei Aterpea eskaini zieten, baina janaririk ez; bertan, Neguan Ostatu Emateko baliabidea (DAI) dago, neguko hilabeteetarako soilik.

- 2011ko abenduaren 15ean, beste gazte bat bota zuten, horri ere ez zioten janaririk eman, baina bai Aterpea (DAI). Badirudi Aldundiaren kanporatzeko protokoloa aldatu egin dela eta zentrotik bertatik, **bi hezitzailek gazteari lagundu zioten Atzerritartasun Poliziarengana joaten eta, han, KANPORATZEKO AGINDUA zabaldu zioten.** 500,1 €-ko isunagatik aldatu zioten. Isuna ordaindu arte ez diote pasaportea itzuliko eta, beraz, ezingo du eskubidez dagokion egoitza-baimena eskuratzeko prozesuarekin jarraitu.

- 2012ko urtarrilaren 2an, astelehenean, Aldundiak beste 10 gazte bota zituen.

Gizarte Larrialdiko Udal Zerbitzura (SMUS) bakarrik joaten zirenez, egun bakarra ematen zitzaaien aterpean. Plataformako kideetako bat bertaratu zen eta Aterpe (DAI) zerbitzua astebetetz baino gehiagoz eta beste batzuei aterpea 3 egunez ematea lortu zuen. 3 egun horien ostean, berriro ere SMUS zerbitzura lagundu zitzaaien kalean geratutakoei eta presioa egin ondoren, Gasteizen geratutako gazte guztiek aterpean lo egitea lortu zuten; baita gure etxeetan hilabete baino gehiago izan ditugunek ere.

- Hori bai, Udalak ez dienez jaten ematen, gazte horiek konprometitutako lagunen ekarpenei esker jaten dute egunean behin gutxienez.

2.- Arazoaren azterketa

Lagundu gabeko atzerritar adingabekoekin (MENA-Menores Extranjeros No Acompañados) zerikusia duten gizarte-babeseko jarduerak Tutoretza edo Abegi Administrazio gisa jarduten duen Foru Aldundiaren eskumenekoak dira.

PAAJE plataformak planteatutako gaia Gasteizko Udalaren eskumen alorretik kanpo dago printzipioz eta, beraz, baita ordezkaritza honetatik kanpo ere. Adingabekoaren Kontseiluaren, Fiskaltzaren eta Foru Zerbitzuen jarduera baloratzea eskatzen du arazoak.

Hala eta guztiz ere, BADA Udalaren eskumenei eragiten dien kasuaren inguruko alderdi bat eta horren inguruko iritzia eman dezakegu. Lagundu gabeko adingabekoek jaso beharreko tratamenduari buruzkoa da, hain zuzen, alderdi hori, tutoretza edo abegiko ziurtagiria izanik abegi- eta gizarteratze-prozesua ez dutenean adinez nagusiak direnean modu normalean amaitzen, modu anomaloan edo ezohikoan baizik; Fiskaltzak Dekretu bidez, alde zuzeneko mediku-azterketak eginda, pasaportean eta ekarritako dokumentazio ofizialean azaltzen den MENAren adin ofiziala ezeztatu eta zuzentzen du.

Ezohikoa eta anomaloa den egoeraz ari gara, erreklamatzailaren gertakarien kontakizunaren arabera, PASAPORTEAN jasotako adin ofiziala jatorrizko herrialdeko

dokumentu ofizialarekin bat baitator eta poliziaren txosten bidez ziurtatuta baitago ez dela manipulatu eta faltsutu eta, beraz, hasiera batean baliagarria da. Pasaportean jasotako adin ofizialaren eta mediku-azterketa bidez zehaztutako eta Fiskaltzak dekretatutako hezur-adinaren arteko desberdintasuna ez da MENAri egozgarria, izatekotan jatorrizko herrialdeetako administrazio-zerbitzuen akats edo gabeziei baizik.

Foru Aldundiak kudeatutako babes- eta gizarteratze-ibilbidetik, Fiskaltzaren dekretu bidez, kanporatutako adingabekoen adinez nagusiak direla jotzeagatik, Foru Aldundiak adingabekotasuna modu normalizatuan amaitzen duten MENA adingabekoentzako aurrez ikusitako abegi ondoko ibilbidea ere etenda izaten dutela da sortu den arazoa.

Ibilbidea adingabeko gisa amaitzen duten MENA adingabekoen ABEGI ONDOKO zenbait neurri izaten dute, behin adinez nagusiak direnean, hau da:

Abegi-baliabideetan aldi aldakorrak igaro ostean, bizitza autonomoari aurre egiten dieten gazteentzako laguntza. Tutoretza-laguntzan datza eta zenbait kasu jakinetan, prestazio ekonomikoak izapidetzean.

Adingabekoaren eta familiaren alorreko programetan eskuratutako gaitasun pertsonalak eta bestelako gaitasunak praktikan jartzean datza, babes-sistemetan lotura bermarekin mozteko.

Hauei zuzenduta:

Denbora aldakorra abegi-baliabideren batean igaro duten eta adinez nagusiak diren edo adin nagusitasunetik hurbil dauden gazteak.

Printzipioz eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzten edo bete ditzaketen MENA adingabekoen egoera hori da, hain zuzen, Fiskaltzaren dekretuari jarraiki egoitza-abegia kendu zaienean.

18 urte izatea edo adin horretatik gertu egotea.

Gazteak programan onartua izatea eskatzea.

Balioespen batzordeak Adingabekoen eta Familien Arloko kasu koordinatzailearen proposamenaren balorazio positiboa egiteak, aurretiaz jatorrizko baliabidearen profesionalen balorazio eta proposamena jaso direlarik.

Tutoreen jarraipenak berekin dakartzan baldintzak onartzea.

Aurretiazko baliabideetan programa probetxuz baliatuko duela bermatzeko, nork bere burua zaintzeko trebetasun sozial eta auto-kudeaketari buruzkoak eskuratu izatea.

Gizarteratze eta laneratze prozesu bat hasi izatea.

MENA izandakoek eskuratu ahal izango lituzketen Udalaren baliabideak horretarako baldintza espezifikoak beteta izango litzateke, betiere:

1) **Harrera Udalaren Aterpean (CMAS), Udalaren Gizarteratze Saileko Gizarteratze Ibilbideari** ekinda (aterpea, Vitoria Etxea, gazteentzako etxebizitza, alokairuko logelaren bilaketa).

2) Dagokionean, gutxi gorabehera 460 €ko prestazioa 3 edo 4 hilabetez izapidetzea eta eremuaren arabera Oinarrizko GSri espedientea desbideratzea.

3) gutxi gorabehera 650 €ko **Larrialdiko Udalaren Laguntza izapidetzea** hala dagokionean, familiaren laguntzarik gabeko gazteen elikadurarako (nazionalak edo atzerritarrak).

PAAJE plataformaren keza honetan oinarrizten da: Fiskaltzaren dekretu bidez Adingabekoaren Kontseiluaren mendeko tutoretzako foru-sistematik kanporatzen dituzten MENA adingabekoei laguntza horiek guztiak ukatzen zaizkie eta hirira modu irregularrean iritsi berri diren eta adinez nagusiak diren gazte bezala tratatzen dituzte, beren egoeraz errudun sentiaraziz, gizarteratzeko aukerak bat-batean etenez eta arriskuan jarriz Lanerako Prestakuntza Zentroan egiten dituzten ikasketak (horien mende daude etorkizunean gizarteratzeko aukerak).

Nahiz eta inplikaturako administrazioek lehentasunezko balioa ematen dioten Fiskaltzaren dekretuari eta hezur-adinaren probari, MENA adingabekoaren pasaportean jarritako adin ofizialarekin alderatuta, justizia-auzitegiek ez dute beti irizpide hori

partekatzen eta jatorrizko herrialdeko dokumentua benetakoa denean, proba-balio handiagoa ematen diote³

3.- Ondorioak

Azaldutako horretatik, hainbat **ONDORIO** atera dezakegu:

1.- Jatorrizko herrialdeetan, adin ofizialarekin igorritako benetako pasaporte ofizialak dituzten MENA adingabeak topatzen ditugu. Ez dira adina aitortu nahi ez duten edo Gizarte Segurantzari iruzur egiteko adin faltsua aitortzen duten paperik gabe iritsitako MENA adingabeak. Hezur-heldutasunaren probak dokumenturik ez zuten eta beren adina aitortzen ez zuten pertsonen adina zehazteko egiten ziren bere garaian eta ez immigranteek jatorrizko herrialdeko benetako dokumentua ekartzen zuten kasuetarako. Gaur egun, Estatuko Administrazioaren arabera, zenbait herrialderi (ez dira aipatuko arazo diplomatikoak ez sortzeko) ezin zaio bere herritarren adina ziurtatzeko baliozkotasuna aitortu. Egoera horrek ondorio larriak ditu herrialde horietako adingabeak eta emigratutako herritarrentzat.

2.- Beren egoeragatik errudun sentiarazi ezin diren eta Espainian, ondorio guztietarako, adingabe gisa sartu diren pertsonak dira; administrazio publikoak tutoretza- edo zaintza-erregimenean hartu ditu, horrek dakartzan ondorio juridikoekin.

³ DEKRETOAREN AURREAN, PASAPORTEARI LEHENTASUNA EMATEAREN ALDEKO EPAIEN ZERRENDA.

1. 2007ko abenduaren 18ko 339 /07 epaia, Gipuzkoako Auzitegi Probintzialarena. 2. 2008ko uztailaren 24ko 182 / 08 autoa, Gipuzkoako Auzitegi Probintzialaren 1. atalarena.
2. 2009ko urtarrilaren 16ko 201 / 09 Autoa, Kanaria Handiko las Palmaseko Auzitegi Probintzialarena.
3. 2010eko maiatzaren 4ko 201 / 10 epaia, Madrilako Lehen Auzialdiko 1. Epaitegiarena.
4. 2010eko abenduaren 30eko 1039 / 10 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 16. Epaitegiarena.
5. 2011ko urtarrilaren 17ko 12 / 11 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 19. Epaitegiarena.
6. 2011ko martxoaren 18ko 406 / 10 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 16. Epaitegiarena.
7. 2011ko maiatzaren 2ko 106 / 11 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 19. Epaitegiarena.
8. 2011ko maiatzaren 2ko 107 / 11 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 19. Epaitegiarena.
9. 2011ko maiatzaren 6ko 201 / 10 epaia, Santanderreko Lehen Auzialdiko 1. Epaitegiarena
10. 2011ko maiatzaren 13ko 141 / 11 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 51. Epaitegiarena.
11. 2011ko maiatzaren 26ko 126 / 11 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 19. Epaitegiarena.
12. 2011ko ekainaren 8ko 286 / 11 epaia, Madrilako Lehen Auzialdiko 80. Epaitegiarena.
13. 2011ko ekainaren 14ko 171 / 11 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 51. Epaitegiarena.
14. 2011ko ekainaren 29ko 107 / 11 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 16. Epaitegiarena.
15. 2011ko uztailaren 13ko 424 / 11 epaia, Bartzelonako Lehen Auzialdiko 16. Epaitegiarena.

3.- Fiskaltzaren eskariz egindako hezur-adinaren txostenen arabera, kasu jakin batzuetan pertsona aztertuak **“18 urte edo gehiago dauzka”** azterketa egin egunean. Formula horrek EZ du Foru Aldundiak abegi eman zienean –orain bost hilabete– adingabeek 18 urtetik beherakoak zirenik ondorioztatzeko biderik ematen; beraz, ez dator zuzenbidearekin bat, eta ez da bidezko, aitorpenari atzeraeraginezko ondorioak eman, eta abegiak adingabeengan izan dituen ondorio juridikoak ukatzea. Sin entrar a discutir el valor de la declaración del Decreto de Fiscalía, en todo caso y tomándola en sus propios términos los MENA’s afectados por la misma, si bien pueden ser excluidos del acogimiento tienen derecho a beneficiarse de los programas de post-acogimiento previstos por la Diputación Foral para los menores que alcanzan la mayoría de edad. Es como si hubieran alcanzado la mayoría de edad de manera sobrevenida.

4.- Barne-arazoetako Ministerioaren irizpidea Espainian administrazio publikoek edo ebazpen judicial bidez beste edozein erakundek tutoretzapean hartutako adingabekoen egoitza arautzea izango da, ondorio guztietarako. Erregulartasun-aitorpen horrek ondorioak ditu behin adinez nagusiak direnean eta hala aurrez ikusita dago:

“- Arau bidez zehaztuko dira egoitza-baimena duten eta adin nagusitasuna lortzen duten tutoretzapeko adingabekoen bete beharreko baldintzak, baimena berritzeko edo egoitza eta laneko baimena eskuratzeko, kasuan kasu, kontuan hartuta ondorio horietarako eskumena duten erakunde publikoek aurkeztu ditzaketan aldeko txostenak, gizarteratzeko egindako ahaleginari, egiten ari diren prestakuntza edo ikasketen jarraitasunari eta lan-merkatuko txertaketa eraginkor edo potentzialari buruzkoak. Komunitate autonomoek adingabekoei adin- nagusitasunera heltzean lan-merkatuan sartzea ahalbidetzeko beharrezko politikak garatuko dituzte.

5.- Gasteizko Udalak ez du zuzeneko eta berezko eskumenik gai horretan, baina Foru Aldundiak bere eskumenez egindako erabileraren eraginak jasaten ditu. Hezur-adinaren txostenek “18 urte edo gehiago” dituztela zehazten duten MENA baztertzearen ondorio bakarra ez da Foru Aldundiak egoitza harrerako erregimenetik kanporatzea; horrez gain, adin nagusitasunera iristen direnek eskubide dituzten abegi-ondoko neurriak ere ukatu egiten dizkie, nahiz eta hori Fiskaltzaren dekretutik harago doan neurria izan. Izan ere, Fiskaltzaren dekretuak ez du inon esaten Arabara iritsi eta Foru Aldundiak abegi eman zien unean aztertutako gazteak adingabeak ez zirenik.

6.- Gasteizko Udala, Foru Aldundiaren jarduera bizkorraren aurrean, gazte ugariri laguntzeko beharraren aurrean aurkitzen da; ustez adinez nagusiak dira, duela

egun batzuk arte adingabekoak zirenak, gizarteratze-prozesuan daudenak (immigrante erregularizat hartu behar dira, bost hilabete daramatzate Gasteizen, gaztelania ikasi dute, lanbidea ikasten ari dira...), babes oro ukatzen zaie eta hirira modu irregularrean iritsi berri diren eta adinez nagusiak diren pertsonen arreta bera jaso behar dute.

Foru Aldundiaren jarduera larrialdi sozialeko egoerak sortzen ari da Udalaren Gizartegintza Zerbitzuetan. Izan ere, garrantzi kuantitatiboa eta izaera errepikakorra dutenez, zerbitzu horiek duten erantzuteko gaitasuna gaintitu egin dituzte eta horrek eragina jasan dutenentzat kaltea ez ezik, beste erabiltzaile batzuentzat zerbitzuaren kalitatea okertzea ekarri du.

7.- Gasteizko Udalak bizitegi-abegi oroz gabetutako MENA ohiei **zuzendu behar dizkie (eta hala egiten du)** eskatutako baliabideak (jangela, aterpea, Neguan Ostatu emateko Baliabidea) eta eskumenari dagokionez gizarte larrialdiko egoeran dauden helduentzako **eskuragarri dituenak**, kasu bakoitzari erregelamenduaren bitartez ezarritako erroldatzeko arau orokorrak aplikatuz, eta eskatzaileak euren egoitzabaimenen berriztapena tramitatzen ari direla aintzat hartuta..

8.- Administrazio publikoek ezin dituzte beren eskumenak garatu, beste administrazioetako eskumenei nola eragiten dieten haztatu eta baloratu gabe; ildo horretatik, hauxe xedatzen du 30/92 Legearen 4.1 artikulua:.../... ***“Ongi neurtu, norberaren eskumenak baliatzerakoan, ukitutako interes publiko guztiak, eta, zehazki, gainerako administrazioek kudeatu behar dituztenak”***. “

Haztapan horrek Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko koordinazio handiagoa eskatzen du gure ustetan eta Fiskaltzaren dekretuek eragindako eta adinez nagusizat hartu beharreko MENA adingabekoak bat-batean aintzat hartu gabe ez geratzea ekarri behar du ondorio; hau da, abegi hartzaile egoeratik PIXKANAKAKO irteera ez traumatikoa ahalbidetuko dien ***abegi ondoko ibilbidea*** eskuragarri izatea ekarri behar die. Irteera hori frogatu objektiboen bitartez justifikatua izan daitekeen arren, ezin izango da zigor gisa ulertu.

Gure iritziz, kontsiderazio horiek 2005eko otsailaren 18ko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Legearen 44. artikuluko aurreikuspenetan oinarrituta

daude, haurren eta nerabeen babesa ezin dela adin nagusitasunera heltzean bat-batean eten finkatzen baitu; aldiz, adingabe gisa laguntza jaso duten pertsoneri, adin nagusitasunera igarotzen laguntzeko programak jaso ditzatela –betiere aurrekontuek ahalbidetzen duten neurrian–. Eskubide hori adin nagusitasunera iristen diren MENA direlakoei ere aplikatu beharrekoa da. Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeak berak aurreikusten du –salbuespen gisa– abegi programei jarraipena ematea adin nagusitasunez harago, neurri hori sistematik pixkanaka ateratzen laguntzeko beharrezkoa denean.

4.- Azken gogoetak: GOMENDIOA

Aurrez adierazitakotik honako hau ondoriozta dezakegu: hezur-adinaren txostenek “18 urte edo gehiago” dituztela zehazten duten MENA adingabekoen kasuan gertatutako larrialdi sozialeko egoera ez duela berezko eskumenen arabera jokatzeko ari den Gasteizko Udalak eragin, baizik eta, Foru Aldundia Fiskaltzaren dekretuez egiten ari den interpretazioaren eratorpenak, gure ustez hedakorra eta atzeraeraginezkoa denak eta, beraz, okerrekoa.

Nolanahi ere, Gasteizko Udalari Foru Aldundiarekin dagokion koordinazioa eska dezala GOMENDATZEN diogu eta, kasuan kasu, kontsulta aurkeztea Eusko Jaurlaritzako Gizarte-politiketako Koordinazio-organoari⁴, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari, Fiskaltzaren dekretuen ondorioz adinez nagusi bilakatutako MENA adingabekoen kasuan aurrekontuetako erabilgarritasunaren arabera araututako abegi-ondoko neurri gabe gera ez daitezen eta horri esker aurreko egoeratik trantsizioa pixkanakakoa, ordenatua eta normalizatua izan dadin eta helduen bizitzara ahalik eta baldintzarik onenetan sar daitezen.

d) Gogorarazpena

- **Lan hautaketarako baremoak** (erreg. zk.: 1487/11)

⁴ Cfr Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua... Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 48. artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren sorrera finkatzen du eta erakunde horri egozten dio, beste funtzioen artean, honako hau: “Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hobekuntzarako gomendioak igortzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioaren Euskal Sistemaren testuinguruan bildutako datuetan oinarrituta egindako urteko txostenaren testuinguruan”.

Erreklamazioa

Gurekin harremanetan jarri da herritar bat eta bere ezinegona erakutsi digu, Garbinguru SL enpresarekin prestakuntza ikastaroa egin ondoren, **hautatzeko prestakuntzaren bigarren fasearen ondoren ez zutelako onartu, eta proba hori gainditzeko baliatzen diren beharrezko baremoen gaineko azalpen zehatzik ez ziotelako eman.**

Azterketa

Gasteizko Udaleko Gizarteratzearen eta Gizarte Gaien Zerbitzuarekin harremanetan jarri gara eta esan digunez “...hautaketaren lehen fasea (*elkarrizketak*) gainditu zuen eta hautatzeko prestakuntzan sartu zen. Prestakuntza fasea barematzeko moduari buruzko azalpena eskatu denez, *labur esanda, lana egiteko gaitasuna hartu da aintzat, jokaera, motibazioa eta erakutsitako interesa, prestakuntza osoan zehar*”.

Gainditu ez izanaren arrazoien inguruan horrelako azalpen orokorra ematea jardunbide ez egokitzat jotzen dugu. Administrazioen egintzak arrazoitzeko betebeharra administrazioak kontratatutako gizarteratze enpresaren hautaketa prozesuetan ere eskatu behar da; prozesu horiek ebazteko irizpideak ahalik eta objektiboak izan behar dira lanpostu bat eskuratzeko hainbat pertsona lehian ari direnean gardentasuna erabatekoa izan dadin eta konparazio bidegabekeriarik egon ez dadin.

Seguruenez, gizarte zerbitzuen ahalegin txikiak konpon daiteke egoera, hain zuzen, etorkizunean eman daitezkeen mota horretako kasuetan.

Ebazpena

Horregatik GOGORARAZPENA egin diogu sailari.

e) Bitarteko jarduera

- * Agiriak eskatzea gizarte laguntzetarako (erreg. zk.: 1591/11)

Erreklamazioa

Herritar batek gizarte laguntzen tramitazioaren atzerapena salatzen du, hainbatetan agiri batzuk eskatu dizkiotelarik ez baitu zergatia ulertzen.

Azterketa eta Ebazpena

Sailak bidalitako txostena aztertu ondoren, erabiltzaileari azaldu diogu zergatik eskatzen zizkioten agiriak, eta laguntzak dagoeneko bideratuta daudela.

- Gizarte laguntzak bertan behera uztea, sarrerak egiaztatzeko agiriak ez aurkezteagatik (erreg. zk.: 1584/11)

Erreklamazioa

Herritarrak gizarte laguntzak jasotzen ditu, eta noizean behin garbiketa enpresa batean egiten du lan. Nominak berandu ematen dizkiotenez, gizarte zerbitzuek prestazioak eten dizkiote.

Azterketa eta Ebazpena

Gure ustez, herritarraren jokabidea zuzena izan da, gizarte langileari bere lan egoeraren berri eman baitzion. Hala ere, ezin ditu sarrerak garaiz justifikatu, ez dituelako enpresaren nominak azkar jasotzen. Horregatik, Sailarekin harremanetan jarri gara, beste modu malguagoren bat (aurrezki-kontuaren sarrerak) balia dezaten eta hartara laguntzak eten ez diezazkioten, atzerapena ezin baitzaio hari egotzi.

Sailak bitartekaritza onartu du.

- Errolda faltsutzeak (erreg. zk.: 1585/11)

Erreklamazioa

Herritar batek bere etxean 6 pertsona ezezagun erroldatu direla salatu du.

Azterketa eta Ebazpena

Herritarrari entzun eta Errolda eta Hauteskunde Zerbitzuarekin elkartu ondoren, aurrez erroldatze horiek eragin dituzten iruzurrezko alokairu-kontratuak egongo zirela detektatu da eta, beraz, pertsona horien ofiziozko baja emateko eskaerari ekin zaio.

f) Bitartekaritza

- Laguntzailerik gabeko adingabe bati jantokirako txartela ukatzea (erreg. zk.: 1597/12)

Erreklamazioa

Laguntzailerik gabeko adingabe bati jantokirako txartela ukatu diotela salatu du.

Azterketa eta Ebazpena

Jantokirako txartela emateko premiazko ohar informatiboa idatzi dugu.)

g) Idazki lagundua

- INEMen laguntzak ukatzea (erreg. zk.: 1681 / 12)

Erreklamazioa eta azterketa

INEMen laguntzak ukatzea eta gaizki kobratutakoen eskaria.

Ebazpena

Gure eskumena ez bada ere, idazki bat egin diogu ukatzea bertan behera gera dadin.

h) Herritarrak berak itxia

- Elikaduragatiko laguntza ukatzea (erreg. zk.: 1653 / 12)

Erreklamazioa eta azterketa

Aterpeko ohiko erabiltzaileak adierazi digunez, elikatzeko laguntzak ukatu egin dizkiote.

Ebazpena

2.3.3.2- Errolda

a) Gomendioa

- Erroldatik bat-batean baja ematea (erreg. zk.: 1599 / 11)

Erreklamazioa

Herritar batek –JMFI, espainiar herritartasuna duena– eta haren emazteak –SDS, brasildar herritartasuna duena– kexa aurkeztu digute, SDSri Udal Erroldan ofiziozko baja eman ziotelako, hark, aspaldiko egoiliarak, EZ ZUELA EGOITZA BAIMENA BERRITU argudiatuta, Administrazioak berritu duela jakin badakien arren.

Azterketa

Ekintzaren jatorria Estatistika Institutu Nazionalaren jakinarazpen bat da, 2010eko urrikoa; haren bidez, Gasteizko Udalari aurretiaz ohartarazten dio SDSren egoitza baimena 2011ko otsailaren 26an iraungiko dela.

Jakinazpenaren oinarria Errolda Kontseiluak 2008ko ekainaren 27an osoko bilkuran hartutako erabakia da. Horren arabera, udalek aldian behin egiaztatuko dute erroldako izen-ematea, han ageri direnek oraindik bizilekua bertan al duten jakiteko;

herritar hauen kasua da: Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoko kide diren estatuetakoa herritarrak, bai eta Batasunaren Araubideko Egoitza Txartela eta Egoitza Baimen Iraunkorra dutenak ere.

Izan ere, herritar horiek ez daude Atzerritarren Erregistro Nagusian izena emanda, edo duela bost urte baino lehenago emandako Egoitza Txartela dute, eta beraz, iraungitzean berritu beharra dute.

Espainiako Estatistika Institutuak kasu bakoitzarentzat egiaztatzeko arrazoia jakinarazten dio Udalari.

Kasua argitzeko bidezkoa da gogoratzea Egoitza Baimen Iraunkorra bost urtean behin berritu beharra dagoela, eta iraungitze-data baino hilabete lehenago eskatu behar dela berritzeko. Iraungitze-data igaro eta hurrengo hiru hilabeteetan aurkezten diren berritze-eskabideak ere onartzen dira, dagokion zigorra ezarrita.

Iraungitzen denetik hiru hilabete igaro ondoren, ezin da baimena berritzea baimendu, inola ere. Orobat, interesduna sei hilabetez etenik gabe Espainiatik kanpo bizitzen egon bada.

Egoitza baimen iraunkorraren txartela berritzeko pasaportearen edo Espainian sartzeko agiri baliodunaren kopia aurkeztu behar da, edo indarrean dagoen inskripzio-zedula. Eskabidea aurkeztean, hura dagokion erakundearen aurkeztu izana egiaztatzen duen kopia zigilatua ematen da.

Berritzeko eskabidea legezko epeetan (60 egun lehenago edo iraungi ondoren 3 hilabeteko epean) aurkeztea nahikoa da berritu nahi den baimenaren baliozkotasuna automatikoki luzatzeko, eta hori lan arloan eta Gizarte Segurantzaren aplikatzeko da.

Errolda Kontseiluaren ebazpenaren arabera, emandako epean bizilekua baieztatu ezean, pertsona hori jadanik ez dela udalerrian bizi joko da, eta ofizioz baja emateko dosierra abiaraziko da.

Horrekin lotuta, Estatistika Institutu Nazionalak dagokion fitxategia bidali zuen, eta bertan zehazten dira honi erantsitako zerrendan ageri diren herritarren errolda-inskripzioa eta egiaztatzeko azken data.

1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugen Araudiaren 72. artikulua hau xedatzen du:

72. artikulua.

Udalek ofizioz emango diete baja, bidegabe inskribatuta egoteagatik, araudi honen 54. artikuluan ezarritako betekizunak [udalerrian benetan bizi izatea]bete gabe erroldan ageri direnei, dagokion dossierrean gorabehera hori egiaztatu ondoren, interesdunari entzunaldirako aukera emanda.

Aztertzen ari garen kasuan egaiztatuta geratu da pertsona horrek BERRITU egin zuela egoitza txartela, epe barruan berritu ere, eta benetako EGOITZA udalerrian izaten jarraitu duela. Ez zion egiaztatzeko errekerimenduari erantzun, baina abuztuan bidali ziotelako, bera oporretan zegoela.

Ofiziozko baja administrazio-bidean errekurritu dute.

Ebazpena

Ez dago argi egoitza berresteko eskabideari dagokionez 30/92 Legeak 58. eta 59. JAKINARAZPENETARAKO ezarritako betekizun guztiak bete diren, baina hori alde batera utzita, gure ustez, jasota dago garaiz eta behar bezala berritu zela erreklamaziogilearen egoitza baimena eta, beraz, egiaztatuta dagoela. Horrenbestez, kasuaren egiak izan behar du lehenasuna eta **bidezkoa da aurkeztutako administrazio-errekurtsioa onartzea eta ofiziozko baja baliorik gabe uztea**, ezin baita zigortu erroldako antzintasuna kenduz egoitza baimena berritzeko betebeharra zuzen bete duen egoiliarra, administrazioek –INEk kasu honetan– berritu izanaren berri zutelarik.

Egiaztapenaren errekerimenduaren jakinarazpenak huts egitea ezin zaio interesdunari egotzi, eta horrek ez du berez ukatzen egoitza baimena berritu zuela, ez

eta administrazioak bazekiela erreklamaziogilea Gasteizen bizi dela eta bertan bizi izan dela etenik gabe, haren errolda egoeran aldaketarik gertatu gabe.

Laburbilduz, INEk erreklamaziogilearen egoitza baimena bi hilabeteren buruan iraungitzekoa zela esanez aurretiaz egindako ohartarazpenak Udalak beharrik gabe jardutea eragin du, interesdunak garaiz eta behar bezala berritu baitzuen; INEk, ordea, ez zion berritzea jakinarazi Gasteizko Udalari.

b) Ezestea

- Ofiziozko baja Udal Erroldan (erreg. zk.: 1629 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

J.O.U izeneko herritarrak kexua aurkeztu du, udal erroldan baja eman diotelako ofizioz. Berak esandakoaren arabera, Gasteizko bere helbidea utzita, Barrundiara aldatu zen; alabaina, etxebizitzaren bizigarritasun arazoak tarteko, ez omen zen erroldan izena ematera ere iritsi.

Gasteizen lehen zuen bitokiaren jabeak abiarazita, erroldan ofizioz baja emateko prozedura hasi zen eta jakinarazi zitzaion bajaren berri, Ogasun eta Aurrekontu Arloko zinegotziak 2011ko maiatzaren 9an ediktu bidez.

Ez zuen ebazpenaren berri izan, eta kexu da Udalak ez ziolako zerga batzuk helbideratuta dituen gurasoen etxean jakinarazpenaren berri eman.

2.- Arazoaren azterketa

Erreklamaziogileak aitortzen du Gasteizko helbide ezaguneko azken etxebizitza utzi zuenetik ez zegoela Gasteizen erroldatuta eta, berez, Barrundian bizi zela. Errolda udalerriko bizilagunen etxebizitzaren berri jasotzen duen administrazio erregistroa da; beraz, eta auziaren muinari dagokionez, ezin da esan Udalak desegoki jokatu duenik, ofiziozko bajak errolda errealtatearen arabera egokitzea baino ez baitu egin.

Jakinarazpena ediktu bidez egiteari dagokionez, urtarrilaren 13ko 4/1999 legearen 59. artikulua xedatzen du jokabide hori, administratuaren benetako helbidea ezagutzen ez denerako. Erreklamaziogileak zerga batzuk (esaterako zirkulaziorako zerga) gurasoen etxean helbideratuta izatea ez da arrazoi nahikoa gurasoena interesatuaren erreferentziatzko etxebizitzat jotzeko.

3. Ondorioak.

Azaldutako guztia aintzat hartuta, ezin diogu oniritzia eman kexuari; izan ere ofizioz baja emateko dosierra jakinarazteko moduak legez aurreikusitakoari jarraitu diolako, eta auziaren muinari dagokionez, erroldan baja ematea bat zetorrelako udalerritik kanpo bizi zen erreklamaziogilearen benetako egoerarekin.

2.3.4.- Hirigintza Saila

2.3.4.1-Plangintza

a) Orientabidea

- Txalet tasatua Ibaiondon (erreg. zk.: 1322/10)

Erreklamazioa

Sindikoaaren bulego honetan aurretik landu den gaia da honakoa: erabiltzaileak prezio tasatuko txaleta merkatuko prezioan saldu nahi diotelako iruzurra izan daitekeena salatu du. Oraingoan, berriro jo du gugana azkenengo bisita egin zuenetik egin dituenen berri emateko.

Azterketa eta ebazpena

Erabiltzailearekin izandako elkarrizketan erosteko aukeraren demanda aurkeztu zuela esan zigun, baina beste alderdia ez zen agertu; dena den, antzeko kasu batean epaia eman arte itxarongo dugu. ORIENTAZIOA

- Hodiak buxatzea (erreg. zk.: 1526/11)

Erreklamazioa

Herritar batzuk jakinarazi digutenez, beraien atariaren ondoko aretorako Udalak emandako baimenean jasotzen denez, hodiekin benetan behar duten neurria baino

gutxiago izan ahal dute, eta etxejabeen elkartearen ustez, hori izan da beraien komunitateko atariko hodiedtan gertatu den buxaduraren zioa.

Azterketa eta ebazpena

Elkarrizketa izan dugu herritarrekin, eta lehenik eta behin Udalari lizentzia hori eskatu egin behar diotela jakinarazi diegu. Beraz, eskaera hori egiteko orria betetzen lagundu diegu. ORIENTAZIOA

- Meskita: eztabaida mahaia (erreg. zk.: 1543/11)
- Prezio tasatuko aparkalekuak saltzea Abetxukun (erreg. zk.: 1611/11)

Erreklamazioa

Abetxukuko aparkalekuen sustatzailea etorri da guregana, eta salatu du Udalak errekerimendua jakinarazi diola aparkaleku horiek direla eta. Ebazpena eskatu digu.

Azterketa eta ebazpena

Horren inguruko argibideak eman dizkiogu, gure ebazpenarekin batera. ORIENTAZIOA

b) Ezestea

- Balkoiak ixtea (erreg. zk.: 1501/11)

Erreklamazioa

xxxxx kaleko etxejabeen elkarteko hainbat higiezin jabeak etorri dira gure bulegora eta Udalak haien auzokideei eman dien lizentzia legez kanpoko dela, haien ustez, adierazi digute, etxejabeen elkartearen beraren estatutuen kontra doalako.

Azterketa eta ebazpena

Herritarrekin elkarrizketatu ginen, eta bide zibilean konpondu beharreko gaia dela adierazi genien, Udalak zuzenbidearekin bat jokatu baitu. AHOZ EZEZTEA

c) Gomendioa

- Erantzun gabeko idazkia (erreg. zk.: 1507/11)

Erreklamazioa

Herritar batek gure bulegoan salatu duenez, Udalaren Hirigintza Sailak ez dio erantzun 2011ko otsailaren 14an aurkeztu zuen idazkiari, zeinetan udaleko teknikariak XXXX kaleko eraberritze lan batzuek ikuskatzera joan zitezen eskatzen baitzuen.

Azterketa

Herritarra Sindikoaren bulegora etorri zen eta gai horrekin lotutako agiriak ekarri zituen: “ 2011ko OTSAILAREN 14an gertakari horiek salatzeke idazkia aurkeztu zuen. Udalak erantzun ez zionez, Herritarren Defendatzailearengana jo eta bitartekaritza eskatu zuen 2011ko apirilaren 18an.

2011ko ekainaren 16an oraindik ez du administrazioaren erantzunik jaso, ez aldeko ez kontrakorik.

Gure ordenamendu juridikoan administrazioaren isiltasunaren figura jasotzen da, herritarrak nahi izanez gero administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko aukera izan dezan. Dena den, laburra bada ere, erantzun *adierazi* eta arrazoitua jasotzeko eskubidea du beti, administrazioak aurkeztutako eskaera onartzen duen edo ez adieraziko diona.

Hauxe dio Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 42. artikulua:

42.1. art.- *Administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere.*

42.3. art.- *Prozeduretako arauetan jakinarazpena jasotzeko gehienezko eperik ezartzen ez denean, hiru hilabetekoa izango da.*

Herritarrei dagokion jurisdikziora jotzeko aukera ematea du helburu administrazioaren isiltasunaren figurak, baina horrek ez du baztertzen herritarren eskabide eta idazkiei berariaz erantzun nahiz halakoak ebatzi beharra.

Ebazpena

GOMENDIOA. Igaro den denbora kontuan izanik, eta gaian –aurkeztutako salaketan eta erabiltzaileak egindako alegazioetan– sakondu gabe, Hirigintza Sailari **GOMENDATU EGITEN DIOGU** berariaz ERANTZUN diezaiola erabiltzaileari, eta, behar diren azalpen eta arrazoiak emateaz batera, haren alegazioak aintzat harturik, egin zuen eskabidea onetsi ala ezetsi egingo dion jakinaraz diezaiola.

- Lursaila banantzea (erreg. zk.: 1522/11)

Erreklamazioa

Uribarri Dibiña menpeko toki erakundeko bizilagun batek kexa aurkeztu digu bere lursail bat (38.02 m²) bide publikorako utzi behar izan diolako Udalari. Hauxe da kexaren arrazoia: 1992/93 urtean, aurreko plan orokorraren baitan, herritarrak lursail bat utzi behar izan zion Udalari arrazoi bera zela eta, eta egun bada bertan 8 metroko zabalera duen bidea. Beraz, bere ustez ez du zentzurik berriz ere lagapena egin behar izatea lursail banantzea dela eta.

Azterketa

Bertara jo dugu eta, itxuraz, bideak betetzen du Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrean (2003ko martxoaren 31ko ALHAO, 37 zk) zabalerrari buruz jasotakoa (8 metro izatea). Beraz, ez da erraz ulertzen berriz ere bide publikorako lagapena egin behar izatea arrazoi beragatik, kontuan hartuta duela gutxi lagapena egin duela lur sail horretan.

Udal Zerbitzuarekin izandako elkarrizketetatik ondorioztatu dugunez, bidea euskarri digitaleko planoekin neurtu zen HAPOren lerrokaduren gaineratik eta ez zen lursailean bertan neurketa fisikorik egin.

Ebazpena

Ulergarria da bizilagunaren jarrera eta ezin dugu onartu bide publikorako lur lagapen bat euskarri digitaleko planoen gainean egitea, eta lagapen horren xede diren bideen zabalera modu fede-emailean ezagutzeko balioko duten tokian tokiko neurketa fisikorik ez egitea.

Ez ditugu zalantzan jartzen HAPOn xedapenak, ezta lagapenak egitera behartzeko duten balioa ere, baina lagapen horiek kaltetuentzako berme guztiak betez egin behar direla ulertzen dugu, berdintasunean jokatu.

Kasu honetan, orubearekin mugakide den bide publikoak HAPOn ezarritako neurriak betetzen baditu (aurretik egindako lagapenei esker), bizilagunaren eskabideari arrazoizkoa deritzogu, hau da 38.02 m² –ko lagapen berria bertan behera uztea, eta mapetako lerrokadurak errealitate fisikora egokitzea.

2.3.4.2- Zuzendaritza

a) Ezestea

- Kultura eta erlijio zentroa (Meskita) (erreg. zk.: 1513/11)

Erreklamazioa

Martin Olabe kaleko hainbat etxejabeen elkartek kexa aurkeztu digute Udalak kale horretan kultura eta erlijio zentroa jartzeko eman duen baimenaren inguruan.

Kexarako arrazoia erlijio edo arrazari dagozkion aurreiritziak ez direla diote, ***jendeari irekita*** dagoen jarduera izateak beraiena bezain txikia den kale batean eragingo duen inpaktuaren gaineko kezka baizik; izan ere, nahiko kale estua baita eta, beraien ustez, jendeari irekita egongo den –98 pertsona sartu ahalko dira– gurtza tokia bertan jartzeak, momentu batzuetan, kalean jende asko egotea –ibilgailu eta bizikletak, gehi oinezkoak– eragingo du, eta horrek nahitaez kaltetuko ditu auzokideak, gainera, gatazka iturri izan daiteke. Beraien ustez, Udalak kontuan hartu behar zuen hori guztia baimena ematerakoan eta elkarteari dentsitate gutxiago duen eta inpaktua txikiagoa izango den hiriko beste tokiren batean kokatzeko iradoki.

Azterketa

Kataluniako autonomia erkidegoaren 16/2009 Legeak, uztailaren 22koak, erlijio helburu duten kultu eta bilkura zentroen ingurukoa, hirigintzaren eta erlijio askatasunaren inguruko harremana arautzen duen lege araudi espezifiko bakarra da, eta berariaz aritzen da kultu tokien inguruan, hau da, erlijioaren bat talde mailan praktikatu eta sinesmenen bat talde gisa adierazten den espazio fisikoen inguruan.

2009ko Kataluniako legeak zehaztasunez definitzen du gurtza zentroa:

Gurtza zentroaren definizioa

Lege honek zein bera garatzen duten arauzko xedapenek ezarritakoaren ondorioetarako honakoa da gurtza zentroa: jendeari irekia den eraikin edo aretoa – publiko edo pribatua–, erlijio askatasunari buruzko lege organikoarekin bat legez onetsitako dagokion elizak, konfesiok edo erlijio komunitateak onartu, aitortu edo ziurtatua, gehien bat gurtza jarduerak taldeka eta etengabe burutzeko baliatuko dena.

Kataluniako legeak haren hirigintza antolakuntzaren beharra xedatzen du

4. artikulua

Erljio erabilerak xedatzea Udalaren hirigintza antolakuntza plangintzetan

1. Udalaren hirigintza antolakuntzarako plangintzetan komunitate ekipamenduko sistema sailkapena duen lurzorua aurreikusi behar da, non ezarpen berriko eta erlijio izaera duten erabilera jarri ahalko baitira, udalerrien behar eta eskuragarritasunarekin bat. Ondorio horietarako, plangintza horietan jasotzen den informazio eta datuak aintzat hartu behar dira.

2. Udalaren behar eta eskuragarritasunak ezin dira ezarri inolaz ere, baztertzailak diren –erlijio edo uste arrazoiak tartean direlako– irizpideak kontuan hartuta .

5. artikulua

Erljio erabilera eta konfesioen parte hartzea esleitzea

1. Komunitate ekipamendu gisa sailkatutako lurzoruei erlijio erabilera esleitzeko, indarrean diren hirigintza legeak aplikatu behar dira.

2. Eliza, konfesio edo erlijio komunitateek, gurtzarako tokiak eraikitzeari dagozkion beharrak ezagutu eta aurreikusi ahal izateko, hirigintza plangintzaren formulazioan parte hartzeko eskubidea dute, udalaren hirigintza antolakuntzako plangintzetako herritarren parte hartzeko programek ezartzen dituzten bideak baliatua, baita hirigintza plangintza tramitzeko hirigintza legeek ezarritako jendaurreko informaziorako epeak beteak ere.

Gainera gurtza zentroak irekitzeko eta erabiltzeko udal baimen espezifikoak arautzen du:

8. artikulua

Gurtza zentroek bete beharreko baldintza material eta teknikoak

1. Jendeari irekiak dauden gurtza zentroek baldintza material eta tekniko batzuk bete behar dituzte erabiltzaileen segurtasuna eta instalazioen higiena bermatzeko, baita hirugarrenentzako eragozpen izan daitezkeen ekiditeko ere. Baldintza horiek egokiak eta proportzionalak izan behar dira zentro horietan burutzen den jarduera ez eragotzi edo ez zailtzeko.

2. Gobernuak ezarri behar ditu, araudi bidez, jendeari irekiak dauden gurtza zentroek zaraten babesari, edukierari, ebakuazioari dagozkion beharreko gutxieneko segurtasun, osasungarritasun eta irisgarritasun baldintzak, hirugarrenentzako kalteak eragozteko.

3. Araudi bidez ezarritako baldintzak ezin dira, inolaz ere, jendeari irekiak dauden bestelako aretoetarako ezarrita daudenak baino zorrotzagoak izan.

Gure artean ez dago lege mailako araurik gai hori hain zehaztasun handirekin arautzeko, baina argi dago kultu tokiak komunitatearen funtsezko faktore eta erlijioen erreferentzia zentroak direla. Hori horrela izanik, bitxia bada ere, erlijio askatasunari buruzko lege organikoek ez ditu horien inguruko kokapen zein baldintzei buruzko erreferentziak, eta ez du haien izaera bereziaren inguruko zuzenbiderik eskaintzen.

Euskadin berariazko araudirik ez dagoenez analogiaz dagokiona aplikatu behar da, betiere ulertuta erlijio eta kontzientzia askatasuna funtsezko askatasunetako bat dela eta Konstituzioak, Giza Eskubideen Batzordeak eta Estrasburgoko auzitegiak bermatzen dutela, beraz, babes mailarik gorena merezi duela.

Gurtza tokien kokapena, Euskadin, hirigintza eta ingurumenari dagozkion araudiek ez bestek arautzen dute, obra eta jarduera lizentziak behar dituzte jendeari irekiak diren tokiak izateagatik, baina horien aplikazioan kontuan hartu behar da Konstituzioak jasotzen duen eskubidearen aurrean gaudela, hain zuzen, 16. artikulua, Gutun Nagusiaren ingurukoa.

Gure artean, Euskadin, ez dago gurtza zentroi buruzko berariazko legerik, eta ondorioz KULTUR ELKARTEEI dagokien araudia aplikatzen zaie analogiaz, kultura gurtzarekin lotzen delako; gainera hirigintza araudiez aparte, jarduera osasungaitz, gogaikarri eta arriskutsuei buruzko xedapenak zein haien inguruko lizentzia erregimena aplikatzen da, otsailaren 27ko Euskadiko Ingurumenaren Babeserako 3/1998 Lege Orokorrean, hirugarren tituluko III. kapituluan, hain zuzen, xedatutakoa.

Beraz, kultura-erlijio zentroek jarduera lizentzia eskatu behar izateko salbuetsita daude martxoaren 9ko 165/99 Dekretuak xedatutakoarekin bat; Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusitako jarduera lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jardueren zerrenda finkatzen da dekretu horretan, hain zuzen honakoak:

Etxebizitzako beheko solairuan edo salbuetsitako eraikinetan kokatzen diren kultura zentroak eta/edo elkarteak, dantza, kantu edo musika jarduerak burutzen dituztenak izan ezik.

Salbuetsitako jarduerak, besteak beste, **kultura** eta **gurtza** jarduerak ingurumenean eta pertsonen osasunean eragin gutxi dutela ulertzen da, hori dela eta, ingurukoentzat gogaikagarri direnak ez eragiteko zehazten diren betekizunak baino ez zaizkie ezarriko. Zuzena da gurtzazkotik kulturalera doan analogia, biak baitira elkarte jarduerak.

Horretaz aparte, jarduera baimenak arautuak daudela esan beharra dago, beraz, Administrazioak ezin ditu ez betetzeen presuntziorik egin, iritziaren arabera jardun, edo komenientzia eta egokitasun balioespenik, are gutxiago, fede txarraren ustekizunak egin, aplikatu beharreko hirigintza zein ingurumen arazoak, eta ez beste, hartu beharko ditu aintzat, are gehiago erlijio askatasunak babesten duen jarduera dela kontuan izanik.

Kasu honetan, salbuetsitako jarduera denez ez da berariazko jarduera baimena eman, obra baimena eta proiektuaren berarenaz gain, neurri osagarri batzuk baizik, irisgarritasun, higiene, osasungarritasun eta segurtasun baldintzak bermatzeko, hain zuzen:

1. “Keak, gasak eta usainak aireztatzeko eta kanporatzeko sistemaren funtzionamenduak ez die enbarazurik egingo auzokoei.
2. Hondakin solidoak udal ordenantzei eta aplikatzekoak diren gainerako araei jarraituz kanporatuko dira, haien ezaugarriak kontuan izanik.
3. Jardueran dauden soinu edo bibrazio iturriek sortzen dituzten zarata eta bibrazioen mailak indarreko ordenantzan ezarritako mugak bete beharko dituzte.
4. Baimen honek ez du ahalbidetzen abesbatzek parte hartzen dituzten edo instalazio elektroakustiko zein musika instrumentuak baliatuko diren errituak egitea, ez baitago horretarako beharrezko den isolatze akustikoa.
5. Jarduera eguneko ordutegian baino ezingo da burutu, gauean 22:00etara luzatu ahalko da, ez gehiago.
6. Suteen aurka babesteko ekipoak kontrol erakunde batek ziurtatuta egon beharko dute, eta araeekin bat datozeela adierazten duen marka eraman. Instalazio horiek onik zaintzeko kontratuaren kopia aurkeztu beharko da, hain zuzen, baimendutako mantentze-enpresarekin izenpetua.
7. Jarduera abiarazi aurretik, behe tentsioko elektrizitate instalazioaren ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, hain zuzen, Arabako Industria Lurraldearen Bulegoaren erregistro zigilua izango duena.
8. Edukiera, guztira: 98 pertsona.”

Ebazpena

Dosierra aztertuta, hain zuzen ere, bertan jasotako txostenekin eta jarduerari ezarri zaizkion neurri zuzentzaileei dagokiena, gure ustez, Udalak legearekin bat jardun

du eta lokala erabiltzeko baldintzak ziurtatu ditu *neurri zorrotzak* baliatuak, hau da, zuzen jokatu du, prozedurak eta eragindakoen bermeak zaindu ditu, beraz, ezin dugu aintzat hartu jaso dugun kexa, ezetsi behar eta ezesten duguna.

Adierazitakoa gorabehera eta 2009ko Kataluniako legea ikusita, Martin Olabe kaleko auzokideek planteatutakoak gai horretan hutsunea dagoela erakusten dute, eta Eusko Legebiltzarrak aintzat hartu ahalko luke legea aldarrikatzearen ondorioetarako, hain zuzen, berariaz arautuko lukeena gurtza zentroen hirigintza trataera, erlijio taldeen parte hartzea haien plangintzan eta toki horietarako baimenen erregimena.

Lege mailako arauak edozein motako gehiegikeria ekidituko luke, erlijio askatasuna babestu eta guztiei segurtasun juridikoa emango. Udal eskumenetatik zein Herritarren Defendatzaile gisa dagozkidanetatik at doan gaia izanik, Herritarren Defendatzailearen Araudiarekin bat Arartekoari bidali diogu gaia.

b) Gomendioa

- Errementari kalea: Ruiz de Bergatarren jauregia (erreg. zk.: 48 / 11 OFIZIOA)

Erreklamazioa

Erdi Aroko etxarteak ikusteko bisita egitean, Errementari kalean – zehazki Zapatari eta Errementari kaleen artean– dagoen Ruiz de Bergatarren jauregiaren egoera anomaloaz ohartu ginen. (Argazkiak eranstean dira).

Garai berean, inguruko auzokoek ere salatu zuten egoera hedabideetan, Ruiz de Bergatarren jauregian (Errementari kaleko 30. eta 32.ean eta Zapatari kaleko 33.ean) egiten ari diren lanak gelditu zeudelako.

Jauregia zaharberritzeko lanen lehen fasean, aldami bat jarri zen, eta hari eusteko lau hormigoi bloke –3 metro luze eta metro eta erdi zabal eta beste horrenbeste garai direnak– eta hiru urte baino gehiago daramate bertan. Inguru hesituta dagoenez barruan zaborra pilatzen ari da, eta gainera Errementari kalearen erdia hartzen du.

Landazuri elkarteak era protesta egin du lanak utzita daudelako.

Arabako Foru Aldundia da lanaren jabea.

Azterketa

Ruiz de Bergatarren jauregian birgaitzeko eskatu zen obra lizentzian zehaztu ziren gauzatzeko baldintzak, denbora besteak beste, eta Udalak bermatu behar du hori betetzea.

Baldintzen barruan, inplizituki, lanak gauzatzeko bide publikoaren okupazioak horretarako behar den epera mugatu beharko dela ulertzen da. Horrenbestez, guztiz onartezina da kalea –berez estua dena– inbaditzen duten hormigoi bloke handi horiek han jarraitzea, horiek ez baitira beharrezkoak lana egiteko, aldi baterako geldirik baitaude, eta are onartezinago lanaren jabea erakunde publiko bat delarik, haiek eredugarriak izan behar baitute eta partikularrei eskatzen dieten betebeharrak bete.

Lana bertan behera uzteak eta horrek eragindako eragozpenak lizentziaren indarra ere zalantzan jar dezake.

Horrenbestez, hau ebazten dugu,

Ebazpena

Gasteizko Udalari GOMENDATZEN DIOGU ezen, igaro den denbora kontuan izanik eta lanek aurrera jarraitzeko beharrezkoak ez direlarik, lanaren jabeari –Arabako Foru Aldundia– errekerimendua egin diezaiola, duela hiru urte Errementari kalean dauden hormigoi blokeak bertatik ken ditzan, kalearen erabiltzaileei eta inguruko bizilagunei kalte handia egiten baitiete.

2.3.4.3- Nekazaritza Eremua eta Mendiak

a) Errefusatzea

- Estaldurarik gabe Bolibarren (erreg. zk.: 1514/11)

Erreklamazioa

Bolibar herriko auzokide batek adierazi digu sakelakoa erabiltzeko eta internet erabili ahal izateko estaldurarik ez dutela, Gasteizko Udalak instalazioa egin dezan eskatzen du.

Azterketa eta ebazpena

Pertsona horrekin izandako elkarrizketan adierazi diogu, gaur egun, instalazioa egiteko ardura Administrazio Batzarrarena dela eta ez Udalarena, eta horra jo beharko duela berak sustatu eta telefonia enpresa batekin kontratatu dezan. ATZERA BOTATZEA.

- Hesitu gabeko lursaila (erreg. zk.: 1529/11)

Erreklamazioa

Herritar batek adierazi digunez, hesitu gabeko orube bat du, ondoko orubearen jabeak hesitu nahi ez duelako. Egoera honek kalteak eragiten dizkio.

Azterketa eta ebazpena

Partikularren arteko kontua denez, bizilagunarekin konpondu behar duela adierazi diogu izandako bilkuran. ATZERA BOTATZEA

2.3.4.4- Bide Publikoa

a) Ezestea

- Zamalanak aretoaren aurrean (erreg. zk.: 1497/11)

Erreklamazioa

Herritar batek adierazi digunez, Herrandarren kalean duen negozioaren aurrean zamalanak egin ahal izateko akordio batera iritsi nahi du Udaltzainekin.

Azterketa

Eskaera aztertu eta Gasteizko Udaleko Bide Publikoen Saileko trafikoko atalarekin bilera izan dugu, eta hauek jakinarazi digutenez, teknikoki ez da bideragarria eta juridikoki ezinezkoa da kale horretan zamalanak egitea. Herrandarren kaleko zati horretan autobusentzako bidea jarri da, inguru horretan izan ohi den trafiko kopurua arintzearen, eta autobusentzako gune horretan edozein ibilgailu aparkatzeak edo geratzeak kontrako eragina izango luke, bidea oztopatuko bailuke. Horretaz gain, inguru horretako merkatariek badute zamalanetarako gunea, eta araudiak horrelakoetarako ezarritako distantzia betetzen du. Herritarrak adibide gisa jartzen digun Erdi Aroko Hiriguneari dagokionez, salbuespen egoera dela esan diogu, izan ere kale horien berezitasuna eta morfologia ezin baitira Herrandarren kaleko gunearekin alderatu.

Beraz, Udala zuzen jokatzeko ari dela ondorioztatzen da, eta eskaera, zoritxarrez, eta oraingoz, ez da bideragarria.

Ebazpena
EZESTE

b) Gomendia

- Tranbiaren kutxatilen sortutako enbarazua (erreg. zk.: 1502/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Alaba Jeneralaren kaleko 13.eko herritar bat kexu ageri da, galtzadako kutxatilen gainetik igarotzean ibilgailuek sortzen duten zarata etengabeak gogaitzen duelako. Arduradunen axolagabekeriaren errua besterik ez dela uste du, kutxatilen ertzetan goma batzuk jarrita zarata desagertuko litzatekeelako.

2.- Arazoaren azterketa

Kexa hori ohikoa da bulegoan. Udalak argudiatzen du bere erantzukizuneko kutxatilik (estolderia, Amvisa...) aldian behin ikuskatzen dituela eta zuzen itxita daudela, eta besteak enpresa pribatuen erantzukizunekoak direla: Iberdrola, Telefónica...

Udal arduradunekin hainbat aldiz bildu gara gai horretan hitz egiteko.

Toki-administrazioaren oinarriko eta uko egin ezinako eskumenen barruan daude bide publikoen zolaketari dagozkionak. Ulertzen dugu batzuetan hornikuntza enpresak izan daitezkeela lurpeko instalazio jakin batzuen eta horietako kutxatila eta zigiluen titularrak, baina edozein modutan, eta administratuen aurrean, erantzukizun orokorra, eta beste guztien gainetikoa, toki-administrazioarena da, beraz, ezin du bazter utzi zolatze publikoa begiratu eta zaintzea, horren egoera ikuskatuz, bai eta bertan

dauden kutxatilak eta zigiluak, estalkiak, ur-hartuneak eta bide publikoan dauden gainerako elementuak ere.

3.- Ondorioak

Gure irizpenak bikoitza izan behar du: batetik, egokitzat jotzen dugu Udalak nola zaintzen dituen udal zerbitzu publikoekin lotutako kutxatilak eta estalkiak; bestetik, ordea, GOGORARAZI BEHAR DIOGU bestelako horniketa eta zerbitzuei dagozkienak ere ezin dituela bazter utzi, Udalaren oinarritzko eskumena baita, eta horrenbestez, onik zainduta dauden ikuskatu behar duela, beharrezkoa bada erantzuleei horietaz ardurara daitezen eskatu, eta bestela subsidiarioki jokatu, bide publikoa egoera onean egon dadin.

c) Orientabidea

- Bermea itzultzea lana bukatu ondoren (erreg. zk.: 1655/12)

Erreklamazioa

Herritar batek adierazi digunez, galtzadan egin zuten obra zela eta Udalak 600 euroko bermea eskatu zion bizilagun bakoitzari. Obra amaitu delarik, berme hori itzultzeko eskatu dute eta ez diete dirua itzultzen.

Azterketa eta ebazpena

Informazioa eskatu dugu sailean eta herritarrari igorri diogu ORIENTABIDE gisa.

2.3.4.5- Hilerriak

a) Ezestea

- Panteoien salerostea Santa Isabel hilerrian (erreg. zk.: 1613/11)

Erreklamazioa

Bi ahizpak –Gasteizko bizilagunak– Santa Isabel hilerrian hiru panteoien titularkide izateak dakarzkien zailtasunak (kudeatu, zaindu eta mantentzeko)

azaldu dizkigute, horiek senitarteko ugarirekin partekatzen dituztenez oso zaila baita erabakiak hartzea eta horiek zaindu ahal izateko behar diren baliabideak bideratzea.

Udalak panteoietako BAT konpontzeko laguntza emango balie beste BIAK Udalari lagatzeko prest leudekeela iradoki digute.

Azterketa

Santa Isabel hilerriak ez du erreferentziazko araudi argi eta osorik, garai bateko Santa Isabel hilerriaren 1886ko araudia guztiz zaharkituta⁵ baitago: bertan xedatzen dena edo zentzugabea da edo Konstituzioak eta administrazio araudien berez baliogabetu dute.

1978ko Konstituzioa nahitaez kontuan hartu beharreko oinarria da, beste alor batzuetan bezala, errotik aldatu baitzuen aurreko arautzea, zeinean erlijio eta administrazio eskumenak nahasten baitziren, orain bereiz daudelarik.

Hilerriek gizarte ohituretan gertatutako aldaketei egin behar diete aurre, erlijio pluraltasunak, sekularizazioak, emigrazioak eta hileta jokabide berriak (errausketa, errausak lurperatzea edo gordetzea...) eragindakoak, eta horrek udal araudi berria eskatuko du.

Edonola ere, Santa Isabel hilerriak, hileta funtzioaz gain, kultur ondarearen izaera du, bertako eraikuntzen arkitektura interesa eta han egindako ehorzketen balio historikoa direla kausa. Horrek titularrei eta jabekideei zaintzeko eta mantentzeko berriazko betebeharra dakarkie, eta Udalak ezin ditu behar horretaz libratu, ez eta horri buruz negoziatu. Zaintzeko eta mantentzeko betebeharrak hori oso garestia balitz, Santa Isabel hilerriko 1886ko araudian bada hau ezartzen duen artikulua bat, oraindik indarrean:

23. artikulua: "Jabeek panteoiak zaindu beharra dute, eta hondatuko balira eta konponduko ez balituzte, errekerimendua egin ondoren, jabetza eskubidea galduko lukete, eta Udalak zati lauak eskatuko, jabetza komunekotzat".

⁵ LEGISLACIÓN FUNERARIA Y CEMENTERIAL ESPAÑOLA: UNA VISIÓN ESPACIAL, Mikel NISTAL

Antzeko xedapena dago Salbatzailearen hilerriaren araudian, 33. artikuluan.

Panteoien titularkideen kopurua gutxitzeko aukera –bai eta egokitasuna ere– dela eta, horiek hobeto kudeatu eta zaintzearen, interesdunen artean ebatzi beharreko gai zibila da. Udalak berez, erreferentziazko araudiaren ildotik, ez die eragozpenik jartzen hileta eskubideen titulartasuna sinplifikatzeko prozesuei, aitzitik, ohiko jokabidea da Salbatzailearen hilerrian. Udalak, ordea, ezin du esku hartu hileta eskubideen eskualdaketak arautzen dituzten harreman zibiletan.

Ebazpena

Gure ustez, Udalak guztiz baliogabetu beharko luke 1886ko araudi zaharra, eta berriazko araudi berria landu, Santa Isabel hilerrian bateratu behar diren interes ezberdinak egokiago antolatzeko: familien hileta eskubideak, ondare historikoaren babesa, hileta eskubideen titularkidetasuna biderkatzeari mugak jartzea...

Une honetan, eta aplikatzekoa den araudia kontuan hartuz, Santa Isabel hilerriko panteoien titularkideen kopurua murriztuko bada, interesdunek bideratu behar dute, familiaren barruan behar diren lagapenak eta eskualdaketak adostuz eta ondoren Udalarri aldaketak proposatuz; Udalak horiek erraztu eta bere erregistroetan jaso beharko ditu.

Hilobiak eta panteoiak mantentzeko diruzko laguntzen truke hileta eskubideak ematea ez dago araudian aurreikusita.

b) Gomendioa

- Ordenantza proposamena. Hilerriak. Erraustak barreiatzea (erreg. zk.: 49 / 11 OFIZIOA)

Erreklamazioa

Hilotzen sanitate-alderdiei buruzko 1974ko araudian onartu zen Espainian hilotzak erraustea gorpu baten azken akabera gisa –ehorztearekin eta itsaso zabalean hondoratzearekin batera–.

1978ko Konstituzioaz geroztik, autonomia erkidegoak arduratu dira segurtasun eta higiene eskumenez; Sanitateari buruzko 14/1986 Lege Orokorrak aitortzen ditu

hilotzen sanitate-poliziaren alorreko transferentziak eta harrezkero, autonomia erkidegoek alorreko araudiak garatu dituzte. Araudi horietako askotan aurreikusten da lehenengo aldiz kolunbarioak egitea errautesak gordetzeko, eta horientzako neurri egokiak, kokapena eta beste ezaugarri batzuk zehazten.

Kontuan izan behar da Espainian 17.682 hilerri dagoela, eta horietako % 28 (4.937) % 90ean baino gehiagoan beteta daudela, eta % 5 (833) ia % 100ean, eta ez dutela handitzeko aukerarik. Ehorzteak dakarren lur erabilera kontuan izanik, erraustea iraunkorragoa dirudi.

Ehorzketaren ordez erraustearen aldeko gizartearen eskaera ere handitu egin da, eta dagoeneko heriotzen % 25 da. Kontsumoari buruzko ikerketen arabera, "erraustea gero eta gehiago eskatzen den zerbitzua da. 2004an izan ziren 370.000 heriotzetatik, 92.500 errausketa inguru izan ziren. Kopuru hori urtez urte hazten ari da. Hainbat arrazoi dago erraustea erabiltzeko garaian, batetik, prezioa, ehorzketa (1.500 euro) baino askoz merkeagoa baita (350 euro inguru), hilerrietan dagoen horma-hobi eta hobi gabezia larria eta ehorzketa baino higienikoa den aukera izatea"⁶.

Azterketa

Errausketak eta errautesak barreiatzeko ohitura zabaldu badira ere, gure antolamendu juridikoan ez dago inolako araudi orokorrik behartzen duenik gorpuen errautesak hilerrietan uztera; udal batzuen ordenantzetan, ordea, errautesak leku jakin batzuetan barreiatzea edo uztea debekatzen da. Esan beharra dago EBn arau orokor bat lantzeko asmoa dutela, hilerrietan errautesak eta errautes-ontziak gordetzeko leku bat egokitzea behartzeko.

Hilerri askotan kolunbarioak eta oroitzeko beste espazio batzuk –errautesen lorategiak– jartzen ari dira, familiek bertan utz ditzaten errautes-ontziak (komeni da horiek biodegradagarriak izatea, hondakin gehiagorik ez sortzeko).

Paisaia diseinua duten lekuak dira, familiek eta lagunek gogoratzeko leku bat izan dezaten, loreak uzteko edo egun jakinetan joateko. Esaterako, Granadako hilerrian

⁶ http://www.consumer.es/web/es/economia_domestica/sociedad-y-consumo/2006/09/28/155976.php

bada “errautsen lorategi” bat, hots, lurrean kolunbarioak integratuta dituen berdegune bat, eta errautsen baso bat, hilerriko patioetako batean, zuhaitzez eta harrizko bideez hornitua, non errauts-ontzi biodegradagarriak lurpera baitaitezke.

FEMPren iturrien arabera, Bartzelonan Lurrinen Lorategia deritzona inauguratu da, 600 metro koadrotik gorako espazioa, 700 errauts-ontzi biodegradagarri lurperatzeko lekua duena, zeinak desegin egiten baitira lur hezea ukitzean. Lurperatutako ontziak identifikatzeko xaflen ondoan erromeroa, salbia eta izpilikua landatu dira, ingurua lurrinez bete dadin.

Espainiako beste hilerri askok beste aukera batzuk asmatu dituzte: ur errekaetoak, zelaiak, basoak edo errautsak uzteko mausoleoak.

FEMPk ereduuko zerbitzuen proposamenak landu ditu, “errautsak udal hilerrietan utz daitezzen sustatzeko, esaterako:

“Errauste zerbitzuak errautsak hilerrian utz daitezzen sustatuko du”.

Errautsak senitartekoei eta lagunei ematerakoan, “eskuorri bat emango zaie, eta hau jakinaraziko: errautsak hilerrian uzten ez badituzte, barreiatzeko asmoa dutelako, ontzia birziklatzeko gune egokira eraman beharko dute”.

“Hilerrien Zerbitzuak eskumena duten erakundeei eskatuko die errauts-ontzien ekoizleak behartu ditzatela ontziak barrutik eta kanpotik zenbatzera, eta ekoizleek, banatzaileek eta hilerriek bost urtez hartzaileen erregistro bat gorde dezatela, ontzia leku ezegokian aurkituz gero errautsen jasotzaileen aurka jotzerik izateko”.

Ebazpena

Aipatutako datuak kontuan izanik, eta Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioak “En busca de alternativas al esparcimiento incontrolado de cenizas” argitalpenean (eranskinean) proposatutako jardunbide egokiekin bat etorritik, hauxe GOMENDATZEN DUGU, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta bertan aurreikusitako eraginarekin: Hilerrien Zerbitzuak bere gain har dezala errautsak udal hilerrian utz daitezzen **SUSTATZEKO** konpromisoa eta. horretarako,

errauts-ontziak utzi ahal izateko kolunbarioak presta ditzala, bai eta errautsak kontrolpean barreiatzeko leku fisiko egokia ere, beti ere erabilgarri dagoen aurrekontuaren barruan.

2.3.4.6- Eraikuntzen Legezko Jaurbidea

a) Ezestea

- Oinezkoen pasabideak mantentzea (erreg. zk.: 1547/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Asturias, Extremadura eta Arantzabela kaleetako etxejabeen elkarteek kontsulta eta kexa aurkeztu digute, Gasteizko Udalak eskatu dielako beren higiezin ondotik doazen oinezkoen igarobideak mantentzen ditazatela, antza denez egoera txarrean baitaude. Auzokoek uste dute igarobidea ez dela beren jabetzakoa, ez baita agertzen ez erosteko eskrituretan ez eta lan berriaren eskrituretan ere. (argazkiak erantsita)

2.- Arazoaren azterketa

Behin baino gehiagotan, obra lizentziatuko dossierretan baimentzen diren eraikuntza moten barruan eraikinek titulartasun pribatuko espazio libre bat partekatzea aurreikusten da: kalea iruditu arren, benetan ez da, ez dagoelako inolako bitartekorik aurreikusten lurzoru hori Udalari lagatzeko obra lizentzia eman aurretik, eta beraz, titulartasun pribatuko espazio librea dela jo behar dugu.

Oro har, kaleak titulartasun publikokoak dira, eta jursiprudentziak berak aitortu du Udalak ahalmena duela kale pribatu deritzonak trafikorako irekitzeko, eta herritarrek zirkulatzeko duten eskubidea errespetatu dadin behartzeko. Jaso ez izana ez da oztopo *“bide horietatik eragozpenik gabe igarotzeko.”*

“Erabilera publikoko espazio pribatuak” esamoldea urbanizazio pribatuei baino ez dagokie eta, gaur egun ekimen partikularrez eginak izan arren, hizpide dugun kasuari ere aplikatu dakioke, urbanizatzeko jarduerari ez baina eraikitze jarduerari izan delarik, zeinak lotutako eraikuntza proiektua baitu, eta aipatutako igarobideak horren zati gisa ageri dira. Alor honetan bi araubide sistema dago:

a) **Sistema juridiko administratiboa**, urbanizazio partikularren xede den sektorearen azpi-sistema urbanistikoek osatua (bide publikoak, berdegune publikoak eta izaera bereko espazio libreak); horien titularitatea beti Udalarena da, eta inoiz ez partikularrena.

b) **Sistema juridiko pribatua**, azpi-sistema urbanistiko pribatuek osatua, aurrekoen osagarriak, hala nola kale pribatuak eta blokeen arteko berdeguneak eta espazio libreak –jabe guztiei erreserbatuak, bai eta urbanizazioan sartzen direnei ere–, eta horregatik deitzen dira erabilera publiko espazio pribatuak.

Horrekin lotuta, hauxe dio Kode Zibilak (LED 1889/1) 396. artikuluan: *“Eraikinaren pisu edo lokalak nahiz horien zatiak, eraikin horren osagai erkide batera edo herribidera berezko irteera izateagatik, modu independentean aprobetxa badaitezke, jabetza bananduaren objektu izan daitezke, eta jabetza banandu horri jabekidetasun-eskubidea datzekio eraikinaren osagai erkideen gainean; osagai erkideak dira eraikina egoki erabili eta lupertzeko beharrezkoak diren guztiak, besteak beste... eta bestelako osagai material nahiz juridikoak, euren izaera edo xedearengatik, zatiezinak badira”.*

Hizpide dugun kasuan, egiturari dagokionez igarobideak ondoko eraikinei atxikita egotea erabakigarria da, eta berariaz horien behealdera sartzeko balio izatea.

Kasu honetan, udal planeamenduak ez du aurreikusi etxadien artean kale bat egitea, baizik eta erabilera publikoko espazio libre bat, zeinaren titulartasun pribatua ezaugarri hauek zehazten baitute: eraikitze eskubidea, Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legeak ezarritakoez bestelako mugarik gabe, eta eraikinen estetika eta konposizioari buruzko udal arau urbanistikoak.

Baldin eta udal antolamenduan kale gisa planifikatu ez badira, eraikinen arteko pasabideak, korridoreak, kale pribatuak edo espazio libreak ez dira herri eskupekotzat jo behar, ez eta udalerriri lagatzeko urbanizazio lanik jasan behar, espazio horiek titulartasun pribatuko espazio libre gisa baimendutako eraikuntzei lotuta baitaude, zeinek eraikuntza tipologia berezi bat osatzen baitute.

Hala ere, Udalarari osagai horiek auzoko guztiek erabili ahal izatea interesatzen zaion neurrian, gure ustez hitzarmen bat egin liteke, horiek onik zaindu eta mantentzeko konpromisoa hartuz, eta Udalaren aldeko bide-zorra eratu, higiezinaren elementu komunak –forjatuaren egiturazko elementuak barne– jabetza horizontalaren erregimenari jarraituz arautuko direla zehaztuta.

Izan ere, Udalak egiaztatu du hizpide ditugun pasabideek badutela lotura urbanistikorik ondoko blokeen eraikuntza lizentziarekin: “Udal Artxiboan kontsultatu eta bertan “Gasteizko Araneko poligonoko 19. blokean etxebizitzak eta merkataritza aretoak egiteko proiektua COVISarentzat” izenekoa agiria aurkitu da, 1966koa. Bi planotan “19. blokearen atzealdeko fatxadaren multzo osoa” (A-14 plano) eta “19. blokeko beheko solairuen multzo osoa”(A-3 plano) Asturias kaleko X, Extremadura kaleko XXX eta Arantzabela kaleko X atariak osatutako etxadiaren diseinuaren zati gisa ageri da pasabidea (XXX udal arkitektoak sinatua, 2011ko martxoaren 22an).

3.- Ondorioak

Adierazitako guztia kontuan izanik ondorioztatu behar dugu ezen, pasabide horiek lan berriaren eskrituran aipatzen ez badira ere, egiaztatuta geratu dela titulartasun pribatukoak direla –bai administrazio-zuzenbidearen bai zuzenbide zibilaren argitan–, eta beraz jabekidetasun erregimenaz arautu behar dela, Asturias kaleko X.eko, Extremadura kaleko XXX.eko eta Arantzabela kaleko X. etxejabeen elkarteen artean.

- Oinezkoen pasabidea Arantzabela plazan (erreg. zk.: 1555/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Asturias, Extremadura eta Arantzabela kaleetako etxejabeen elkarteek kontsulta eta kexa aurkeztu digute, Gasteizko Udalak eskatu dielako beren higiezinaren ondotik doazen oinezkoen igarobideak mantentzen ditazatela, antza denez egoera txarrean baitaude. Auzokoek uste dute igarobidea ez dela beren jabetzakoa, ez baita agertzen ez erosteko eskriturretan ez eta lan berriaren eskriturretan ere. (argazkiak erantsita)

2.- Arazoaren azterketa

Behin baino gehiagotan, obra lizentzietako dossierretan baimentzen diren eraikuntza moten barruan eraikinek titulartasun pribatuko espazio libre bat partekatzea aurreikusten da: kalea iruditu arren, benetan ez da, ez dagoelako inolako bitartekorik aurreikusten lurzoru hori Udalari lagatzeko obra lizentzia eman aurretik, eta beraz, titulartasun pribatuko espazio librea dela jo behar dugu.

Oro har, kaleak titulartasun publikokoak dira, eta jursiprudentziak berak aitortu du Udalak ahalmena duela kale pribatu deritzonak trafikorako irekitzeko, eta herritarrek zirkulatzeko duten eskubidea errespetatu dadin behartzeko. Jaso ez izana ez da oztopo *“bide horietatik eragozpenik gabe igarotzeko.”*

“Erabilera publikoko espazio pribatuak” esamoldea urbanizazio pribatuei baino ez dagokie eta, gaur egun ekimen partikularrez eginak izan arren, hizpide dugun kasuari ere aplikatu dakioke, urbanizatzeko jarduera ez baina eraikitzekeo jarduera izan delarik, zeinak lotutako eraikuntza proiektua baitu, eta aipatutako igarobideak horren zati gisa ageri dira. Alor honetan bi araubide sistema dago:

a) **Sistema juridiko administratiboa**, urbanizazio partikularren xede den sektorearen azpi-sistema urbanistikoek osatua (bide publikoak, berdegune publikoak eta izaera bereko espazio libreak); horien titularitatea beti Udalarena da, eta inoiz ez partikularrena.

b) **Sistema juridiko pribatua**, azpi-sistema urbanistiko pribatuek osatua, aurrekoen osagarriak, hala nola kale pribatuak eta blokeen arteko berdeguneak eta espazio libreak –jabe guztiei erreserbatuak, bai eta urbanizazioan sartzen direnei ere–, eta horregatik deitzen dira erabilera publiko espazio pribatuak.

Horrekin lotuta, hauxe dio Kode Zibilak (LED 1889/1) 396. artikuluan: *“Eraikinaren pisu edo lokalak nahiz horien zatiak, eraikin horren osagai erkide batera edo herribidera berezko irteera izateagatik, modu independentean aprobetxatu badaitezke, jabetza bananduaren objektu izan daitezke, eta jabetza banandu horri jabetzaren eskubidea datzekio eraikinaren osagai erkideen gainean; osagai erkideak dira eraikina egoki erabili eta lupertzeko beharrezkoak diren guztiak, besteak beste... eta bestelako osagai material nahiz juridikoak, euren izaera edo xedearengatik, zatietan badira”.*

Hizpide dugun kasuan, egiturari dagokionez igarobideak ondoko eraikinei atxikita egotea erabakigarria da, eta berariaz horien behealdera sartzeko balio izatea.

Kasu honetan, udal planeamenduak ez du aurreikusi etxadien artean kale bat egitea, baizik eta erabilera publikoko espazio libre bat, zeinaren titulartasun pribatua ezaugarri hauek zehazten baitute: eraikitze eskubidea, Jabetza Horizontalaren uztailaren 21eko 49/1960 Legeak ezarritakoez bestelako mugarik gabe, eta eraikinen estetika eta konposizioari buruzko udal arau urbanistikoak.

Baldin eta udal antolamenduan kale gisa planifikatu ez badira, eraikinen arteko pasabideak, korridoreak, kale pribatuak edo espazio libreak ez dira herri eskupekotzat jo behar, ez eta udalerrinari lagatzeko urbanizazio lanik jasan behar, espazio horiek titulartasun pribatuko espazio libre gisa baimendutako eraikuntzei lotuta baitaude, zeinek eraikuntza tipologia berezi bat osatzen baitute.

Hala ere, Udalari osagai horiek auzoko guztiek erabili ahal izatea interesatzen zaion neurrian, gure ustez hitzarmen bat egin liteke, horiek onik zaindu eta mantentzeko konpromisoa hartuz, eta Udalaren aldeko bide-zorra eratu, higiezinaren elementu komunak –forjatuaren egiturazko elementuak barne– jabetza horizontalaren erregimenari jarraituz arautuko direla zehaztuta.

Izan ere, Udalak egiaztatu du hizpide ditugun pasabideek badutela lotura urbanistikorik ondoko blokeen eraikuntza lizentziarekin: “Udal Artxiboan kontsultatu eta bertan “Gasteizko Araneko poligonoko 19. blokean etxebizitzak eta merkataritza aretoak egiteko proiektua COVISarentzat” izeneko agiria aurkitu da, 1966koa. Bi planotan “19. blokearen atzealdeko fatxadaren multzo osoa” (A-14 plano) eta “19. blokeko beheko solairuen multzo osoa”(A-3 plano) Asturias kaleko X, Extremadura kaleko XXX eta Arantzabela kaleko X atariak osatutako etxadiaren diseinuaren zati gisa ageri da pasabidea (XXX udal arkitektoak sinatua, 2011ko martxoaren 22an).

3.- Ondorioak

Adierazitako guztia kontuan izanik ondorioztatu behar dugu ezen, pasabide horiek lan berriaren eskrituran aipatzen ez badira ere, egiaztatuta geratu dela titulartasun

pribatukoak direla –bai administrazio-zuzenbidearen bai zuzenbide zibilaren argitan–, eta beraz jabekidetasun erregimenaz arautu behar dela, Asturias kaleko X.eko, Extremadura kaleko XXX.eko eta Arantzabela kaleko X. etxejabeen elkarteen artean.

- Obrak jabekideen komunitatean (erreg. zk.: 1645/11)

Erreklamazioa

Herritar batek Udalak bere jabekideen komunitatean obrak egiteko bidali duen ebazpena salatu du.

Azterketa eta Ebazpena

Herritarraren aburuz, elementu pribatiboak izanik Udalak ez luke esku hartu beharko; alabaina, ez dituzte obrak garaiz burutu, eta Udalak hertsatzeko lehen isuna ezarri die.

Herritarren Defendatzailearen bulegoaren aburuz, jarduera zuzena izan da, eta bizilagunei dagokie elementu komunak onik zaintzeko ardura; erabaki hau Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 199. artikuluko 1. paragrafoan oinarritzen da.

b) Bitarteko jarduera

- Lonja batean arrandegia jartzeko asmoa (erreg. zk.: 1550/11)

Erreklamazioa

Herritar bat zergatik ukatzen dioten establezimendua irekitzeko lizentzia jakin nahian etorri da gure bulegora.

Azterketa eta Ebazpena

Sailaren informazioa jaso ondoren, lizentzia eskuratzeko zein agiri aurkeztu behar duen jakinarazi diogu erabiltzaileari.

2.3.5.- Kirol eta Kultura Saila

2.3.5.1- Kultura

a) Bitartekaritza

- Bakearen aldeko koordinakundea-Oroimenaren urratsak (erreg. zk.: 1506/11)

Erreklamazioa

Bakearen aldeko koordinakundeak *Oroimenaren urratsak* izeneko eguna ezarri ahal izateko gure laguntza eskatu du, hain zuzen, hirian terroristek pertsonaren bat hil duten toki bakoitzean geldituko den ibilbidea egiten saiatzeko.

Azterketa eta ebazpena

Gai honetan zer esana duten Udalaren arduradunekin jarri gara harremanetan eta elkarte horren proposamena aztertzeko konpromisoa hartu dute. BITARTEKARITZA

b) Gogorarazpena

* Erdigunea ekitaldiz arintzea (erreg. zk.: 1384/10)

d) Orientabidea

- UNEDen ikasgaiak ebaluatzeko arazoa (erreg. zk.: 1678 / 12)

Erreklamazioa eta azterketa

UNEDen psikologia ikasten ari den pertsona bati ez diote deialdi batera aurkezten uzten.

Ebazpena

Erreklamazioa Herritarraren Defendatzailearen bulegoan aurkezteko esan diogu, berak baitu eskumena administrazio horretan.

2.3.6.- Ingurumena

2.3.6.1- Zuzendaritza

a) Gogorarazpena

* Handizkako merkatua: emakida kontratua berrikustea (erreg. zk.: 1509/11)

c) Bitarteko jarduera

* Zuhaitzetako ilaunak Abetxukun (erreg. zk.: 1520/11)

c) Orientabidea

- Auzokoaren sukaldetik datorren kea (erreg. zk.: 1605/11)

Erreklamazioa

Herritar bat kexatzera etorri da, auzokoaren ke-erazgailuak isurtzen duen keak enbarazu egiten diolako.

Azterketa eta ebazpena

Gaia aztertu eta ke-isurbidea elementu komuna dela jakin dugu, beraz, etxejabeen elkartearen arazoa da.

d) Gomendioa

- Bilketa pneumatikorako ontziak (erreg. zk.: 1622/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Zabalgana auzoan dagoen Ilustrazioaren hiribideko xx xx xx xx xx zenbakietako jabeekideen komunitatearen administratzaileak etxebizitzetan jabe egin zirenetik beretik bilketa pneumatikokoarekin arazoak izan dituztela jakinarazi digu, sortzen duen zaratagatik. Bilketa pneumatikorako ontziak garajeko sarreraren parean daude (bi ontziez gain, baita denda bateko hirugarrena ere), eta biltegia eta makinak garajeko areto batean daude.

Gailu horiek instalazio-arazoren bat izan behar dute, antza, etxebizitzetatik jaisten zaien zaborrak zarata handia eragiten baitu. Neurketak egiteko eskatu diote ingeniari enpresa bati, eta zarata-mailak gainditu egiten du lizentzia eskatzen duten jardueretan baimendutakoa. Komunitateek ontzien eta makinaren jabea (eta, beraz, arduraduna) nor den jakin beharrean dira.

2.- Arazoaren azterketa

Auzo horretan lanean diharduen Ensanche XXI udal erakundearekin harremanetan jarri gara, eta erreferentziazko araubideak instalazioaren elementu mekanikoen jabetza eta onik zaintzeko ardura Udalaren Ingurumen Sailari dagozkiela jakinarazi digu, hain zuzen ere sail horren baitako Hondakin Kudeaketaren Zerbitzuari. Alabaina, betekizun hori xxxxxxxxxx S.A. kontratistak hartu ditu bere gain, Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko ekainaren 1ean egindako bilkuran erabaki zuenaren arabera bera baita **GASTEIZEN BILKETA PNEUMATIKOAREN SISTEMA ONIK**

ZAINZKEKO ETA BILKETA LAN OPERATIBOA EGITEKO ZERBITZUAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENAREN irabazlea, betiere dosierrean eta eskaintzan aurkeztutako oroit-idazkian jasotako baldintza-orri tekniko eta administratiboen arabera.

Horrenbestez:

Ingurumen Sailari **GOMENDATZEN** diogu ZERBITZU KONTRATUAN bertan aurreikusitako ikuskaritza eta kontrol mekanismoak balia ditzala, eta horrenbestez, eska diezaiola enpresa KONTRATISTARI bilketa pneumatikoko ontzietan atzemandako arazoak konpontzeko.

* Bidegabeko jokabidea pub batean (erreg. zk.: 779/07)

e) Idazki lagundua

- Irisgarritasuna jabekideen komunitatean (erreg. zk.: 1668 / 12)

Erreklamazioa eta azterketa

Ezindu baten emazteak adierazi digunez, epai batek irisgarritasun arloko obra bat egitera behartu du jabekideen komunitatea baina epaia betetzeko zailtasunak daude.

Ebazpena

Bizilagunen hurrengo bilkuran erakusteko idazki bat prestatu da, ea bizilagunek jarrera aldatzen duten.

2.3.6.2.- OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

a) Orientabidea

- Bizi ohitura osasungarriei buruzko ikastaroak bertan behera gelditzea (erreg. zk.: 1647 / 12)

Erreklamazioa

Hiriko gizarte etxeetan jaki osasungarriei buruzko ikastaroak emateaz arduratzen den enpresak jo du guregana. Udalak ikastaroek hasi behar zuten egunean bertan jakinarazi die, ahoz, ikastaroak bertan behera geratzen direla.

Azterketa eta Ebazpena

Enpresako kideek Udalaren jokaera horren aurrean dituzten eskubideei eta aurkez ditzaketen erreklamazioei buruzko informazioa eskatu digute.

Ondare gaineko erantzukizun eskabidea egiteko gomendatu diogu eta, aztertu ondoren, hala egitea erabaki dute.

2.3.7.-Lehendakaria

2.3.7.1- Berdintasun Zerbitzua

a) Ezestea

- Diskriminazio positiboa (erreg. zk.: 1624/11)

Erreklamazioa

Herritar batek bere ustez sexuagatiko arrazoirik gabeko diskriminazioaren kexa planteatu digu.

Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako hainbat ekintzaren testuinguruan AHALDUNTZEA titulupean Yaratullah Monturiol-ek eskainitako hitzaldiaren berri izan zuen, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Planean jasotako ekimena.

Eskaera egin, matrikula ordaindu eta, hasiera batean, jardueran parte hartzeko izen-ematea formalizatuta geratu zen.

Hala ere, aurrerago aurrez ikusitako jardueran “ezin zuela parte hartu” jakinarazteko informazioa jaso zuen.

Azterketa

Planteatutako gertakaria berdintasunaren aldeko “ekintza positibo” delakoen barruan kokatzen da; muga eta baldintza jakinen barruan, desberdintasun nabarmeneko egoera konpentsatzeko diskriminazio erlatiboetako kasuak onartzen dituztenetan.

3/2007 Lege Organikoaren 11. artikuluan arautzen da espezifikoki:

Ekintza positiboak.

1. Konstituzioan jaso den berdintasuneskubidea eragingarri egiteko helburuarekin, botere publikoek neurri bereziak hartuko dituzte emakumeen mesedetan, gizonei begira egitezko desberdintasun-egoera nabariak zuzentzeko. Halako neurriak, aplikagarri izango direnak egoera horiek iraun bitartean, zentzuzkoak eta proportzionalak izan beharko dira, kasu bakoitzean lortu nahi den helburuari dagokionez.

2. Pertsona fisiko eta pertsona juridiko pribatuek ere hartu ahal izango dituzte halako neurriak, lege honetan ezarritakoaren arabera.

Erreklamatazailerak hasiera batean arrazoa du, espezifikoki justifikatu eta behar bezala motibatu beharreko ustezko diskriminazio-xede baten aurrean baikaude; izan ere, gizonezko bati legez interesatuta egon daitekeen jardueran parte hartzeko sarrera ukatu zaio.

Kasuaren analisi xehatuagoak, ordea, zuzenbidearekin erabat ados bezala jotzea ahalbidetzen du administrazioaren jarduna, kasuko baldintzak direla eta.

Jardueren informazio-liburuxkak⁷ izaera teoriko praktikoa iragartzen du, eskusiboki emakumeei zuzendutako baliabide gisa, ekintza positiboko neurri moduan... “*eragiten ahalegintzen dena baliabide materialen eta sinbolikoen erabilera eta kontrolerako, abantailetarako, sarbide-baldintzak berdintzen joateko eta aldaketa sozialean parte hartzeko eragina irabaztea ahalbidetzeko sareak sor ditzaten*”

Emakume musulmanei buruzko tailerraren kasu zehatzean, jarduera hain zuzen emakume horien baldintza berezietan kokatzen da, hainbat arrazoi direla eta –

⁷ <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/41519.pdf>

kulturalak, linguistikoak, sozialak...-, gizonezkoekiko desberdintasun nabarmenean baitaude eta horrek 3/2007 Lege Organikoko lege-irizpideak betetzen dituela jotzen dugu.

Bestalde, jardueraren izaera praktikoak –tailerra da eta ez konferentzia arrunta– hain zuzen ere gizonezkoaren presentziarekin erreprimetuta geratu ahal izango litzatekeen ahalduntze-eszenatokia entseatzeko asmoa dakar.

Berdintasun Zerbitzuak ikastaroaren edukia idatziz helaraztea eskaini zion, bai eta hizlariarekin biltzea hura ados izanez gero, eta eskaintza horrek bermatzen du erreklamaziogileak izan dezakeen interesa (formaziozkoa eta intelektuala).

Ebazpena

Erreklamatzailerak ordaindutako matrikularen itzulketara jasotzeko eskubidea izango du jakina.

Adierazitako guztiari jarraiki, kasu honetan aipatutako Udalaren jardura zuzenbidearekin erabat bat datorrela jotzen dugu eta emakumeek bizitza sozialeko hainbat alorretan sufritzen duten desberdintasun nabarmena zuzentzera bideratutako ekintza positiboaren artean kokatu daiteke legez.

Nolanahi ere, emakumearen aldeko ahalduntze-ekintza mota horretan gizonezkoek ere zabalduzako beste ekintza batzuk konbinatzeko beharra iradokiko dugu, sexuen arteko benetako berdintasuna lortzen laguntzeko "gizonezkoen feminismoa" garatzeko.

2.3.7.2- Gizarte-etxeen Zerbitzua

a) Gomendioa

- Zigorra gizarte etxean, funtzionamendua nahasteagatik (erreg. zk.: 1646/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritarrentzako Zerbitzuen eta Kirolen Saileko zinegotziaren ebazpena tarteko, 2012ko otsailaren 7an jakinarazi zitzaion isunari buruzko kexa aurkeztu digu herritar batek. 1.500,00 euroko isuna jarri zaio eta 2013ko abenduaren 31ra bitartean (bi urte) udalaren gizarte etxe eta instalazioak erabiltzeko debekua jarri diote, Gizarte Etxeen

Araudiko 36 b) artikuluan jasotako hutsegite larri baten erantzule izan den aldetik. Isuna honako ekintzetan oinarritu da:

“ erabiltzailearen jokabide ezegokia... / aurreko batzuetan izandako legez kanpoko jokaerak errepikatu ditu, haserrea, ahotsa altxatzea, irainak, mehatxuak... eta honek guztiak zerbitzuaren funtzionamendu egokia aldatzen du ... / erabiltzailearen jokaera etika eta errespetu gabea eta xenofobotzat jotzen da”.

2.- Arazoaren azterketa

Aipatutako zigor prozedura erabateko deuseztasun-akatsa dela uste dugu, izan ere egozten zaizkion gertaerak sailkatu eta adierazi baino ez dira egin; ez daude inolaz ere zehaztuak eta honek BABES GABEZIA eragiten dio. Adibide gisa jaso dira modu zehaztugabeen: haserrea, ahotsa altxatzea, irainak, mehatxuak... baina ez da zehazten zein diren balizko hitz mehatxagarri eta iraingarri horiek. Egoera hori honakoarekin pareka dezakegu: pertsona bat "ebatsi eta lapurtzeagatik" zigortzea eta zer ebatsi duen edo zein indarkeria mota erabili duen ez zehaztea. Parekoak dira bi kasuak.

Zerrendatze hutsa izan da, ekintzen sailkapena aurreratu egiten du, eta horiek jakintzat jotzen dira deskribatu beharrik gabe. Ekintzak horrela kalifikatzeak BABESGABEZIA sortzen du, eta **Konstituzioaren 9. artikulua urratzen du**. Edozein prozeduratan ekintzak deskribatu egin behar dira modu zehatzean, opakotasunik gabe, eta ondoren, sailkatu isun mota jarri ahal izateko.

20/92 Legearen 62.1 artikulua aplikatzekoa da hemen, bertan zehazten baitira ERABATEKO DEUSEZTASUN kasuak.

3.- Ebazpena

Azaldutakoa oinarritzat hartuta, hauxe GOMENDATZEN DUGU: indarrik gabe uztea delako ebazpena (2011/37 dosierra) kasu zehatz honetan, eta GOGOAN HARTZEA zigortze prozedura guztietan defentsarik eza sortzen duten praktikak bazter

uzteko premia —hala nola gertakarien sailkapena aldeztu aurretik erabakitzea, horiek zerrendatzea, baina arau-hauste diren hitzak edo jokabideak zehaztu gabe —, hartara dosierra abiarazi zaion interesdunak bere burua aldeztu izan dezan.

b) Idazki lagundua

- Gizarte etxean sartzea galaraztea (erreg. zk.: 1630 / 11)

Erreklamazioa

Inolako arrazoirik gabe gizarte etxean sartzea galarazten diotela salatu du herritar batek.

Azterketa eta ebazpena

Udalari aurkezteko idazkia egiten lagundu diogu.

2.3.8.- Funtzio Publikoa

2.3.8.1- Zuzendaritza

a) Ezestea

- Funtzio Publikoan sartzea (erreg. zk.: 1439 / 11)

Erreklamazioa

Udalak kontraturiko herritar batek funtzio publikoan sartzeko eskubidearekin lotutako kexa hau azaldu digu:

1.- Kontratazio lan politen kudeaketa gardenagoa izan dadin eskatzen du, eta horretarako Udalaren lan politetan dauden pertsonen zerrenda eskatzen du, zerrendako hurrenkera eta hizkuntza eskakizuna zehaztuta, beste administrazio publiko batzuetan (Osakidetza, Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea) bezala, haiek web-guneetan jartzen baitituzte zerrendak, bai eta aldi berean behin eguneratzen ere. Neurri hori ohikoa da administrazioetan, eta sindikatu guztiek eskatu eta aldeztu dute. Zerrendak argitaratzeari uko egiteak kontratazio irregularren susmoa sor dezake.

2.- Kontrol ofizialen eta atezainen lanpostu zerrenda lanpostuei buruzko informazioarekin: kokapen fisikoa eta plaza kopurua, hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkotasun data eta iraungita dagoen ala ez.

3.- Kontrol ofizialen eta atezainen programa kontratuen zerrenda, hasiera data eta lanpostuaren kokapena zehaztuta.

4.- Aldi baterako lanpostuetan sartzeko 45 urte baino gehiago duten aldi baterako langileei hizkuntza eskakizuna ez eskatzeko aukera azter dadila.

5.- Nahigabea eta kezka adierazi nahi dute, alderdi politikoen, sindikatuen eta udal lanpostuei (bereziki kontrol ofizial-atezainen lanpostuei) hizkuntza eskakizunak esleitzeaz arduratzen diren teknikarien jarrera dela eta, ziur daudelako Gasteizko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko IV. Planak (2008-2012) zehaztutakoa gainditzen duela; plan horrek Gasteizko udalerriko erroldaren euskaldun ehunekoa kontuan hartu behar du.

2.- Sindiko-Herritarren Defendatzailearen ahalmena langileen alorrean esku hartzeko

Sindiko-Herritarren Defendatzailearen araudiaren 23. artikulua xedatutakoaren arabera, langile eta funtzionario harremanak haren eskumenetik kanpo daude. Funtzio publikoan sartzeko eskubidea, ordea, izan daiteke Sindiko-Herritarren Defendatzailearen eskumenekoa, kontratatze modu eta bitartekoekin lotutakoak lan edo funtzionario harremana sortu aurretik herritarrak duen eskubide bati baitagozkie.

3.- Funtzio Publikoaren Sailaren irizpideak. (Hautaketa Atala)

A) Eskatutako hizkuntza eskakizunak gehiegizkoak direla eta, hau jakinarazten da:

- Hizkuntza politika.

Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (7/2007 Legea) 56.2 artikuluan hau ezartzen du enplegu publikoa lortzeari dagokionez: “Herri Administrazioek, beren

eskumenen eremuan, aintzat hartu beharko dute hautatutako enplegatu publikoek lanpostuak betetzeko behar adinako gaitasuna izan beharko dutela bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia-erkidegoetan”.

Hizkuntza eskakizunak galdatzea legezko agindua da, **Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen** irizpideei jarraituz.

Lanpostu Zerrendako lanpostuei esleitutako hizkuntza eskakizunak Udalean hizkuntza normalizatzeko landutako lau planen ondorioa da, eta azkena 2008-2012 epeari dagokio.

IV. Planaren esleipen prozesua 2008ko irailaren 21ean abiarazi zen, eta sindikatu, alderdi politiko, gizarte erakunde eta herritar elkarten arteko negoziazio luzea eskatu zuen. Hizkuntza eskakizunen esleipena sindikatuen ordezkariekin negoziatu zen.

Eusko Jaurlaritzak administrazio publikoen hizkuntza normalizazioari buruz 1997ko apirilean emandako dekretuak eta Eusko Jaurlaritzak 2008an emandako hizkuntza irizpideak zedarritu dituzte bi negoziazio prozesu horiek, eta zorrotz bete dira, jakina.

- Kontratazio zerrenda.

- 19 erreklamaziogileak Kontrol / Atezaintza zerrendan daude.
- Zerrendak **9 urte ditu**, 2000ko LEP egin zenean sortu baitzen.
- **1.192 pertsona** daude zerrendan, eta horiek hizkuntza eskakizun hauek dituzte:
 - 2. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea: 562 (% 47)
 - 1. hizkuntza eskakizuna: 107 (% 9)
 - Ez dute HE egiaztatu: 523 (% 44)

- Kontroleko ofizialak, Oinarrizko Mantentze lanekin.

Zerrenda hori D taldeko lanpostuak betetzeko erabiltzen da, eta guztietan jendearekiko harreman ugari izaten da (atezainak, kontrol ofizialak, telefonariak...)

Oinarrizko mantentze lanak egiten dituzten kontrol ofizialei dagokienez, hauek dira hizkuntza eskakizunei buruzko datuak:

- Kategoria horretako lanpostu zerrendako lanpostuak: **144**.
- 2. HE duten lanpostu zerrendako lanpostuak: 89 (% 62)
- 2. HE eskatzen ez den lanpostu zerrendako lanpostuak: 55 (% 38)

B) Hautatze prozesuei dagokionez, hau jakinarazten da:

- Langileak orokorrean eta mantentze lanak egiten dituzten kontrol ofizialak zehazki, horri buruzko **araudiari jarraituz hautatzen dira**. Hain zuzen ere, araudiaren **17. artikulua** ezartzen du hautaketa bat egiteko orduan **nahitaez hartu behar direla kontuan kontratazio eskaintzaren ezaugarriak eta sartu ahal izateko betebeharreko baldintzak** –eta horien artean hizkuntza eskakizuna aipatzen da–, zerrendako hurrenkera eta zerrenda kideek adierazi dituzten parte hartze-mugak.

- Hautaketa Atalaren jarduera protokoloaren arabera, berriz, presazko kasuetan, zerrendan **ez badago laneratzeko gertu dagoen** eta betekizun guztiak betetzen dituen hautagairik, **hizkuntza eskakizunaren kasuan**, eta langilea behar duen zerbitzuak **baimentzen badu, HE baxuagoa (hurren-hurreneko mailakoa) duten hautagaien artean egiten da hautaketa**.

- Hautaketa Atalaren jarduera protokoloa da halaber, kontratazio zerrenda guztietarako eta bereziki **kontratazio bolumen** handia dutenentarako (atezaintza, osasun langileak, ostalaritza, garbiketa...), eta garai jakin batzuetan, **kontratazioen eskaintza aurreratzea, sortzen diren beharrei erantzun ahal izateko**. Aztertzen ari garen kasuan, udako kanpaina (85 kontratu) eta atezaintzako langileen oporrak zirela eta aurreratu zen.

- **Lanpostu huts bat bakarrik 3 egun lehenago eskaini** dela salatzen dute. Kontuan izan behar da lanpostu huts bat zerrendari eskaini aurretik langilea behar duen zerbitzuaren eskaera arrazoitua eta Antolakuntza Zerbitzuaren baimena eskatzen direla. Bestetik, **lanpostu hutsak** baimentzen diren unean eskaini arren, **“kontratua hobetzeko” sistema** baliatu beharra dago. Horrek esan nahi du lehenengo lanean ari direnei eskaini behar zaiela lanpostua, eta haiek aldi batez pentsatu ondoren uko egin diezaioketela eskaintzari. **Sistema hori bereziki motela** eta kudeatzen nekeza da, eta pertsona bati eskaintza denbora gutxiz egitea ekar dezake.

- **45 urte baino gehiago izateak ez du salbuesten hizkuntza eskakizuna egiaztatetik.** Salbuespena bakarrik gerta daiteke lanpostu baten titularra 45 urtetik gorakoa izanik lanpostuaren jabea denean –inoiz ez bitarteko langilea–, eta lanpostuak aurretik derrigortasun datarik ez bazuen lanpostuari data esleitzen zaionean. Salbuespen horrek ez du balio gerora sortutako egoerak direla eta (45 urte betetzea derrigortasun data duen lanpostuan) ez eta eskatzen duten beste lanpostu batzuetan sartzeko (hornitzea).

- **Kontrol ofizialen zerrenda handitzea.** Otsailaren 2an, Herritarren Postontziaren bidez, ez zela aurreikusten Kontrol eta Atezaintza kontratazio zerrenda handitzea jakinarazi zen. Izan ere, bazegoen nahikoa hautagairik udako kanpainian sor zitezkeen langile beharrak betetzeko. Hala ere, **Zerrenden Jarraipen Batzordea ohartu zen zerrendan laneratzeko prest nahikoa hautagai egon arren, D taldeko zerrenda batzuetan HE nahitaezkoa zen lanpostuetan oso gutxi zeudela**, eta beraz, zerrendak 2. HE egiaztatzen zuten pertsonekin handitzeko deialdia egin zedin eskatu zuen.

- **Hautaketa sistemaren gardentasuna.** Gasteizko Udaleko aldi baterako kontratazio zerrenden sistemak lanpostuen **betekizunak, zerrendako hurrenkera** eta hautagaien **parte hartzeko baldintzak kontuan hartuz funtzionatzen** du. Funtzionamendurako **araudi** bat eta kontratazioetarako **kontrol organo** bat daude. Bestetik, zerrendako edozein kidek jakin dezake, edonoiz eta datuak eguneratuta, zein den bere egoera kontratu mota jakin batentzat, web-orrian dagoen **simulatzailari** esker. Azkenik, **hautatze prozesu bakoitzaren emaitzak** –zerrendaren hurrenkera osatzeko baliatzen direnak– web orrian argitaratzen dira, eta **kontsulta publikorako** argitaratzen dira, hautatze prozesua bukatu arte.

- Erreklamaziogileak azaldutako argudioen artean hauxe da sendoena: baliteke gehiegizkoa izatea atezaintzako lanpostu batzuetarako hizkuntza eskakizun jakin bat eskatzea titularretakoren batek dagoeneko euskaraz hitz egiten duenean, horrek zerbitzuaren elebitasuna bermatuko bailuke, betekizuna gainerako atezainei zabaldu gabe. Argudio horrekin lotuta, lanpostu zerrendako kontrol ofizialen zerrenda eskatzen da, derrigortasun datari eta lanpostua atxikita dagoen lanlekuari buruzko informazioarekin.

Lanpostu zerrendan, ordea, unitate jakin bati esleitutako lanpostu baten dotazio kopurua agertzen da. Dotazio bakoitzak derrigortasun data bat du esleituta, eta horrek dakar betekizun gisa galdatzeko beharra (ala ez).

Hala ere, **dotazioen ezaugarriak –kokapena, txandak...– ez dira lanpostu zerrendaren barruan** zehazten, destino atalaren irizpidea baita, beharren arabera. Kasu horretan, atalaren zuzendaritzak baliabideak ahalik eta zerbitzu onena emateko moduan banatu beharko ditu, zenbait irizpide kontuan hartuz, besteak beste, jarduera mota, lanleku bakoitzeko dotazio kopurua eta abar.

3.- Ondorioa

Ezin izan diogu kexari lehenago erantzun Funtzio Publikoak denbora luzea behar izan duelako txosten osoa bidaltzeko; izan ere, txostena ezinbestekoa zen, kasuaren konplexutasun teknikoa eta eragindako hirugarrenen eskubideak kontuan hartuz.

Gure ustez, Udalak emandako azalpenek erreferentziazko arauak zuzen interpretatu direla erakusten dute eta ez dago ezer gaitzestekorik hautaketa sistemaren legezkotasunari eta administrazioari dagokienez, ez eta zehazki hautaketan euskara dela egindako balioespenari dagokionez ere.

- 2011ko Udaltzaingoko LEP (erreg. zk.: 50/11 ofizioa)

Erreklamazioa

Egunkarietan LEParen prozedurari buruzko hainbat berri agertu direlarik, kontu horren inguruan orientabidea eta iritzia emateko eskatu digute zenbait udal teknikaririk.

Azterketa eta Ebazpena

Udalak egindako hainbat txosten aztertu ondoren, Sindiko honek uste du administrazioa egoki ari dela jokatzeko, gai honetan.

2.3.9.- Eraikinetako mantentze lanak

2.3.9.1- Zuzendaritza

a) Gomendia

- Ariznabarreko Recreativo taldearen kirol instalazioen egoera (erreg. zk.: 1623 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Ariznabarreko Recreativo taldearen instalazioen egoerari buruzko kexa aurkeztu digu herritar batek. Etxebizitzak mugakide dituen aldeko hesitura oso gaizki dago, hesiak baxuak dira eta zulo anitzekoak. Horren ondorioz baloiek maiz jotzen dute etxebizitzaren fatxada eta leihoetan. (argazkiak erantsi dira)

2.- Arazoaren azterketa

Bide publikoan dagoen eremu irekia denez, bertan egiten diren jardunak Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Sailaren eskumenekoak dira.

Udal langileek bertara joan dira eta herritarrak aurkeztutako erreklamazioa arazoitua dagoela ikusi ahal izan dute, izan ere Gaztelako ateko ETXEBIZITZEN ATZEKO ALDEAN KOKATUTA DAGOEN ATEAK ez du baloiek gelditzekorik. Ormigoizko harresi bat, oinezkoentzako bidearekiko altuerara, eta erraz okertzeko 2 metroko altuera duen sare bat bakarrik daude. Honek guztiak babeserako elementu osagarriren bat jartzea gomendatzen du, salatutako egoera berriz gerta ez dadin.

3.- hauxe GOMENDATZEN dugu:

Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Sailari Ariznabarreko futbol zelaiko atean –Gaztelako ateko etxebizitzaren atzeko aldean kokatuan- babeserako elementu osagarria jar dezala, izan ere ate horrek baloiek geratzekorik ez duenez, enbarazu egiten baitiote etengabe bizilagunei eta etxebizitzan kalteak eragin baititzake.

2.3.10.- Udal sozietate anonimo eta erakunde autonomoak Udalarenak

2.3.10.1- Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentzia

a) Ezestea

- Kableak fatxadetan (erreg. zk.: 1455/11)

Erreklamazioa

Lehendik landutako gaia dugu honakoa, aurreko oroit-idazkian ebatzi gabe geratu zena txosten baten zain geundelako. Oroit-idazki hau aurkezteko momentuan, jada, txostena jaso dugu eta ebazpena eman dugu.

San Bizente Paulekoaren kaleko XXXX.eko eta Santa Ana kantoiko XXXXXXX.eko fatxadetan dauden elektrizitate kableek eragiten duten arriskua dela eta premiazko neurriak hartzeko eskabideari Gasteizko Udalak gustuko erantzuna ez duela eman salatu dute herritarrek.

Azterketa

Hiria Birgaitzeko Zerbitzuarekin harremanetan jarri garela adierazi diegu eta honakoa esan digute:

“... 24/01ean adierazitako etxejabeen elkarteen ordezkariaren idazkiari buruzko txostena eman zen gai horrekin lotuta. Txosten horretan, elkarteari emandako lizentziaren ebazpenak xedatzen zituen baldintzetako hiru betetzen ez zituztela ohartarazten zitzaien, hain zuzen, barruko zein kanpoko fatxadak erabat konpontzeko elkarteari emandako lizentziaren baldintzak. (... xxxxx SL enpresaren aldetik, kontratatutako enpresak berrantolatu behar zituenak...)”

Udalaren agentzia honetako teknikariek behin eta berriro eskatu diete hori etxejabeen elkarte horietako ordezkari desberdinei, baina gaur egun arte ez da ezer lortu.

Horregatik, eta txosten horretan adierazi bezala, Hiria Birgaitzeko Zerbitzuko arkitekto buruak berriro egiten die errekerimendua etxejabeen elkarte horiei “Iberdrolaren garai bateko instalazio, kable eta hartuneak berrantolatzeko, bere garaian Udalak jarritako baldintzekin bat etor daitezen.”

Bukatzeko, gaur egun arte, administrazioaren jarduna indarrean diren legeekin bat datorrela esan behar dugu, dena den, errekerimendua egin zaien etxejabeen elkarrekin egoki erantzun ezean Udalak HERTSATZEKO ISUNAK jar ditzake eta jarri behar ditu ezarritako betebeharrak bete ditzaten. Jardun hori GOMENDATZEA izango da gure zeregina, beharrezko balitz.

Ebazpena

EZESTE

- Errementari kaleko eraikin bateko estalkian obrak egiteko diru-laguntza (erreg. zk.: 1525/11)

Erreklamazioa

Errementari kaleko XX.eko etxejabeen elkarrekin kexa aurkeztu du, ARICHEk ukatu egin diolako eraikinaren estalkia birgaitzeko eskatutako laguntza. Badute obra lizentziarik, 2010/12/23an emandakoa, eta 1999an birgaitzeko agentziak berak eman zituen laguntzak fatxadak eta estalkiak berritzeko, beraz, kontraesana da, eta aurrekaria aldatzea.

Azterketa

Higiezinaren hirigintza erreferentziak kontsultatu ditugularik, Errementari kaleko XX.eko etxea Erdi Aroko hiriguneko BBPBan “oinarrizko babesa duen elementutzat” dago katalogatuta eta EKO-EO1 Kontserbazio-ordenantza aplikatu behar zaio. Bestetik, estalkiak terraza bat du, kalera ematen duen fatxadaren lehen hormarte osoa hartzen duena, eta hori antolamendutik kanpo dago.

ARICHEk 1999an emandako laguntzak 1. B etxebizitzari dagokion lanak bezala dauzka jasota, eta horiek ez zioten estalkiari eragiten. Edonola ere, BBPBaren 42.8 artikulua argitan, higiezina antolamendutik kanpo dago zalantzarik gabe, eta ezin da aurrekari batez hitz egin hori legearen kontrakoa bazen.

Hori guztia aintzat harturik, ondorioztatu beharra dugu ARICHen jardueraren zuzenbidearen arabera izan zela estalkian lanak egiteko laguntza ukatzean, horiek udal lizentzia bazuten ere.

Ebazpena

EZESPENA

b) Bitarteko jarduera

- Zaratak auzokoen artean (erreg. zk.: 1510/11)

Erreklamazioa

Herritar batek bere eraikinean (Diputazio kaleko XXXean) auzokoez egiten duten zarata salatu du, eta enbarazu horri aurre egiteko diru-laguntzen edo bestelako baliabideen arloko orientabidea eskatu digu.

Azterketa

Gai horren inguruan Gasteizko Udalak igorri digun txostenaren berri eman diogu. Hauxe dio: *Diputazio kaleko xx.eko eraikinarentzat bada isolatze akustikorako laguntzarik. Baldintzak aldatu egiten dira egin nahi den lan motaren (isolatua edo bateratua) eta bizilagun bakoitzaren familia eta ekonomia egoeren arabera.*

Ebazpena

Informazio horren berri eman diogu herritarrari. BITARTEKO JARDUERA.

- Igogailua jartzeko diru-laguntza (erreg. zk.: 1532/11)
- Plastikozko lorontziak Erdi Aroko etxarteetan (erreg. zk.: 1418/10)

Erreklamazioa

Bulegora etorri den herritar batek adierazi digu beldur dela bandaloek ez ote ditzaketen etxarteetan jarritako lorontziak erre eta etxebizitzetara kalteak eragin.

Azterketa eta Ebazpena

Bertara ikuskatzera joan eta ARICHEko teknikariek bildu gara. Haien jakinarazi digutenez, etxarte guztiak giltzaz itxita daude, eta giltza arduradun batzuen esku daude, beraz, inor ezin da laguntzarik gabe etxarteetan sartu eta horrelakorik sortu.

- Prostituzioa Barnekale Berrian (erreg. zk.: 1544,1549,1569,1571,1572,1573/11)

Erreklamazioa

Barnekale Berriko bizilagunek hainbat kexa aurkeztu dizkigute DESKARO eta PARAIISO tabernen inguruan egiten den prostituzio nabarmenak eragiten dituen

bizikidetza arazoak direla eta. Gai horrekin zerikusia duten udal zerbitzuetan hainbat kontsulta egin ondoren, gutuna bidali dugu etorkizunean egingo diren hainbat ekimen jakinarazteko.

Azterketa eta Ebazpena

- A) Bizilagunen esanetara jarri gara, proxenetismo zantzuak direla-eta taberna horien titularren kontrako salaketa jartzeko epaitegietan, egoki baderitzote.
- B) Administrazioaren debekua arautzeko gizalegari buruzko ordenantza baten proposamena egin ala ez aztertzen ari gara. Horren arabera bezeroak eta kalean zerbitzu sexualak eskaintzen dituen pertsonak isuna izango lukete.
- C) Urriaren 28an prostituzioari buruz egongo den jardunaldi batzuetara ere joatekotan gara. HIESaren aurkako batzordeak antolatu du "La prostitución a debate" izeneko jardunaldia eta sindikoaren bulegoa izango da lan-mahai baten moderatzaile. Han biltzen diren adituen artean ateratako ondorioak baloratu nahi ditugu.
- D) Erdi Aroko Hirigunea Era Integralean Eraberritzeko Agentziako arduradunekin bilera izan dugu kexen berri emateko eta gai horretan lanean dihardutela aipatu digute. Hainbat ildo lantzen ari dira:

D1.- polizien presentzia handiagoa izatea inguru horretan, hartara jendeak ez baitu horrenbeste baliatuko.

D2.- gaia modu orokorrean lantzea. Sail desberdinetako arduradunak biltzeko mahaiak sortzea (gizarte segurtasuna, ingurumena, hirigintza, Demsa eta HHEIBA) Erdi Aroko Hiriguneko eremu estrategiko batean dagoen jarduera mota hori amaitzeko.

BITARTEKO JARDUERA

d) Orientabidea

- Errementari kaleko eraikin bateko estalkian obrak egiteko diru-laguntza (erreg. zk.: 1525/11)

Erreklamazioa

Errementari kaleko XX.eko etxejabeen elkarteak kexa aurkeztu du, ARICHEk ukatu egin diolako eraikinaren estalkia birgaitzeko eskatutako laguntza. Badute obra lizentziarik, 2010/12/23an emandakoa, eta 1999an birgaitzeko agentziak berak eman zituen laguntzak fatxadak eta estalkiak berritzeko, beraz, kontraesana da, eta aurrekaria aldatzea.

Azterketa

Higiezinaren hirigintza erreferentziak kontsultatu ditugularik, Errementari kaleko XX.eko etxea Erdi Aroko hiriguneko BBPBan “oinarrizko babesaren elementutzat” dago katalogatuta eta EKO-EO1 Kontserbazio-ordenantza aplikatu behar zaio. Bestetik, estalkiak terraza bat du, kalera ematen duen fatxadaren lehen hormarte osoa hartzen duena, eta hori antolamendutik kanpo dago.

ARICHEk 1999an emandako laguntzak 1. B etxebizitzari dagokion lanak bezala dauzka jasota, eta horiek ez zioten estalkiari eragiten. Edonola ere, BBPBaren 42.8 artikulua argitan, higiezina antolamendutik kanpo dago zalantzarik gabe, eta ezin da aurrekari batez hitz egin hori legearen kontrakoa bazen.

Hori guztia aintzat harturik, ondorioztatu beharra dugu ARICHen jardura zuzenbidearen arabera izan zela estalkian lanak egiteko laguntza ukatzean, horiek udal lizentzia bazuten ere.

Ebazpena

EZESPENA

- Datuak babestea (erreg. zk.: 53/11 ofizioa)

Erreklamazioa

Alderdi politikoak udal teknikariengana joan ohi dira ematen diren diru-laguntzen inguruko txostenak eskatzera, eta langile horiek horrelakoetan zer egin dezaketen adieraz diezaiegula nahi dute.

Azterketa eta Ebazpena

Idazkaritza Nagusiak horren inguruan duen jarrera jakinarazi digu txosten baten bidez. Hau aztertu dugularik, bat gatoz bertan adierazitakoarekin. Bertan jasotzen denez, alderdiek eskaria egiten dutenean agiriak eskuratzeko eskubidea dute, baina, hala ere, informazioa zuzen eta zentzuz erabili beharra dute. Informazio hori beste zerbaiterako erabiliz gero, agiri horiek jaso dituenaren ardura izango da. Bestalde, diru-laguntza jaso duen herritarren batek bere datu pertsonalak erabili direlako kalte egin diotela pentsatzen badu, bulego hau Datua Babesteko Euskal Erakundearen aurrean salaketa jartzeko prest dago.

d) Gomendioa

- Etxarte “okupatua” (erreg. zk.: 1548/11)

Erreklamazioa

Herritar batek jo du gure bulegora, eta salatu du Aiztogile kaleko x. zenbakiko ETXARTEA hartu egin duela xxxxxxxx-k, zeina Aiztogile kaleko XX higiezinaren jabea baita. Esan digunez, xxxx jaunak 10 urte baino gehiago darama etxartea erabiltzen, herri eskupekoa izan arren. Hain zuzen ere, Aiztogile kaleko “xxxx” tabernaren jabeak dira, eta etxartea biltegitzat baliatzen dute, establezimenduaren atzealdean egonik bertara sar baitaitezke. Gainera, etxartea nola dagoen erakusteko argazkiak ekarri dizkigu: bertan ikus daiteke etxartea banatuta dagoela, eta estalpe bat eta egurrezko etxetxo bat daudela, bai eta tresna pila bat (sorgailu elektrikoa, butano bonbonak, edari kutxak, hozkailu bat...) ere.

Etxarte horren titularitatea Udalarena da, eta jabetza publikokoa izanik, ezin da ez besterendu ez preskribatu, eta hura zaindu, babestu eta defendatzeko ardura udal eskumenekoa da azken batean.

Dagoeneko 1998an egin zitzaion errekerimendua xxxxxxxx jaunari, Eraikuntzen Legezko Jaurbiderako Zerbitzuaren txostenean oinarrituz, etxartean eraikitako estalpea eta etxola ken zitzaiz.

Bederatzi urtez behin eta berriro eskatu zaio estalpea eta egurrezko etxola kentzeko, baina xxxx jaunak ez du jaramonik egin.

Azterketa

10 urte baino gehiago igaro delarik, ikusi da ebazpenak ez direla bete: ez ditu estalpea eta etxola etxartetik kendu, Udalak ez du modu subsidiarioan obrarik egin, eta ez da kasu hauetarako aurreikusten diren hertsatzeko isunik ezarri.

Gure ordenamendu juridikoak leku berezia aitortzen dio Administrazio publikoari, partikularrena ez bezalako; bere ezaugarrien artean, Administrazio Publikoari autotutoretza-boterea errekonozitzen zaio, beste batzuen artean. Alegia, Administrazioak bere kasa ekin dezake bere eskubideen defentsan, ez du (partikularrek ez bezala) jurisdikzioaren laguntzaren beharrik.

Autotutoretza deklaratioa - Administrazio publikoari bere eskubideak aitortzeko eskumena ematen dio, hau da, egoera juridikoak edo edukitzak aldaraz ditzake;

Autotutoretzaren oinarria Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 57. artikuluan dago: [...] ***administrazio-zuzenbidepeko egintzak baliozkotzat joko dira eta izenpetzen diren egunetik izango dituzte ondorioak.***

Gainera, 56. artikulua honela dio: ...lege honetan xedatutakoaren arabera izango dira bete beharrekoak.

Autotutoretza betearazlea - bere eskubideak deklaratu dituen bezala betearaztea ahalbidetzen dio Administrazio publikoari, baita partikularren borondatearen aurka ere. Autotutoretza betearazlearen bidez, bete betearazpenak praktikara eramateko gaitasunean dauka, eta derrigortze-bidera jo iritsi daiteke, epaitegiak kontuan hartu gabe. Bere funtsa 30/92 legearen 56. artikuluan eta, bereziki, 95.ean dago.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 203. artikuluan xedaturikoaren ildotik, Udalak eraikinak konpontzeko, zaintzeko eta zaharberritzeko lanak gauzatzeko aginduak eman behar ditu, eraikinok hondatuta edo bidezko erabilerarako egoera desegokian daudenean. Betearazteko agindu horien

izaera betearazlea izango da eta justifikaziorik gabe betetzen ez badira administrazioak hertsatzeko isunak jarri ahal izango ditu.

Aztertzen ari garen kasuan badira aurretiaz zenbait deklarazio-ekintza, eta hartaratutako pertsonak bete egin behar ditu, edo, azken batean, Udalak berak, bere titularitatearen jabari publikoa babesteko. Erdi Aroko Hiriguneko etxarteek beren ondoko erakinetako sarbidea, segurtasuna eta osasuna bermatzeko asmodun zerbitzubide-sarea osatzen dute; beraz, horiek zaindu eta babestearen garrantzia goi mailakoa da.

Proposamen horren aurrean, planteatzen dugu honako

Gomendioa

Aiztogile kaleko x.eko atzealdean dagoen etxartean dauden eraikuntzak bertatik kentzeko eman diren ebazpenak Udalak berak subsidiarioki betearaz ditzala GOMENDATZEA, titularitate publikoko etxarteak babesteko beste egintza administratibo batzuen, edo, behar izanez gero, Erdi Aroko Hiriguneko etxarteak inbaditzearen erantzukizuna duten partikularrek bere gain izan lituzketen erantzukizunak eta zigorrak gorabehera.

- Bide publikoan egindako obrek atarian eragindako kalteak (erreg. zk.: 1648 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

San Frantzisko Xabierkoaren kantoiko bizilagun batek, bere izenean eta atariko jabeen elkartearen onerako, atariak dituen akats batzuen inguruko kexa aurkeztu digu, izan ere akats horiek Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentziak (HHEIBA) kale hori egokitzeko burututako lan batzuen ondorio dira. Honakoak dira akats horiek:

- 1.- Atarian dagoen kontagailuen armairutxoak pintatu gabe dago
- 2.- Atarira sartzeko atea berrikusi egin behar da eta sarraila konpondu ez dabil eta.
- 3.- Argi hartunerako estalkia jarri behar da
- 4.- Atariko zokaloa konpondu behar da.

2.- Arazoaren azterketa

Kexa honakoetan oinarritzen da: erantzukizun orokorraren printzipioan, Kode Zibilean (1902) eta Administrazio Publikoen ondare erantzukizunaren printzipioan, hauek HHEIBARI ere eragiten baitiote.

Kaleko zoladura sendotzeko lan horiek HHEIBAREN erantzukizunpean egin ziren, eta lanek hainbat kalte eragin dituzte atarian. Horietako batzuek konpondu diren arren, badira beste konponketa txiki batzuk egiteko eta, txikiak badira ere, ez dagozkio jabeen elkarteari; HHEIBAK hartu behar ditu bere gain.

3.- Ebazpena

Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentziak aipatutako kaleko XX zenbakiko etxejabeen elkarteari egindako kalteak (aipatutakoak) ordaindu behar dituela GOGORARAZTEN diogu, kalte horiek kaleko zoladura sendotzeko lanen ondorio izan baitira.

2.3.10.2-XXI Zabalgunea

a) Bitarteko jarduera

- Olarizukoei ostatu ematea: etxebizitza neurtzea (erreg. zk.: 1503/11)

Erreklamazioa

Bulegora jo du herritar batek eta ostatua emateko eta “Esmaltaciones-Olarizun” “etxebizitza trukatzeko” XXI Zabalgunearekin izenpetutako akordioan Udalak artxiboan jasotako azalera aintzat hartzen duela eta ez benetakoak adierazten du. In situ neurketa egiteko eskatu badu ere Udalak ez du onartu.

Azterketa

XXI Zabalgunea delakoarekin harremanetan jarri eta adierazi digutenez, *eskatutako benetako neurketa egin dezakete, baina auzokideek metro eraikiak eta metro erabilgarriak nahasten dituzte, beraz, esaten dutena ez da egia. Neurketa hori egiten bada lortzen den emaitza onartu beharko dute auzokideek.*

Informazio hori helarazi diegu auzokideei eta neurketa onartu dute zalantzarik gabe.

Ebazpena

BITARTEKO JARDUERA

- Olarizukoei berriro ostatu ematea: kalitateen memoria (erreg. zk.: 1640/12)

Erreklamazioa

Gure bulegora etorri den herritar batek jakinarazi digunez, hainbat aldiz eskatu du Olarizukoei emandako ostatu berrien kalitateen memoriari buruzko informazioa XXI Zabalgunea sozietatean baina ez du erantzunik jaso.

Azterketa eta ebazpena

Sailak informazioa eman digu eta huraxe helarazi diogu herritarrari.
BITARTEKO JARDUERA

b) Gomendioa

- Errekaleorrekoei ostatu ematea: etxebizitza trukea (erreg. zk.: 1508/11)

Erreklamazioa

Desjabetzeko ez den jarduera isolatutzat jo zen Errekaleorreko hiri lurraren eremua eta eraitsi beharra zegoen. Herritar batek bulegoan jakinarazi digunez, horren ondorioz, herritarrak berriz ostatu emateko hitzarmena izenpetu zuen XXI ZABALGUNEA GASTEIZKO UDAL HIRIGINTZA ELKARTEA delakoarekin. Hala ere, herritarrak salatu digunez, **XXI Zabalgunea elkarteak eten egin du berriz ostatu emateko hitzarmena. Elkarteak herritarrari adierazi dionez, etxebizitza hori okupatuta egotea, eta ondorioz berriz ostaturako eskatzen zen kargetatik libre ez egotea da hitzarmena eten izanaren arrazoia.**

Azterketa

Hona hemen 2010eko ekainaren 11n izenpetutako hitzarmen horren baldintzak:

HIRUGARRENA.-Etxebizitza karga, zerga, alokairu eta bizilagunik gabe dagoela eta dagozkion zergak ordainduta dituelarik erosiko du **ELKARTEAK**. Orobat ordainduta izan behar ditu dagozkion komunitate gastuak.

Beraz, prezioetik kendu egingo zaizkio zerga eta kargei dagozkien kopuruak, baita karga horiek bertan behera uzteagatik izan daitezkeen gastuak ere, salerosketako eskritura emateko unean halakorik izan bazen.

ELKARTEAK etxebizitza jabetza erregistroan sartzeko behar diren agiriak izenpetzeko unean ordainduko du.

LAUGARRENA.- **JABEAK**, kontratu honek bere baitan hartzen duen etxebizitzako bizilaguna del aldetik, **ELKARTEAREN** baimenik izan ezean bere etxea hirugarrenei erabiltzen ez uzteko konpromisoa hartzen du.

BOSGARRENA. Desjabetzea gertatu artean etxebizitza okupatzearen inguruko baldintza betetzen ez bada, ezinezkoa izango da ordezko etxebizitza ematea, izan ere, etxebizitza okupatuta egotearen baldintza funtsezko arrazoia baita trukea gerta dadin.

Ostatu hartzeko zain dagoen bizilaguna etxebizitzaren jabea eta legezko okupatzailea da, izan ere bertan erroldatuta dago. Arazoa hau da: bizilagun hori kanpoan zela, ezezagun batzuek (gaizkile arriskutsuak) etxebizitza erabiltzen hasi ziren, eta legez kanpo erabiltzen dute. Bizilagun jabeak salaketa egin duela, etxea okupatu izanagatik horien kontrako zigor bidea abiarazi du fiskaltzak. Egoera hau ezin zaio eskatzaileari egotzi, izan ere "familiako guraso on batek" bezala jokatu du, eta ez dio etxea inori erabiltzen utzi eta kargatik libre izan du. XXI Zabalgunea egoera honen eta eskatzailearen jokaera zuzenaren jakitun da, izan ere bere etxea okupatu izana salatu baitu (**1. zk. agiria aurkeztu du**).

Kaleko hizkeran etxebizitzaren "okupazio" izenez ezaguna den egoera hau ez da legezko okupazio edo uzte gisa hartu behar, bizilagunari egotzi ezin zaion usurpaziotzat baizik, hau da, hirugarrenek fede txarrez egindako usurpaziotzat.

Ekitate kontuak tarteko, ez litzateke truke hitzarmena eten behar, izan ere, etxebizitzaren usurpazioa **ez da karga bere horretan, baizik eta bizilagunari egotzi ezin zaion** eta kalte handiak eragin dizkion legez kanpoko **gertakari bat**. Bizilagunak baliabide guztiak erabili ditu okupatzaile horiek alde egin dezaten.

Bestetik, eta arrazoi praktikoak kontuan hartuta, trukaturako etxebizitza hirugarrenek "usurpatuta" badago ere, printzipioz XXI Zabalgunek ez du ordezkoko etxebizitza emateko arazorik, izan ere ez baitago inolako zalantzarik etxebizitzaren eta titulu justuaren inguruan, eta usurpazioagatik zigor ekintza abiarazia baita (epaia bakarrik falta da). Hain zuzen ere, epaitegiak hainbat asteren buruan botako ditu pertsona arrotz horiek etxebizitzatik eta epe honek ez dio XXI Zabalguneari oztoporik sortzen, etxebizitza horiek eraisteko lanak ez baitaude oraindik programatuta, asko falta da horretarako. Bizilagunaren egoera, berriz, bestelakoa da. Bere familiak eman behar izan baitio ostatu, eta bere lehen semearen jaiotzaren zain baitago.

Azken finean, ordezkoko etxebizitza eskatzen duen herritarraren eta XXI Zabalgunea elkarrearen interesak baloratuta, eta eskatzailearen fede ona eta bere etxean sartu direnak botatzeko egindako diligentziak aztertuta, gure ustez hau da egokiena: trukea eta ordezkoko etxebizitza ematearena etetea eta XXI Zabalgunea elkarrean usurpazioaren salatzaile gisa bizilagunaren lekua subrogatzea.

Horrenbestez, hau ebatzi dugu:

Ebazpena

Ezarritakoarekin bat eta gure araudiak ematen digun eskumenen heinean, XXI ZABALGUNEA GASTEIZKO UDAL HIRIGINTZA ELKARTEARI honako GOMENDIOA egiten diogu: alegazioak kontuan hartuta, eta ekitate arrazoiak tarteko, eskatzaileari ordezeko etxebizitza eman diezaiola, hitzarmenari jarraiki. Izan ere, bizilagunak tituludun jabe gisa jokatu baitu, ez du erabilera emakidarik egin eta etxebizitza legezko kargarik gabe baitago. Hori guztia etxebizitza erabiltzen ari diren hirugarrenen usurpazioaren kontrako zigorra abiaraztea gorabehera (epai zain dago, gero bertatik bota ahal izateko).

c) Ezestea

- Babes ofizialeko etxebizitzaren salerosketa kontratua (erreg. zk.: 1542/11)

Erreklamazioa

Eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitza batzuen esleipendunak kexatu egin dira eraikitzaileak lanak geldiarazi dituelako, ustez finantzazio falta dela eta; enpresak proposatu die "borondatez" ahalegin ekonomikoa egin dezaten eta dirua jar dezaten lana kapitalizatzeko, etxebizitzaren prezioan deskontua egitearen truke.

Eskatutako zenbatekoak lortu ezean, finantza entitateak ez lukeela lana finantzatuko iradoki zuen.

Onartezina iruditzen zaie, onuradun bakarrak eraikuntza enpresa eta finantza erakundea liratekeelako, eta babes ofizialeko etxebizitza batean esleipendunentzat ez lukeelako izan behar ez deskonturik eta ahalegin ekonomiko apartekorik.

Esleipendun batzuek eskatzen dute XXI Zabalguneak sustatzailearekiko kontratua ebatz dezala, ez baitute lana burutuko den bermerik, zozketatik hiru urte eta erdi igaro badira ere.

Azterketa

XXI Zabalguneko arduradunekin bildu eta kasuarekin lotuta egindakoak azaldu dizkigute:

a) Egia da sustapena geldi dagoela, baina ezin zaio egotzi sustatzailearen fede txarrari, finantzaketa faltari baizik. Izan ere, banku entitatea etengabe ari da irizpideak aldatzen, oro har etxebizitzetarako kreditua mugatzen ari delarik jarrera murriztailea hartu baitu.

Hori kontuan izanik, XXI Zabalgunea bitartekari izaten saiatu zen eta zenbait kreditu entitateekin harremanetan jarri zen, Udalak abiarazitako babes ofizialeko sustapenetan duen interesa jakinarazteko, honetan bereziki, eta XXI Zabalguneak interes hori partekatzen duten entitateekin inplikatzeko asmo sendoa duela. Bitartekaritzaren ondorioz, beste banku entitate batek sustapen horren finantzazioa bere gain hartzea lortu zen.

b) Finantzaketa bermatu ondoren, obra lizentzia desblokeatu eta berriro eraikuntza lanei ekin zaie (zimendatzeko hondeaketan argazkiak eransten dira).

XXI Zabalguneak uste du sustapena desblokeatuta dagoela. Dena dela, hurrengo hilabeteetan lanei erritmoari eutsi ez eta lanak berriro geldituko balira –eta kasu horretan bakarrik– XXI Zabalguneak kontratua ebazteko aukera aztertuko luke.

Sustatzaileak edo finantza entitateak esleipendunei egiten dizkieten proposamenen zilegitasuna kontrolatzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren eskumenekoa litzateke hori.

Erreklamaziogileak eskatu duen kontratuaren ebazpena erabaki larria da, eta kasuaren inguruabarrak eta VITORIA-GASTEIZKO HIRI ANTOLAKUNTZARAKO PLANGINTZA OROKORRAREN 12 SEKTOREAN ("ARKAIATE") RCP-3 ETA RCP-6 BIZITEGIETARAKO LURSAILAK BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN SUSTATZAILEEI BESTERENTZEKO DEIALDIAn aurreikusitakoa aintzat hartu beharko lirateke.

Deialdiaren arabera, kasu hauetan erabaki liteke kontratua ebaztea, ondorio hauekin:

“Hitzarmen hau bertan behera uzteko arrazoi izango da agirian finkatutako betebeharrak edozein ez betetzea, etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa ez lortzea nahiz indarrean dagoen legediaren arabera aplikazio orokorrekoa den beste edozein.

- a. Kontratua bertan behera geratuz gero, esleipendunari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, galdu egingo du jarritako bermea, eragindako kalte eta galerak direla eta eska daitekeen kalte-ordaina gorabehera.
- b. Kontratua bertan behera geratuz gero, esleipendunari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, eraikuntza-obrak hasi ondoren, hauxe izango da orubearen balioa: haren gainean dagoen eraikuntza eta bertan bildutako material eta instalazioak agiri honetan ezartzen diren betebeharrak betetzen dituzten etxebizitza-sustatzaileen arteko enkante publikoan saltzetik lortzen denaren ehuneko 85a. Enkantea 21 ZABALGUNEA, S.A.Gasteizko Udal Hirigintza Elkarteak egingo du. Higiezin horiek erosle berriaren alde eskrituratzeko egintzan ordainduko zaio prezio hori kontratua bertan behera utzi zaion esleipendunari.

Ebazpena

Hori guztia kontuan izanik, erreklamaziorik gabe kexatzeko motiborik bazuela ondorioztatzen dugu, baina gure ustez behin salatutako egoera ezagututa XXI Zabalgunea udal enpresaren jokabidea azkarra eta eraginkorra izan da, eta konpondu ditu proiektua gauzatzeko zeuden eragozpenak, beraz, desagertu egin dira babes ofizialeko etxebizitza horien sustapena esleitzeko kontratua bertan behera uzteko leudekeen arrazoiak.

2.3.10.3-Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

a) Ezestea

* Aisialdirako baratzeak Urarten (erreg. zk.: 1519/11)

2.3.10.4- Tuvisa

a) **Orientabidea**

- Lan eskaintza Tuvisan (erreg. zk.: 1616/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du Tuvisako kudeatzaileek bidegabe tratatu dutela lanpostu bat eskuratzea dela eta.

Azterketa

Herritarrek azaldu digunaren arabera, Tuvisako Giza Baliabide eta Kalitate Sailean plaza lortzeko proba guztiak gainditu zituen, eta sei hilabeteko probaldiaren ondoren, ez dela lanposturako egokia jakinarazi diote.

Tuvisako Kontseiluan udal talde politiko guztiak daudenez, entzun diezaioten eskatzen du.

Ebazpena

Jakinarazi diogu udal talde politikoek entzun diezaioten Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezira eraman dezakegula gaia, nahi izanez gero.

2.3.10.5- Amvisa

a) **Bitarteko jarduera**

- Aberasturin urez hornitzeko obrak (erreg. zk.: 1576/11)

Erreklamazioa

Aberasturiko Administrazio Batzarraren ordezkariak salatu dute duela bost urte obra bat egin zutela etxebizitza batzuetako ur-hornikuntza hobetzeko eta ez duela funtzionatzen, eta gainera ez dutela Amvisaren hornikuntzarik.

Azterketa eta Ebazpena

Inplikatuekin zenbait bilera izan ondoren, herritarrei Amvisari ur hornikuntza eskatzeko zer egin behar duten jakinarazi diegu.

b) Gomendioa

- Ur hornikuntza Aberasturin (erreg. zk.: 1577 / 11)

Erreklamazioa

Aberasturiko Administrazio Batzarrak kexa adierazi digu, urez hornitzeko zerbitzuarekiko egoeraz.

Ordezkariek azaldu dutenaren arabera, herriak badu “iturburu propioa”, Argandoña eta Andoiuko herriekin partekatzen duena, eta bertatik ateratzen dute edateko ura. Hala ere, Aberasturiko Administrazio Batzarraren ustez, zerbitzua kudeatzeak arazoak sortzen dizkio herriari, eta ezin dute edateko uraren hornikuntza egonkortasunez bermatu. Hori dela eta, AMVISAREN erregimen orokorrean sartu nahi dute.

AMVISA prest dago herria edateko urez erregimen orokorraren barruan hornitzeko, baldin eta iturburua eta hornikuntza sarea lagatzen badizkiote, sozietatearen ur baliabideei gehitzeko moduan, herriak hornitzeko baldintza baita haien duten ura AMVISAREN barruan sartuta egotea:

1. ARTIKULUA

*Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz S.A. (AMVISA) udal enpresa pribatuaren helburua, edateko ura bildu, araztu eta hornitzeko eta hondakin-urak arazteko Zerbitzu Publikoa ematea da, eta helburu hori betetzeko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu Vitoria-Gasteizen bertan, udal-barruti horretako herri batzuetan eta beste zenbait udalerritan, haien hornidura AMVISAREN esku dagoen neurrian.*⁸

Arazoa da Aberasturirekin batera iturburua kudeatzen duten beste bi herriek abantaila dutela, AMVISAREkin “alta” hornikuntza kontratatuta daukatelako, eta horrek nahierara hornitzeko aukera ematen dielako, iturburutik nahiz AMVISATIK; horregatik, iturburua udal enpresari lagatzearen kontra daude.

⁸ <http://www.alava.net/pdf/2001/11600.pdf>

Azterketa

Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen arabera, Udalak nahitaez eman beharreko zerbitzua da edateko urez hornitzea.

26. artikulua. 1. Udalerriek, bere kabuz edo elkartuta, zerbitzu hauek eman beharko dituzte:

a) Udalerri guztietan:

Kaleko argiak, hilerriak, hondakinen bilketa, bideen garbiketa, edateko uraren etxez etxeko horniketa, estolderia, herrietako sarbideak, bide publikoen zolatzea eta elikagai zein edarien kontrola.

Zerbitzu hori eman eta kudeatzeko, Gasteizko Udalak sozietate anonimo instrumentala sortu zuen, AMVISA, eta hura eratzeko Estatutuen 2. artikuluan zehazten da xedea:

- Xedea.

Sozietateak, Gasteizen zein ondoren adieraziko diren udalerriko herrietan, uraren ziklo osoaren etapa guztien kudeaketa, ustiapena eta administrazio iraunkorra bideratzera zuzendutako jarduerak burutzea du xede:

- Hornikuntza: edateko ura atera, bildu, edateko on bihurtu eta banatzea.

- Saneamendua: bildu, garraiatu, araztu, ur zikinak berrerabili, baita sortutako lohiak eta hondakinak tratatzea ere.

2011ko urtarrilean, berriz, **Gasteizko uraren ziklo osoaren kudeaketa arautzeko ordenantza** berria onetsi zen; bertan AMVISAREN xedea eta jardueraremuia berriro definitzen dira.

GASTEIZKO URAREN ZIKLO OSOAREN KUDEAKETA ARAUTZEKO ORDENANTZA.

8. artikulua.- Hornidura eta hustubide zerbitzuen eskaera

Hornidura eta hustubide eskaerak honako alderdiak hartzen ditu aintzat:

1. Uraren hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak dagokien kontratuaren bitartez kontratatuko dira. Kontratua honako hauek sinatuko dute: alde batetik, AMVISAK, eta bestetik erabiltzaileak, zerbitzuak jasoko dituen eraikinaren, lokalaren edo barrutiaren jabeak edota dagokion eraikina okupatzeko zilegitasuna duela egiaztatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak. Nolanahi ere, jabeak zein errentariak (edo, halakorik balego, legezko okupatzaileak) zuzenean edo zuzenbidean baliozkoa den eta ordezkari sinesgarritasunez jasota utziko duen pertsonaren batek ordezkatuta aritu ahal izango dira.
2. Kontratazioa indarrean egongo da gauzatzen den egunetik beretik. Zerbitzuaren eskatzaileek ahalik eta zehatzen adierazi beharko dituzte eskatzen zaizkien datuak.
3. AMVISAK kontratua gauzatuko du eskatzaileekin, eraikineko instalazioak zuzen funtzionatu ahal izateko moduan dauden baldintzapean. AMVISAK, bere bitartekoen bidez, horrela ez dela ikusiko balu, eten egingo da indarraldia, harik eta eraikinaren egoera normalizatzen den arte.
4. Erabiltzaileak zuzen erabiliko ditu ura eta zerbitzura dituen instalazioak, beroriek onik zaintzeko beharrezko neurriak hartuko ditu. Nolanahi ere, ez du alferrikako kontsumorik egingo, eta baztertu egingo du beste hornidura-iturri batzuk erabiltzea, bai eta ur kutsagarri berriro sarera itzularaztea.

9. artikulua.- Zerbitzua emateko baldintzak

Hornidura eta saneamendu zerbitzuak (uraren ziklo osoa) izaera publikokoak dira, eta Ordenantza honek ezartzen dituen arauen eta/edo AMVISAK berariaz onartuko lituzkeen eta, oro har, legedia aplikagarriaren arabera arautuko dira.

Arau horien arabera, honako kasuetan AMVISAK baldintzatu egin ditzake –baita ukatu ere–, ur-hornidura eta saneamendua, bai eta kontratua deuseztatu ere.

Kokapen baldintzak

1. Zerbitzua eskatu den lekuan hornidura- edo saneamendu-sarerik ez dagoelako, edo sare horietako bateko edo bietako hodiekin edukiera nahikorik ez dutelako.

2. Arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik zerbitzua eskatu den lekuan hustubide isolaturen bat egin behar bada, arazketa-egitura baten egingo da. Berariaz galaraziko da hondakin urak zuzenean eta tratatu gabe efluenta isurtzea, baita euri urak ere.
3. Aurreko kasuetan, eskatzaileak sareak egin beharko ditu behar adinako sekzioa dagoen puntutik ur-hartune edo hustubideraino, obrak bere kontura egingo ditu, eta –egoera urbanistikoa aintzat hartuta– AMVISAREN kontrolpean eta bere jarraibideen arabera.. Gero, AMVISAREN esku utziko du egindako instalazioen jabetza.

27. artikulua.- Hornidurarik gabeko eta behar adinako hornidurarik gabeko guneen definizioa.

Gune batek hornidurarik ez duela esango dugu, baldin eta hartunea jarri behar den lekuan banaketa-sarerik ez badago.

Halaber, gune batek behar adinako hornidura ez duela esango dugu, baldin eta hartunea jarri behar den lekuan, eta inguru horretako kontsumo-eskakizunei erantzuteko hitzarturiko gehienezko emariak kontuan hartu ondoren, banaketa-sareak behar adinako emaria edo presioa ez badu, egindako eskaera berriaren gehienezko emariaren bikoitza eta beharrezko presioa eskaini ahal izateko.

30. artikulua.- Handitzearen gastuak hornidurarik gabeko zein behar adinako hornidurarik gabeko, eta estolderia gaitasun urriko zein batera gabeko guneetan.

Hornidurarik ez duten, hornidura nahikorik ez, edo/eta behar adinako estolderia-gaitasun eskasa edo hutsa duten lekuetan gune batean egin beharreko instalazio berriaren gastuak eskatzailearen kontura izango dira.

Tuturik ez balego, jarri beharreko sekzioa eskaturiko ur-emariaren bikoitza hornitzeko adinakoa izango da, eta lehendik dagoen tutu bat aldatu behar izanez gero, une horretako emari- edo kanporatze-eskaria gehi eskatutakoren bikoitza izango da.

Gerora sor litezkeen eskakizunei erantzuteko AMVISAK sekzio handiagoko tutu bat jartzea eskatzen duenean, aurreko atalean adierazitakoaren arabera kalkulaturiko tutuaren eta eskaturiko tutuaren artean dagoen aldearen kostua bere gain hartuko du, eta

kopurua zehazteko fabrikatzaileak bi tutu horietarako dauzkan tarifa-prezioen arteko aldearen arabera ezarriko da.

Sarea handitu edo aldatu behar den bakoitzean, AMVISAK behar diren materialak eta baldintza teknikoak adieraziko ditu, haien instalazioa ondo zainduz, eta inoiz ez du onartuko banaketa-sare orokorrarekiko lotunea egitea instalazioa behar bezala egin dela egiaztatu arte. Lotune hori AMVISAKo langileek edo hark izendatutako instalatzaileek egingo dute, eskatzailearen kontura.

Instalazio berria bide publikoan jartzen baldin bada, hura onartu ondoren AMVISA izango da haren jabe, eta une horretatik aurrera bera arduratuko da instalazioa onik zaintzeaz, ezkutuko akatsengatik kontratistak izan lezakeen erantzukizunaren edo garantia-eparearen kalterik gabe.

Instalazio berria publikoak ez diren lurretan edo urbanizazio pribatuetan egin behar denean, lehenengo baldintza berberak betez eraiki beharko da, eta AMVISAK kontrolatuko du lana; hala ere, hornitu beharreko eremuan zenbat erabilera egon, hainbat kontagailu jarri beharko dira lursail horretako irteeran, hartune bakar batek elikaturik, eta estolderiaren kasuan, erregistro kutxetak eremu pribatuaren barruan egingo dira; aurrerantzean ere instalazio partikularra izango da hura, eta haren mantentze- eta zaintze-lanak jabeek egin beharko dituzte.

Ebazpena

Azaldutako guztia eta AMVISAKo kudeatzaileekiko elkarrizketak kontuan izanik, ondoriozta dezakegu Gasteizko udalerriko Aberasturi herriak ez duela behar adinako hornidurarik, eta AMVISAREN hornikuntza eskatzeko eskubidea duela.

Bestetik, eta uraren ziklo osoaren ordenantzaren 30. artikulua ildotik, hornikuntza eskatzen duenak bere gain hartu beharko ditu hartuneari edo sarea prest uzteari dagozkion gastuak, beraz, Administrazio Batzarrak eta AMVISAK adostu beharko dute hori.

Administrazio Batzarrak iturburuari dagokionez izan ditzakeen eskubideak (% 50) lagatzea ere aztertu beharko da.

Horrenbestez, eginbide hauek bideratu beharko dira:

1.-Administrazio Batzarraren erabakia, behar bezala informatuta, eta bizilagunen sostengua duena, AMVISARI zerbitzua eskatzeko.

2.- Aberasturiko Administrazio Batzarrak AMVISARI idatziz eskabidea egitea, hornikuntzaren eskaera eta iturburuaren eskubideak lagatzeko prest daudela formalizatzeko.

3.- AMVISAREN txostena, hornikuntza berriak ekar ditzakeen gastuak balioesten dituen, Aberasturiko bizilagunek alde aurretik zehatz jakin dezaten zein eragin ekonomiko izango duen eragiketak.

2.3.11.- Beste

a) Orientazioa

- Semearen berririk ez eta nola hil zen ez jakitea (erreg. zk.: 1583/11)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du bere semea 2007an familia ospakizun batean zeudenean hil zelarik inork ez diola jakinarazi heriotzaren kausa ofiziala.

Azterketa

Herritarrarekin hitz egin eta epaitegira jo dezakeela jakinarazi diogu, epaitegi-medikuaren txostena eskatzera, edo semea hil zen ospitalera.

Ebazpena

ORIENTAZIOA

b) Idazki lagundua

- Pertsona batzuk babes ofizialeko etxebizitza batean bizitzea jabeak izan gabe (erreg. zk. 1592/11)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du babes ofizialeko etxebizitza batean bizi diren pertsonak ez direla haren jabeak.

Azterketa eta Ebazpena

Ekarri dituen agiriekin ETXEBIDEra bidaltzeko idazkia egiten lagundu diogu.

c) Errefusatzea

- Elkarbizitza ezinezkoa auzokoekin (erreg. zk.: 1632/11)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek sindikoak esku har dezan eskatu digu, 3. C etxebizitzako auzokoen jarduera gogaikarria geldiarazteko.

Azterketa eta Ebazpena

Ezin dugu eskaera bete, arazoa Udalaren eskumenetik gaindikoa delako; partikularren arteko arazoa denez epaitegien alorrekoa da.

d) Bitarteko jarduera

- Urte bukaerako suziriak (erreg. zk.:1626/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

ATEA (Animaliei Tratu Etikoa Ematearen Aldeko Elkartea, *Asociación para un Trato Ético con los Animales* gaztelarazko siglaren arabera) elkarteak urte amaierako jaiak –eta bereziki Gabon Zaharra– ospatzeko gure hirian azkenaldian suspertu den ohitura jakin baten inguruko kexa bat planteatu du, alegia, “*milaka suziri leherrarazten*

dira, eta horrek enbarazu objektiboak eragiten die herritar askori, zeinek, nahiz eta egoera jakin batzuetan, jaietan esaterako, halako jokamoldeak ulertu, ez datozen hala ere ohiturarekin bat, ez mamian, ezta azalean ere.”

Suziri horiek jaurtitzeko une gogokoena erlojuan 12ak joaz, urte zaharra hil eta berria jaiotzen den une sinbolikoa ohi da.

ATEAk arazorik gabe onartzen du egun seinalatuetan suziriak jaurtitzeko ohitura pozaren adierazpide gisa, baina nekezago onartuko du halako jokamoldea zentzuzko zenbait mugetara (ordutegiari buruz, esaterako) ez egokitzea. “

2.- Arazoaren azterketa

Gure hirian ez dago espazio publikoen erabileran gizalegezko jokamoldearen araubide orokorra ezarriko lukeen Herritarren arteko Bizikidetzari buruzko ordenantzarik, baina bai, aldiz, jarduera arriskutsu eta gogaikarriei buruzko eskumen orokorra, zeina alkatearen bandoen bidez gogorarazten ohi den.

Erreferentzia eta aurrekari gisa, urtero Andre Maria Zuriaren jaien aurretiko alkatearen bandoak dakarzkigu hona:

“Pirotekni elementu zenbaitek, jendea beldurtu eta atsekabetzeaz gain, istripu larririk sortu ohi dutenez zenbaitetan, inor hiltzeraino, debekatuta egongo da, horretarako berariaz baimena ematen delarik salbu, pirotekni elementuak erretzea, suziriak jaurtitzea eta petardoak, garibaldiak, eztanda egiten duten kortxoak, bonbatxo japoniarrak, lehegarriak, zotzeko edo alanbreko bengalak eta lehertzeko diren pirotekniako bestelako elementuak botatzea.” (2011ko bandoa)

Irizpide baliagarria bada Andre Maria Zuriaren jaietarako, baliagarri behar baita –berdin-berdin– Gabonetako eta urte Berriko jaietan ere. Beraz, zentzuzkoa eta ondo arrazoitua deritzogu Animaliei Tratu Etikoa Ematearen Aldeko Elkartearen iradokizunari, eta, beraz, aintzat hartzekoa.

3.- Gomendioa

Horregatik guztiagatik, hauxe GOMENDATZEN DIOGU alkate jaunari: eman dezala gure kontzientzia kolektiboan hain errotuta dauden Gabonetako jaietan bando bat, zeinaren bidez berezko dituzten sentimenduak adierazi ditzan, ohar interesgarriak gogora ditzan, eta, oro har, jaiak iraun bitartean elementu piroteknikoen erabilera DEBEKA dezan, urte zaharretik berrira igarotzeko une sinbolikoaren salbuespenarekin, hau da, abenduaren 31ko 24:00etatik urtarrilaren 1eko 00:15era arteko tartearenarekin.

d) Gomendioa

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen prestazioak (erreg. zk.: 1603/11)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek hitzordua eskatu du alkatearekin, jakin nahi duelako zergatik bideratzen dituen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere prestazioak.

Azterketa eta Ebazpena

Bulegotik alkatearekiko hitzordua kudeatzen duen zerbitzuarekin jarri gara harremanetan, eta kasua azaldu diegu, hitzordua eman diezaioten.

- Biribilguneen izenak (erreg. zk.: 52 / 11 ofizioa)

1.- Arazoaren aurkezpena

“Antoniareneko biribilgunea” izenez ezaguna den biribilguneari, hau da Armentiagana, Mediterraneoaren hiribidea eta Gaztelako atea lotzen dituen plaza edo biribilguneari, izena jartzea iradoki digute Zabalzana auzoko bizilagun batzuek.

2.- Arazoaren azterketa

Arlo honetako erreferentziatzko araua Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Muga Araudia onesten duen uztailaren 11ko 1690/ Errege Dekretua da.

75. artikulua.

1. Udalek eguneratuta izan behar dituzte bide publikoen izenak eta errotuluak, eta horren berri eman behar diete administrazio publiko interesdun guztiei.

Halaber, dagokien kartografia izan behar dute, edo hala ez bada, posta helbideen erreferentzia zehatza, eskumena duen administrazioak egindako kartografiari jarraiki.

2. Sektoreetan eskumena duten Estatuko Administrazio Orokorreko organoek lan horietarako laguntza teknikoa emango diete eskatzen duten udalei.

Kaleen izenek hainbat xede dituzte. Lehena xede praktikoa da: hiriguneko leku bat identifikatzeko balio izatea eta, aldi berean, hainbat pertsona, data oroigarri, erreferentzia leku eta gertakizun historikoak, besteak beste, gogoraraztea jendeari. Kale eta plazen izenak hiriaren memoria kolektiboaren antzekoak dira.

Egun, udalbatzak jartzen dizkie izenak kaleei. Garai batean, erabilera eta ohituretatik sortzen ziren izenak eta izaera arbitrarioa izan ohi zuten, handik hurbil zegoen iturri, eliza, basiliza eta putzu ... eta abarrei lotuta.

XIX. mendeak balio politiko garrantzitsua eman zion kale izendegiari, eta horren ondorioz, ordezkaritza duten talde politikoei dagokie kaleak izendatzea. Azken finean, hiri bateko kaleen izenek hiri espazioa antolatu eta arrazionalizatu egiten dute eta denok baliatzen ditugun koordenada sinboliko batzuk marrazten dituzte.

Hiri bateko kale izenen multzoak makrotestu moduko bat osatzen du eta horren bitartez identitate arloko eta narrazio historikoen hainbat gai zabaltzen dira.

Hiriko hainbat biribilgune eta bidegurutzek izen ofiziala dute, esaterako: Santo Domingo plaza, Latinoamerika plaza, Konstituzio plaza, Karlos I.aren plaza, Bilbo plaza, Santo Tomas Ibaiaren plaza, Kainabenta plaza... Hala ere, badira izenik gabeko beste zenbait leku ere.

Bizilagunen iradokizuna arrazoitua dela iruditzen zaigu, izan ere, aipatutako biribilgunea espazio publiko nagusi batean kokatzen baita: “hiri espazioa da, zabala eta adierazgarria; Bide korapiloa da, Zabalgana eta Ariznabarra auzoak lotzen ditu, Armentiarako bidea da eta Madrilerako errepidea hartzeko bidea. Hau da, baditu erraz identifikatzeko balioko dion erreferentzia izena edukitzeko ezaugarri nahikorik, dagoeneko ez dagoen ostalaritza areto batekin lotu beharrean.

Horrenbestez, hau ebazten dugu:

3.- Ebazpena

“Antoniareneko biribilgunea” izenez ezagutzen den gunehoni hiriaren memoria kolektiboa osatzeko balioko duen izen adierazgarri bat jartzeko iradokizuna aintzat hartzea GOMENDATZEN diot udalbatzari.

- 2012ko Zerbitzu Publikoak eskaintzearekin lotutako Tasen Ordenantza Fiskala (erreg. zk.: 1660 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko bizilagun batek kexa adierazi du Udalak ZABOR TASEN eguneraketa aprobetxatuz, EZARPENEZKO izaera duen errenergua sartu dutelako prestazio-izaera duen zergan. Hain zuzen ere, Zerbitzu Publikoak Eskaintzeagatiko eta Jarduerak Garatzeagatiko Tasak Arautzen dituen Ordenantzaren azken eguneraketan (2012), erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzetan, alokatuta daudenetan salbu, zaborren tasak 200 €-ko errenergua jasango duela finkatu dute. Badirudi argi dagoela errenergua horrek ez duela loturarik zerbitzuaren hornidurarekin; izan ere, esan gabe ondorioztatzen da erroldatzerik ez izateak higieztina ez erabiltzea dakarrela eta kasu horretan ezartzen da hain zuzen ere tasaren errenergua, prestazioa nahiz eta ez egon.

2.- Arazoaren azterketa

Zergak legez definitutako diru-sarrerara publikoak dira; nahierara aldatu ezin den egitura zehatza dute eta Administrazio publikoak eskatutako diru-prestazioak dira,

jardueraren (eta ez beste jarduera baten) garapen eksklusiboaren ondorio gisa, eta Legeak kontribuzioa egiteko betebeharra lotu ohi dio horri.

Zergak baliabide publikoak jasotzeaz gain, politika ekonomiko orokorrerako tresnatzat balio dezakete, berezko izaera kendu gabe eta legaltasun-printzipioa eta zergapetzeko ahalmena arautzen duten printzipio konstituzionalak errespetatzen direnean, betiere.

Zergak, izendapena edozein dela ere, ondo definitutako hiru kategoriatan sailkatzen dira: tasak, kontribuzio bereziak eta zergak.

- a. *Tasak tributu-mota bat dira, zergapeko egitatetzat honako hauek izan ohi dituztenak: herri jabaria banako batek berak bakarrik erabiltzea edo herri-jabariari banako batek aprobetxamendu berezia ateratzea; zuzenbide publikoaren arabera zerbitzu edo jarduerak bereziki zergapekoarentzat gauzatzea, edo bereziki hari eraginez edo haren onurarako gauzatzea; beti ere zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo hartzekoak ez badira, edo sektore pribatuak eman edo gauzatzen ez baditu.*
- b. *Kontribuzio bereziak dira, obra publikoak egiten direla-eta edo zerbitzu publiko berriak jarri edo lehenagokoak zabaldu egin direla-eta, horren ondorioz zergapekoak onuraren bat lortzea edo bere ondasunek balio handitzea da zergapeko egitatea.*
- c. *Zergak kontraprestaziorik gabe exijitzen diren tributuak dira, eta tributu horien zergapeko egitea zergadunaren ahalmen ekonomikoa agerian jartzen duten negozio, egintza edo gertakariak osatzen dute.*

Tokiko erakundeek zergak finkatu eta eskatu ahal izango dituzte, Konstituzioari eta legeei jarraiki. Horrek esan nahi du ezin dutela tasa “zerga” bilakatu edo kontribuzio berezia "tasa" bilakatu.

Lantzen ari garen kasu honetan, Udalaren xede argia erabili gabeko etxebizitza dutenen egiaztatutako gaitasun ekonomikoa zergapetzea da, nolabait bertan bizitzera behartzeko. Helburu hori oso legitimoa da, baina zergari gehiago dagokio, zerbitzuaren erabilgarritasuna ez den beste xede batean (legearen arabera) oinarritu ezin den tasari baino. Zabor-bilketako tasaren zenbatekoak zehazten dituen taula zerbitzuaren erabilerako intentsitate handiagoan edo txikiagoan oinarritzen da, jarduera eta

okupatutako azalera kontuan hartuta. Irizpide horretako salbuespen bakarra erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzak kasua da, hain zuzen; horiei tasaren zenbatekoa igo zaie (60tik 200 €-ra gutxi gorabehera) eta gorabehera hori ezin daiteke zuzenean edo zeharka lotu aipatutako zerbitzuaren erabilerarekin.

Arauketa anomalo horren bidez, Udalak okupatu gabeko etxebizitzak (erroldatuta inor ez dutenak) zergapetzen dituen zerga berria “contra legem” (zabor-tasen mendean) sortu du modu irregularrean.

3.- Gomendioa

Gure ustez, Udalak erabili gabeko etxebizitzak zergapetzeko duen asmoa, horien alokairua edo erabilera bultzatze aldera, legitimoa eta arrazoizkoa da, baina horretarako erabilitako formulak ez du tasaren izaera errespetatzen, ezta zergaren arloko legegilearen eskuduntzak ere, zeharka eta modu biziotsuan okupatu gabeko etxebizitzak gaineko benetako zerga sortu baitu eta zerga-tasari baino Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari (Foru Aldundiaren eskumenekoa) baitagokio.

Azaldutako guztiari jarraiki, Udalbatzari okupatu gabeko pisuei (erabiltzailerik edo errentaririk gabekoei) zabor-bilketaren tasa bidez ezarritako zerga berriaren arauketa berriz aztertzeko gomendatzen diogu, Batzar Nagusiei zerga berezi hori Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan finkatu dezaten eskatzeari utzi gabe.

2.4 Sindiko-Herritarren Defendatzailearen Bulegoak beste erakunde batzuetara bideratutakoak

2.4.1.- Arartekoa

- Arabako Foru Aldundiaren ukoa familia ugariaren agiria tramitatzeari (erreg. zk.: 1564/11)

Erreklamazioa

Gasteizko auzoko batek azaldu digu *Arabako Foru Aldundiak ez diola familia ugariaren txartela tramitatu nahi izan.*

Azterketa

Erakunde hori gure eskumenetatik kanpo dago.

Ebazpena

ARARTEKOarengana jotzeko adierazi diogu, haiek ardura baitaitezke eskaera tramitatzeaz.

Udal Sindikoak, haren araudiak xedatutakoarekin bat etorriz, lagundu egin behar dio **Arartekoari (Prado kalea, 9):**

43. artikulua.- Herritarren Defendatzailea edo Sindikoa lankidetzan estuan arituko da Herri Defendatzailearekin eta Arartekoarekin, erakunde horiekin izan beharreko lankidetzan eta koordinazioan modu egokian garatu eta zehaztu ahal izateko.

... ..

Koordinazio printzipio horren harira, eta beharrik izan gabe esku hartzeak bikoiztu ez daitezkeen, gure ustez egokia da Arartekoak bideratzea kexa hori, eta horrela jakinarazi diogu herritarrari.

- Gizarte laguntza etetea (erreg. zk.: 1590/11)

Erreklamazioa

Langraiz Okako herritar batek *gizarte laguntzak kendu dizkietela azaldu digu.*

Azterketa

Erreklamazio hori gure eskumenetatik kanpo dago.

Ebazpena

ARARTEKOarengana jotzeko adierazi diogu, haiek ardura baitaitezke eskaera tramitatzeaz.

3. ITXI GABE GERATZEN DIREN DOSIERRAK

Oroit-idazkiak hartzen duen denbora tartean abiarazitako hainbat dossier geratzen dira artean itxi gabe, oroit-idazki hau bukatzeko orduan. Dossier horiek ez ixtearen arrazoi nagusia hau da: udal zerbitzu eta sailei eskatu dizkiegun txostenak jaso zain gaudela.

Oraindik itxi gabe dauden dosier horien zerrenda ematen dugu ondoren:

| ABIAN DAUDEN DOSIERRAK, PENDIENTE | | | | |
|--|---|---|----------------------|-----------------|
| ERREG . ZK.: | KASUA | SAILA | IREKITZE DATA | ARRAZOIA |
| 1493/11 | ZARATA ARAZOAK | INGURUMENA | 2011KO MARTXOA | SAILA |
| 1558/11 | SALBURUKO SEMAFOROAK | HERRITARREN SEGURTASUNA | 2011KO IRAILA | SAILA |
| 1561/11 | ERROLDA | GIZARTEGINTZA | 2011KO IRAILA | SAILA |
| 1566/11 | TAO | HIRIGINTZA | 2011KO IRAILA | SAILA |
| 1570/11 | ZAPATARI KALEKO ETXARTEA | Gasteizko Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentzia, SA | 2011KO IRAILA | SAILA |
| 1578/11 | PARTIKULA IGORPENA | INGURUMENA | 2011KO URRIA | SINDIKOA |
| 1579/11 | ERRETANAKO LUR SAILA | HIRIGINTZA | 2011KO URRIA | SINDIKOA |
| 1588/11 | ZARATA TABERNAN | HERRITARREN SEGURTASUNA | 2011KO URRIA | SAILA |
| 1594/11 | ZIGORRA, UDALTZAINARI EZ OBEDITZEAGATIK | HERRITARREN SEGURTASUNA | 2011KO AZAROA | SINDIKOA |
| 1600/11 | LAGUNTZAK BERTAN BEHERA UZTEA | GIZARTEGINTZA | 2011KO AZAROA | SAILA |
| 1601/11 | AUZO ELKARTEEN ORDEZKARIAK | HERRITARREN PARTE-HARTZEA | 2011KO AZAROA | SAILA |
| 1602/11 | ZARAMAGAKO RENOVE PLANA | EKONOMIA SUSTAPENA ETA ENPLEGUA | 2011KO AZAROA | SINDIKOA |
| 1606/11 | TAO TXARTELA ETA ISUNAK | HERRITARREN SEGURTASUNA | 2011KO AZAROA | SINDIKOA |
| 1608/11 | SAN FRANTZISKO KALEKO ETXARTEA | EAHEIBA | 2011KO AZAROA | SAILA |
| 1609/11 | ISUNA, PRADO KALEAN | HERRITARREN SEGURTASUNA | 2011KO AZAROA | SAILA |
| 1615/11 | ZARATA UDALAREN ETXEBIZITZAN | OGASUNA | 2011KO AZAROA | SAILA |
| 1617/11 | TRANBIAREN SEINALEAK | HIRIGINTZA | 2011KO AZAROA | SINDIKOA |
| 1623/11 | HESI BAXUA | HIRIGINTZA | 2011KO AZAROA | SINDIKOA |
| 1628/11 | MESKITA ZARAMAGAN | INGURUMENA | 2011KO ABENDUA | SAILA |
| 1637/11 | ETXEBIZITZA EZEGOKIA LAGUNTZETARAKO | GIZARTEGINTZA | 2011KO ABENDUA | SAILA |
| 1638/11 | TXIMINIA INSTALATZEA | INGURUMENA | 2011KO ABENDUA | SINDIKOA |
| 1641/12 | TAO EREMUA | HIRIGINTZA | 2012KO URTARRILA | SINDIKOA |
| 1644/12 | HOSTO HAIZAGAILUAK | BIDE PUBLIKOA | 2012KO URTARRILA | SINDIKOA |
| 1650/12 | AUTOBUS GELTOKIA | ALKATETZA | 2012KO URTARRILA | SINDIKOA |
| 1657/12 | BARTOLOAK ESKOLARATZEA | HEZKUNTZA | 2012KO URTARRILA | ERABILTZAILA |
| 1659/12 | JAKI DASTATZEA | INGURUMENA | 2012KO URTARRILA | SAILA |
| 1661/12 | ZUHAITZ INAUSKETA | BIDE PUBLIKOA | 2012KO | SAILA |

| ABIAN DAUDEN DOSIERRAK, PENDIENTE | | | | |
